

# *•eus* Jak<sup>in</sup>259

herria kultura hizkuntza azaroa-abendua  
2023

## Euskal kultura 2023

**Kultura-hitzarmenak hezkuntzan**  
IRATXE RETOLAZA

**Kultura eta basamortua**  
JON URZELAI

OIHANA ARANA  
EIDER EIBAR  
AXPI  
GORKA EROSTARBE  
EXPRAL  
JONE RUBIO  
PATXI GALLEGO

ANDONI IMAZ  
PAULA ESTEVEZ  
MARIÑE ARBEO  
LIBE MIMENZA  
DANI FANO  
JOSEBA LARRATXE  
ELI PAGOLA

### **LIBURUAK**

Euskal liburugintza 2022  
XABIER EIZAGIRRE

**Jakin**<sup>•eus</sup>**259**  
herria kultura hizkuntza azaroa-abendua  
2023



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

#### LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

#### OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi

#### ZUZENDARIA

Lorea Agirre

#### ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

#### ERREDAKZIOA

Haritz Azurmendi • Oihana Iguaran

#### KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel  
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua  
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

#### IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 Andoain  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAHIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

## SUMMARY

**5**

## ZUZENDARIAREN HITZAK

**7**

## GAI NAGUSIA Euskal kultura 2023

### **11** Kultura-hitzarmenak hezkuntza-testuinguruetan Iratxe Retolaza Gutierrez

XX. mendean zehar erroturiko hitzarmen sozialen bitartez, ikuspegi nagusi hau errotu zen euskal hezkuntzan: euskal kultura = euskarazko jarduna. Azken hamarkadan hitzarmen hori arrakalatu joan da. Hingatze prozesuan gertaturiko tentsio zein desplazatze zenbait aipatzen dira, eta birkokatze horiek hezkuntzagintzan ere islatu direla ohartarazten da.

### **35** Kultura eta basamortua Jon Urzelai Urbietta

Kulturaren ikuspegi estrategikoaz egiten da gogoeta; egun indarrean dauden kultur politikak auzitan jarri eta trantsizio eko-sozialaren testuinguruan zein beharko liratekeen aztertzen da.

- 51** Oihana Arana • Eider Eibar Zugazabeitia • Axi Gorka Erostarbe Leunda • Exprai • Jone Rubio Mazkieran • Patxi Gallego • Andoni Imaz Pozueta Paula Estevez • Mariñe Arbeo Astigarraga Libe Mimenza Castillo • Dani Fano Eli Pagola Apezetxea • Joseba Larratxe Berazadi
- Urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzea idazten dute sei egilek. Oihana Arana, Gorka Erostarbe Leunda, Jone Rubio Mazkieran, Andoni Imaz Pozueta, Libe Mimenza Castillo eta Eli Pagola Apezetxeak literatura, musika, arte, zinema, hedabide eta bertsolaritzaren eremuak jorratzen dituzte, hurrenez hurren. Eider Eibar Zugazabeitia, Axi, Exprai, Patxi Gallego, Paula Estevez, Mariñe Arbeo Astigarraga, Dani Fano eta Joseba Larratxe Berazadi irudigileen begiradak biribiltzen du urtearen balantzea.

## LIBURUAK

- 99** Euskal liburugintza 2022  
Xabier Eizagirre Gesalaga

2022an euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten da: ohar metodologikoak; argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, argitaletxe emankorrenen aipamena eta kanpoko eta bertako argitaletxeen ekoizpenaren konparaketa; argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluaren zifra eta nobedadeak eta berrargitalpenak; azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa.

## KONTRAZALA Dom Campistron

## BASQUE CULTURE 2023

### Cultural agreements within the educational context

The critic and cultural analyst Iratxe Retolaza Gutierrez maintains that, by means of the social agreements guaranteed during the 20<sup>th</sup> century, the following standpoint was established in Basque education: Basque culture = activity in Basque language. In recent decades, that agreement has steadily crumbled. The author mentions the tension and shifts that have taken place during that erosion process, pointing out that such new stances have also been reflected in the field of education. **Iratxe Retolaza Gutierrez**

### Culture and desert

The cultural journalist and sociologist Jon Urzelai Urbietta reflects on the strategic standpoint of culture, calls into question the cultural policies currently in force, and analyses which policies would need to be developed within the context of ecosocial transition. **Jon Urzelai Urbietta**

### Basque culture 2023

Six authors, professionals and analysts from the world of Basque culture provide us with a critique of the cultural events that have taken place during 2023. Oihana Arana, Gorka Erostarbe Leunda, Jone Rubio Mazkarian, Andoni Imaz Pozueta, Libe Mimenza Castillo and Eli Pagola Apezetxea offer an appraisal of the activity that has been pursued in the areas of literature, music, art, film, media and verse improvisation, respectively. The satirical and artistic view provided by the cartoonists Eider Eibar Zugazabeitia, Axi, Exprai, Patxi Gallego, Paula Estevez, Mariñe Arbeo Astigarraga, Dani Fano and Joseba Larratxe Berazadi illustrates this appraisal of Basque culture. **Various authors**

### Basque bibliography 2022

Xabier Eizagirre Gesalaga, a graduate in Philosophy and editor-in-chief of JAKIN, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2022. In this year, 2.529 books were published in the Basque language, 228 more than in 2021. Most of these publications are school books (35,4%), followed by children's and young people's literature (28,4%), literature for adults (13,8%) and books on human and social sciences (12,6%). The author continues with the work involving the classification and study of Basque bibliography that Joan Mari Torrealdei first embarked on in 1976. **Xabier Eizagirre Gesalaga**

**K**ulturaz ari garenean zertaz ari gara. Galdera horri erantzuteko, kulturaren definizioaren, praktikaren eta botere harremanen sustraiko azterketa egitetik abiatzea beharrezkoa da, sakonean gertatzen dena ondo ulertzeko. Horixe egin dute, nor bere eremutik baina bien artean osagarri, Iratxe Retolaza kultur ikerlari eta eragileak eta Jon Urzelai kultur kazetari eta soziologoak, artikulu nagusi banatan.

Arrazakeriaren aurkako neurrietako bat zurrumurruak, itsukeriak eta aurreiritziak desgaitzea da; izan ere, menderakuntza prozesu ororen arrakasta menderatzaileak menderatuaren gainean eraikitako gezurrak menderatuak berak sinetsaraztean eta 'natural' eta 'berezkotzat' harraraztean oinarritzen da. Pierre Bourdieu soziologoak 'indarkeria sinbolikoa' deitu zuena. Lehen bezala orain, eta menderakuntza eremu batean bezala besteetan ere, indarrean daude indarkeria sinbolikoaren mekanismoak, baita euskal kulturari dagokionez ere. Bestalde, eta oinarri beraren beste adar gisa, euskal kultura zer den eta, bereziki, zertarako erabili nahi dugun eztabaida ere irekita dago, nabarmen, esate batera, kultura ekonomiaren motor gisa ustiatu eta turistifikaziorako erabiltzen denean.

Euskarazko kulturarekiko kultur aurreiritziak, kultur zurrumurruak eta itsukeriak, arrainarentzat ura nola, gurean arnasten dugun oxigenoa dira oraindik ere hein handi batean. Indarkeria sinbolikoari sinboliko izateak ez dio larritasunik kentzen; are, larriago izan daiteke, kasik oharkabean pasatzen baitzaigu eta, haren ondorioz, praktika sozialak, hitzarmen soziopolitiko eta materialak, legeak, gizarte antolamenduak eta beste eraikitzen baitira. «Ez zait euskal musika gustatzen» dioena horren guztiaren biktima eta borrhero da alde berean, autosuntsiketaren jopu eta eragile. Hori guzti hori abiapuntu hartuta, Iratxe Retolazak azterketa zoli, mami-tsu eta beharrezkoa osatu du, kulturaren gaineko kontsentsu eta eraikuntza ideologiko eta sozialek hezkuntza sisteman zer ondorio dituzten arakatu eta gero.

Jon Urzelai «zertaz ari gara kulturaz ari garenean?» galdera maiseatu baina beharrezkotik abiatzen da, eta azken hamarkadetan –bereziki, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan– erakunde publikoeta-

tik kultura hein handi batean turismorako tresnatzat hartu izanaren etnografia xehea egiten du, eta, horrekin, kultur politika horiekiko kritika argia. Goia jo ote du eredu horrek, galdetzen du, eta kulturaz aritzeko beste esanahi batzuen beharra azpimarratzen.

Kultura hainbat kultur diziplinen multzo gisa ere ulertzen dugunez, Oihana Aranak literatura, Gorka Erostarbek musika, Jone Rubiok artea, Andoni Imazek zinema, Eli Pagolak bertsoa eta Libe Mimenzak sare sozialak izan dituzte aztergai, ez horregatik, gorago aipatutako azterketa kokaturik eta sakonik gabe. Denak irakurri beharrekoak, denek zer pentsatua ematen dutenak. Berdin, zortzi marrazkilarik –Eider Eibar Zugazabeitia, Axi, Exprai, Patxi Gallego, Paula Estevez, Mariñe Arbeo Astigarraga, Dani Fano eta Joseba Larratxe Berazadi–, horiek ere eremuz eremu, egindako artikuluko grafikoek ere. Josu Martinezek zuzendu eta Baigorriko ibarreko herritarrek gorpuztutako *Bizkarsoro* filmaren gaineko irudi ikerketa dakar kontrazalera Dom Campistronek, euskararen eta euskal kulturaren kontra erabilitako indarkeria sinbolikoaren kontaketa historikoa hori ere. Sortzaile bikain adina kulturaren azterlari bikain ditugula berriro berresten da.

2022ko euskal liburugintzaren gaineko ikerketak ixten du zenbaki hau. 46. ikerketa da honakoa, Xabier Eizagirrek egina. Berri baikorra dakar, lerroburu batera ekartzera: pandemiaren bi urte gogorrenak gainditu ondoren, goranzko joerari heldu dio berriro euskarazko liburugintzak. Zurrumurruen kontrako antidoto onena ekitea baita.

## EUSKAL KULTURA 2023

**11** Kultura-hitzarmenak  
hezkuntza-testuinguruetan  
Iratxe Retolaza Gutierrez

**35** Kultura eta basamortua  
Jon Urzelai Urbietta

**51** Oihana Arana  
Eider Eibar Zugazabeitia  
Axi  
Gorka Erostarbe Leunda  
Expriai  
Jone Rubio Mazkieran  
Patxi Gallego  
Andoni Imaz Pozueta  
Paula Estevez  
Mariñe Arbeo Astigarraga  
Libe Mimenza Castillo  
Dani Fano  
Eli Pagola Apezetxea  
Joseba Larratxe Berazadi

## Kultura-hitzarmenak hezkuntza-testuinguruetan

Betile atzean «ni bezalakoan»  
kultura honen jakin-mina duzu,  
baina aurreiritziak itsutzen zaituzte.

Miren Zabala: *Bisaia ezagunek aurkeztu zaituzte* (1999)

Aurreiritziak maiz itsutzen gaituzte, aurreiritziak maiz geure jakin-mina mugatzen dute, aurreiritziak maiz galdera berrietarako bidea oztopatzen dute. Eta kultura-aurreiritziak eta kultura-zurumurrak ez dira salbuespen, kultura-adierazpide batzuetarako edo kultura-jardun batzuetarako geure sarbideak zabaldu edo mugatu baititzakete. Baita kultura-esparru oso bat aspergarritzat edo interes gabekotzat jotzeraino mugatu ere.

Kulturaren esparruan aiseago zabaltzen dira kultura gutxien inguruko aurreiritzi-sortak kultura hegemonikoen ingurukoak baino: alde batetik, kultura gutxiak homogeneizatzeko joera handiagoa egon ohi delako (edozein komunitate azpiraturekin gertatu bezala), eta, beste alde batetik, auzo kultura hegemonikoen kultura-zurumurrak ere hedatzen dituztelako, botere-posizioari eta gailentze sinbolikoari eusteko. Aurreiritzi zenbait hain dira errepikakor, hain dira indartsu, kultura gutxitu horretako kideen artean ere iltzatzen direla, eta oharkabean zurumuru eraginkor bilakatzen dira.

Gure artean ere hain dira eraginkor halako zurrumuruak, ezen aurreiritziek ere irrist egin duten euskal kultura i(ra)kasgai den testuinguru batzuetara. Bihoaz hemen hiru adibide, horren erakusle, baina beste horrenbeste topa daitezke geure eguneroko hezkuntza-jardunetan eta hezkuntza-materialetan.

*Lehen adibidea.* Euskara irakasteko ikasmaterial batean, esate baterako, honako elkarrizketa hau ageri da:

Ainara: Aizu, musika aldatuko al duzu?

Tabernaria: Zer, ez zaizu gustatzen?

Ainara: Bai, baina nahiago dut euskal musika.

Eta beheraxeago, musikaren inguruko iritziak emateko adibide hauek ageri dira: «Musika klasikoa gustatzen zait / Euskal musika nahiago dut / Jazza gustatzen zaizu?». Elkarrizketa eta baieztapen horien bitartez euskal musikaren aldeko mezu baikor bat adierazi nahi izan da, protagonistak «nahiago» duelako euskal musika; baina, halako adierazpenen bitartez oharkabean euskal musika zerbait homogeneousat hartzen da, eta beste musika-estilo batzuen aurrez aurre jartzeak iradokitzen du uztarrezinak direla jazza eta euskara, musika klasikoa eta euskara.

*Bigarren adibidea.* Euskal Herrian Zuzenean festibaleko ki-deek lizeoetan euskal kulturarekiko atxikimendua zabaltzeko eginiko urratsetariko batean aurreiritziak landu zituzten. Gazteengan euskal kulturaz gogoeta egin nahi zutela, galdera hauxe proposatu zieten: «euskal kultura aspergarria ote da?» galdera abiapuntutzat hartuta eztabaida-taldeak sortu zituzten (Roux 2023). Gogoeta-gune interesgarriak sortu zirela aipatu zuten, eta, zinez, hala izango zen. Nolanahi ere, izan bada adierazgarria abiapuntuko galdera horixe izatea, euskal kultura zerbait monolitikotzat hartuz, eta asperdurarekin zeharka lotuz.

*Hirugarren adibidea.* Irakaslegai batek, Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko masterra egiten ari zela, euskal musika ikastetxean lantzeko proposamen oso interesgarria garatu zuen, baina proposamen horren abiaburuko kokapenean, baieztapen hau egiten zuen: «Reggetoia entzutea gustatzen

zaie gazteei, eguneko edozein ordu dela. Baina zer gertatzen da gazteen artean gero eta euskal musika gutxiago entzutearekin? Zergatik gertatzen da hori?». Aurkezpen-testu horretan, errealitatea kokatzeko hainbat baieztapen egiten dira, ondorio hauetara eraman gaitzaketenak: alde batetik, badirudi gazte guztiei reggetoia gustatzen zaiela, eta batzuk zaleak badira ere, beste batzuk ez, gustu kontua ere bada (belaunaldiak sailkatzean irakasleok ikuspegi homogeneizatzailea saihestea komeni da), eta, beste alde batetik, euskaraz reggetoirik ez dela ondorioztatzen da baieztapen horretatik, eta nolabait euskal musika estilo jakin batzuetara mugatu, eta kultura-praktikan ez da hala.

*Laugarren adibidea. Euskaltzaindiaren Hiztegiko* kulturari loturiko sarrerei erreparatuz gero, kultura definitzeko edo zedarritzeko erabilitako ikuspegiak islatzen dira, baita euskal kulturak iradokitako imajinarioak ere. Araka ditzagun sarrera gutxi batzuetako pasarte hauek:

**kultura**

1 iz. Gogo ahalmenak lantzea; gogo ahalmenen garapena dakarten ezagutza eskuratuen multzoa. [...] *Irakaskuntza da kulturaren oinarria.* [...] *Gaztelaniaz mintzatzen den kultura-mundua.* [...] *Ikaslearen kultura maila oso kontuan eduki behar dugu.* [...]

2 iz. Gizarteetan, ikasten diren jokamoldeen multzoa. *Arbasoengandik ikasi duguna da gure kultura.*

3 iz. Herri edo zibilizazio baten buru-lanaren emaitzen multzoa. *Europaren kultura guztiona da. Frantses kultura. Euskaldunok ez dugu, herri gaietan izan ezik, kultura berezirik. Herri kultura eta kultura ikasia edo landua. Hizkuntza bakoitza kultura baten adierazpidea da.*

Askotariko zentzuak eta erabilerak hartzen ditu kultura hitzak, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* sarrera horretan hiru ikuspegitan jartzen da fokua: lehenik, pentsamendu-jardunarekin lotzen da, jarduera intelektualarekin-edo, eta adibideetan jardunbide horren garapena zein finkatzea hezkuntzaren eremuarekin lotzen da, eta, bestalde, adibide batean kultura-mundua gaztelaniarekin lotzen da, kultura-aurreiritzi hori

sendotzeari bide emanez; bigarrenik, gizarte bateko ohiturak zein jarrera-multzoak aipatzen ditu, erritual sozial ere badirenak, eta, kasu horretan, ordea, bai, hurbiltzen da euskal kulturaren imajinariora, 'arbaso' hitza adibidera ekarriz, eta, hortaz, euskal kultura tradizioz jasotako ohitura-multzoaren

Kultura-hautuen  
inguruko ikerketak  
eta azterketak egin  
izan dira azken bost  
urteotan: tamalez,  
euskaldunok maizago  
jotzen dugu erdazrazko  
kultura-ekoizpenetara

kutsura hurbilduz; eta, hirugarrenik, herri-komunitate baten kultura-adierazpidetzat kokatzen da, eta, adibideak arretaz begiratzuz gero, baita adibideen hurrenkerari erreparaturik ere, zeharka kultura-aurreiritzi hauek islatzen direla oharitzen gara: Mendebaldeko kultura kokatzen da erdigunean; euskal kultura herri-gaiekin lotzen da, eta jardun gutxitu

modura irudikatzen da («euskaldunok ez dugu [...] kultura berezirik»); eta azken adibide horren ondoren herri-kultura eta kultura jaso bereiztean, kultura-mailakatze horretan indar egiten da, eta Mendebaldeko kultura-logika horietan euskal kultura ez-berezizat, ez-aipagarritzat jo.

**kultura hizkuntza, kultura-hizkuntza**

*iz. Kultura ikasiaren adierazpide den hizkuntza arautua. Gaztelania edo frantsesa zen, oro har, garaiko klase eskolatuen kultura hizkuntza. Helburua zein den garbi dago: ahozko jardunean besterik erabili ez den mintzaira diglosikoa idatzizko kultura-hizkuntza moderno bihurtzea.*

Bigarren sarrera honetan arreta jarrita, kultura-hizkuntza kultura ikasiarekin lotzen da; adibideetan kultura ikasi horrekin lotzen dira gaztelania eta frantsesa, eta ahozko jarduna kultura modernoaren aurreko arotzat kokatu. Garai eta jardun batzuetan neurri batean hala izan arren, gaur egun oraindik ere azpimarra halakoetan jartzeak, izaera moderno hori idatziarekin eta kultura ikasiarekin lotzeak eta ahozko jarduna kultura-hizkuntzaz at kokatzeak Mendebaldeko

logika kulturalarekin bat egiten du, eta gaur egungo euskal kulturaren inguruko aurreiritzi zenbait sendotzen ditu.

**kultura aniztasun, kultura-aniztasun**

iz. Lurralde berean kultura eta jatorri desberdineko gizataldeak elkarrekin bizitzea. *Herrialdeen batasuna eta kultura aniztasuna helburu duen mundu honetan bada oraindik gaindiezineko muga bat, Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko muga.*

Hirugarren sarrera horretako adibideetan ere Mendebaldeko kulturaren zenbait logika indartzen dira, kultura-harremanetan Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko eten-gabeko zubiak kontuan hartzen ez dituen, eta logika bitar hori indartzen duena. Mendebaldeko halako logika kultural bitarrek (kultura jaso vs herri-kultura, idatzizko jarduna vs ahozko jarduna, modernitatea vs tradizioa, Mendebaldea vs Ekialdea...) kultura-hierarkia eta kultura-aurreiritzi zenbait eraikitzen dituzte, euskal kulturaren logiketara eta jardunbideetara hurbiltzeko eragozpenak sor ditzaketenak, kultura hegemonikoak vs kultura gutxituak logika hierarkikoan kokatzen dutelako kultura-imaginarioa, eta, halaber, hierarkia eta sailkapen horiek euskal kulturaren logika zenbait ikusezin eta ulergaitz egiten dituztelako (Luku 2009).

## **Nork egosten ditu kultura-hautuak?**

Hain dira indartsu zurrumurruok, ez zaizkigula ezezagun. Hain dira indartsu zurrumurruok, ziur asko ihes egingo zigutela halakoek sarri, eta ihes egingo digutela oharkabean ere. Ezbairik gabe, deseraiki beharreko kultura-aurreiritziak dira. Hizkuntza-aurreiritziekin gertatu bezala, kultura-aurreiritziek jarreretan eragiten baitute, eta, kasu honetan, kultura-hautuetan.

Kultura-hautuen inguruko ikerketak eta azterketak egin izan dira azken bost urteotan, eta, tamalez, ikerketa horiek kultura-eragileok sumatzen genuena agerrarazi dute: euskaldunok maizago jotzen dugu erdarazko kultura-ekoizpenetara (izan liburugintzan, izan musikagintzan, izan

komunikabideetan). Hautu eta joera horiek ulertzeko, besteak beste, askotariko azalpenak eman izan dira: hiztun-multzoz handi baten motibazioa apaldu izana, eskolaz kanpoko eremuetan jarduteko hizkuntza-gaitasuna murriztu izana, merkatuaren eta industriaren ahulguneak, eta abar (Amezaga 2018). Joera horiez gain, beste batzuei ere erreparatzea garrantzitsua iruditzen zaigu, guztiak ere kulturaren inguruko diskurtso zein praktika sozialekin harreman estua dutenak: kultura-aurreiritziei loturikoak, kultura-ikuspegiei loturikoak eta kultura-hezkuntzari loturikoak. Eta azterketek ere halakoak agerrarazi dituzte. Esate baterako, 55 urtetik gorako euskaldunen laurdenek (%26) adierazi dute ez direla euskaraz irakurtzeko gai (Allur 2018: 13-14). Euskaraz irakurtzearen motibazioei buruz galdetzean, «proportzioan handiagoa da lanarekin edo ikasketekin lotutako» motibazioa (*ibid.*: 21). Eta euskarazko liburuak horrenbeste ez irakurtzeko arrazoiez galdetzean, aldiz, arrazoibide nagusietariko bat hauxe izan da:

ez dute euskaraz irakurtzeko ohitura edo erraztasunik. Bostetik bik baino gehiagok erantzun dute hori (%43). Adinaren arabera badago aldea, baina kasu denetan hori da gehiago ez irakurtzeko zio nagusia. Nabarmen atzerago daude beste motibo batzuk; gustuko libururik ez izatea, adibidez. (*Ibid.*: 22)

Bestalde, euskal kulturarekiko atxikimendu handia irudikatzen du Siadecoren inkestak (euskaldunen artean hamarreko eskalan, batez beste 8,4 puntu), baita euskarazko kultura-ekoizpena sustatzearen aldeko atxikimendua ere (*ibid.*: 17). Nolanahi ere, euskal kulturari buruz galdeturik ere, datu gehientsuenak biltzean kultura-logika jakin batzuk hartu dira ardatz, hain zuzen ere lehen aipaturiko Mendebaldeko kultura-logika horretara hurbiltzen direnak: liburugintza (literatura eta kultura idatzia, formatu jakin batean garaturikoa, liburuan), musikagintza (ahozko kulturako eta arte eszenikoetako jardun bakar hori aztertu da) eta soilik komunikabideen eremuan aztertu dira euskarri eta formatu ugariagoak (irratia,

telebista, prentsa idatzia...). Kultura-ikerketak egitean ere, eusten zaio askotan Mendebaldeko logika horri, kultura-sailkapen horiei, kultura-ikuspegi horiei, eta ez da gogoetatzen euskal kulturaren inguruko beste logika edo premia batzuetatik.

## **Hitzarmen sozialak urtze-puntuak**

Kultura-aurreiritziek ere islatzen dute zertan diren hitzarmen sozialak, zertan diren indar soziokulturalak, baita zertan den kultura-hezkuntza ere. Gizartean indarra hartu duten hitzarmen sozialen berri izateko, han-hemen galdekatu ditzakegu herritarrak, kultura-eragile ez diren horiengan zer hitzarmen sozialek izan duten eragina ikusteko, marmar sozial nagusian hedaturiko hitzarmen-markoak zeintzuk diren agerrarazteko. Euskal kulturatzat zer hartzen den jakiteko, eta gizarteko hitzarmen sozial horiek hezkuntza-testuinguruan ikusgarri egiteko, 2015-2016 ikasturtetik 2020-2021 ikasturtera bitarte, EHU/UPVko Arteko graduiko ikasle-taldeei, 4. mailako lehen saioetan, euskal kulturarekin lotzen zituzten adierazpide edo imajinario positiboen eta negatiboen zerrenda egiteko eskatzen nien. Ariketa sinple hartan bildutako kultura-iritziek hitzarmen sozialen inguruko datu ugari islatzen zituzten, eta, gaurkoan, askotan errepikaturiko bi joera besterik ez ditugu ekarriko hona.

Alde batetik, gero eta gehiagotan aipatzen ziren urtez urte sukaldaritza eta arkitektura euskal kulturaren adierazpide positibotzat, eta, hortaz, euskal kultura esparrua arte-sorkuntzaz harago kokatzen zuten batzuek (nahiz eta ikasgaian kultura-sorkuntza landu behar genuela adierazi, nahiz eta Arte Ederren fakultateko testuinguruan jardun). Zehazki, turismo-politiketan sustaturiko bi jardunekin lotzen zuten esparru hori, eta agerian uzten du horrek turismo-politikatik sustaturiko diskurtsoak hitzarmen sozialetan eragiteko zer-nolako indarra izaten ari diren. Beste alde batetik, sarritan aipatzen zen folklorea, tradizioa edo ohitura alderdi negatiboen artean (eta batzuetan hortxe kokatzen ziren euskal

dantzak edota jaiak zein kultura-erritu batzuk), eta horrek islatzen du goraxeago aipaturiko modernitatea vs tradizioa ikuspegi hierarkiko horrek zentzuak eta iritziak sortzeko indar handia duela, zentzurik herstuenean. Kultura-aurreiritziak egosteko makineria borbor zela ohartzen ginen ariketa simple hura egiten genuen aldiro.

Komunitate batek hitzarmen sozialen bitartez eraikitzen du kulturatzat zer zedarrituko duen, eta, are gehiago, asko-

Euskal kulturaren inguruko hitzarmen sozialek askotariko tenkatze-prozesuak, malgutze-prozesuak eta urtze-prozesuak bizi izan dituzte

tariko kultura-ikuspegiaren arteko tentsioak, igurzteak eta gurutzatzeak gertatzen dira izendatze- eta adoste-prozesu dinamiko eta mugikor horietan. Kulturaren esparruak eta adierazpideak zedarritzeko hitzarmen sozial horietan askotariko kultura-eragileek hartzen dute parte: sortzaileek, kultura-elkartek, kultura-bi-

tartekariak, kultura-kudeatzaileak, kultura-kritikariak, kultura-plazek, ekoizpen-guneak, erakunde publikoak... Baita hezkuntza-erakundeak ere.

Euskal kulturaren inguruko hitzarmen sozialek askotariko tenkatze-prozesuak, malgutze-prozesuak eta urtze-prozesuak bizi izan dituzte, eta sarritan hitzarmen sozialen inguruko auziak edo ezbaiak garai soziokultural eta politiko aldakorretan etorri dira. Egonkortze-, malgutze- eta tenkatze-une horietariko batzuk ekarriko ditugu gogora, azaletik, norabide eta ibilbide batzuen mapa zirriborratze aldera, eta kultura-ikuspegiaren finkatze zein malgutze horietan hezkuntza-eragileek zer-nolako eragina izan duten argitze aldera.

1920ko eta 1930eko hamarkadetako Euzko Pizkundean, euskal kultura zedarritzeko eta egituratzeko kultura-erakundeak sortzeko urratsak egin ziren (Apalategi 2005): euskarazko kultura-sorkuntza hartu zen ardatz, eta, besteak beste, bi adar indartu ziren pizkunde erromantiko hartan, batetik,

literatura idatzia (eta bereziki olerkia), eta, bestetik, ahozko literatura (eta bereziki bertsolaritza). Giro hartan ere euskarazko irakaskuntzaren inguruko lehen saioak jarri ziren abian, eta, hezkuntza-testuinguru berri horiek ekarri zuten Euskal Curriculumaren inguruko kezka eta gogoeta. Esate baterako, Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuan bertan, 1918ko irailaren 1etik 8ra bitartean eginikoan, atal bat eskaini zitzaion irakaskuntzari, eta 50 bat irakaslek hartu zuten parte (Bilbao eta Pérez 2008: 85). Hezkuntzaren inguruko gogoeta haietan, besteak beste, testuliburu berezituak sortzearen inguruko auzia hauspotu zen, baita euskal kulturaren transmisioari buruzko auzia ere, biak ere eskutik joan zirenak:

Lehen aroan, testuliburua bere edukiaren bidez sozializazio-tresna bihurtzen zen. Liburua, aldi berean, kultur biltegia zen eta euskararen ondarea. Liburua euskaraz burutzen zen, euskal mundutik sortzen, belaunaldi berriei euskal mundua transmititzeko. Euskararen berreskurapena nahitaezkoa zen eta, berarekin batera, Euskal Herriaren nortasunari eutsi behar zitzaion. Horregatik, edukiak euskaraz burutu behar ziren, euskara lantzeko, kultura ezagutzeko eta aberria maitatzeko. Horrez gain, hiztegi gintza bultzatu nahi zen, jakintzagaiak euskaraz idatziz. Testuliburuaren hitzaurrean, askotan, egile askok euskararekiko zuten jarrera aditzera eman nahi zioten irakurleari. Herriaren aldarrikapen kulturalaren beharrianaz kontzientzia sortu nahi zen. Horren haritik, ezin ahaztu dugu Eusko Pizkundearen saioia dela eta auzo-eskolak eta ikastolak sortzen direla. Eusko Ikaskuntzak hizkuntzari eta irakaskuntzari buruzko kongresuak gauzatu zituen eta garrantzizko erabakiak hartu, gerora testuingutzan eragina izango zutenak. (*Ibid.*: 106)

Francoren altxamenduak eta Bigarren Mundu Gerrak Euskal Herrian sorrarazitako arrakala eta eten kulturaren ondoren, mende hasierako oihartzun, jardun eta zedarriak birpentsatetik eta garatetik etorri ziren 1950eko eta 1960ko hamarkadetako ikastolen hezkuntza-proiektu berriak, baita biziberritze kulturalak ere. Hamarkada zurrunbilotsu horietan euskal kultura izendatzeko eta egituratzeko askotariko ekimenak egin ziren, prentsa-bide berrietatik (*Euzko Gogoia*,

*Zeruko Argia*-ren bigarren aldia, *Anaitasuna*...), euskararen batasunaren diskurtsoetatik, literaturaren historiografiatik, antzerkigintzaren jardunetik (Euskal Iztundea, Jarrai...), eta abar. Salbu eta udal ekimen batzuetan, garaiko kultura-politika ofizialetatik at kokatu zen euskal kulturaren izendapen-hitzarmena bera. Ane Larrinagak (2008), intelektualen eta kultura-eragileen bilakaera xeheki eta sakonki aztertzean, hauxe adierazi zuen: esparru instituzionaletan ahul edo azpigaraturik dauden kultura-jardunetan aukera berriak sorten dira rol intelektualak beste nolabait eratzeko. Larrinagaren iritziz, kultura-esparru burujabe edo autonomoak sortu ezin izan dituzten kultura gutxituetan, gizarte-mugimenduek ordezkatu dituzte kultura-erakundeak. Erakunde politikoek laguntza lortzen ez denez, sarritan sozializazio-erakunde alternatiboak sortzen dira (eskolak, akademiak, hedabideak, kultura-elkar-teak, kultura-kolektiboak...), herri-mugimenduen eta jardun kolektibo-komunitarioaren laguntzarekin errotzen direnak. Hain zuzen ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako biziberritze-prozesuek egituratze-ezaugarri horiek izan zituztela agerrarazi zuten Larrinagaren ikerketek. Hortaz, garai hartako ekimen herritar eta zibil horiek guztiak euskal kultura zer den zedarritzeko, definitzeko eta kultura-iritziak hedatzeko eraginkor ziren, eta komunitate euskaltzale edota abertzale batean eragiteko gaitasuna zuten. 1950eko eta 1960ko hamarkadetako ikastolen hezkuntza-proiektuek, bestalde, eten kulturalaren kontzientzia bizia zuten, eta euskal kulturaren transmisioa zuten euskalduntze-prozesuaren ardatzetariko bat (Salbotx 2021: 13-44). Halaber, euskal kulturaren berrizendatze-prozesu berri horretan bidaide izan ziren, hitzarmen soziala trinkotzeko eragile garrantzitsu.

Hego Euskal Herrian erreforma politikoa (1975-1982) abian jartzearekin batera, euskal kulturaren esparru batzuetan hitzarmen sozialak auzitan jartzeko eztabaidak piztu ziren, bi norabidetan eragin zutenak. Alde batetik, euskarazko jarduntzat erroturiko hainbat izendapenez aritzean –esate baterako, euskal literaturaz–, hizkuntza-hautua auzitan jartzeari ekin

zioten hainbat eragilek: adibidez, sonatua izan zen 1978an euskal idazle vs escritor vasco prentsako eztabaida;<sup>1</sup> batzuek euskal idazletzat hartu nahi zituzten gaztelaniaz idazten zuten euskal herritarrak. Beste alde batetik, euskarazko jardun gisa oraindik erroturik ez zeuden adierazpide batzuk hizkuntza-jardunaren arabera zedarritzeko saioak egon ziren: esate baterako, biziak izan ziren euskal zinema izendapena euskarazko jardunari soilik lotzeko saioak (Martinez 2022). Aldaketa politikoaren aroak, bada, hitzarmen soziokulturalak ere birpentsatzea ekarri zuen. Nolanahi ere, garai hartan hedatu ziren hitzarmen soziokultural haietan eragin handia izan zuten, bai Euskal Filologia ikasketen garapenak (euskal kultura esparruak zedarritzeko funtsezko izan zenak, batik bat euskal literaturaren eremuan), bai euskarazko irakaskuntzaren zabalkundeak eta adarkatzeak. Ikastolen sareak Euskal Herriko eremu batzuetan legezkatzeaz gain, Hego Euskal Herriko hezkuntza-sare publikoaren euskarazko irakaskuntza eratzeari ekin zitzaion, eta garai hartako murgiltze-ereduan jardun zuten irakasle-talde gehienek bazuten euskal kulturaren sozializazioan eragile nagusi izatearen kontzientzia, testuinguru politikoak eta sozialak giro zein kokapen horretara lerratzen zituelako. Giro hartan hazitakoak eta hezitakoak gara geure belaunaldian euskaraz eskolatuak izan ginen gehienok, euskal kulturaren inguruko hitzarmen sozial batzuetan hazitakoak eta hezitakoak. 1980ko hamarkadan zehar, gainera, oraindik ere Hego Euskal Herrian kultura-politikak errotzear ziren, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren kultura-politikak garapen-prozesuan ziren. Hortaz, oraindik ere ez zuten indar aski kultura-erakundeetatik, gizarte-erakundeetatik, kultura-kolektiboetatik eta herri-mugimenduetatik sustaturiko euskal kulturaren inguruko ikuspegietan horrenbeste eragiteko.

Nolanahi ere, erakunde publiko horietatik kultura-politike-tan euskal kultura izendatzeko, berrizendatzeko eta birkokatze-ko saioei ekin zitzaion, eta 1990eko hamarkadarako jada politika-lerro batzuk zehaztu zituzten, eta euskal kulturaren

inguruko hitzarmen sozialak baldintzatzeko eragile nagusi bihurtu ziren kultura-esparru batzuetan (bertsolaritzaren eta musikaren esparruko hitzarmenetan izan zuten eragin gutxien).<sup>2</sup> Alde batetik, pixkanaka euskal kultura balioztatzeke kanpo-legitimazioa eta homologazio-gosea sustatzeari ekin zitzaion (Luku 2009): Espainiako Literatura Sari Nazionalak euskal literaturan izandako eragina, euskal literatura Literatura Ikerketa Hispanikoen edo Iberikoen testuinguruan birkokatzen joateko urrats akademikoak, Eusko Jaurlaritzak 1990eko hamarkadan batik bat gaztelaniazko zinema-sorkuntza sustatu izana, Nafarroako Gobernuak Nafarroako kultura-ondarea gaztelaniatik izendatzeko eta finkatzeko saio biziak egin izana, Lapurdiko kultura-politikan turismo-begiradek izandako eragina... Ekimen horiek guztiek, beste askorekin gurutzaturik, euskal kulturaren hitzarmen sozialak lausotzeko testuingurua sortu zuten.

Beste alde batetik, kanpo-zabalkundeari loturiko kultura-politikek hartu zuten indarra, pixkanaka-pixkanaka turismo-politikei gero eta lotuago joan direnak, eta, hortaz, kultura-politiken hartzaile kanpo-begirada eta kanpo-interesak izateaz gain, kultura jardun ekonomiko baten zerbitzura kokatzen hasi zirenak, eta ez kultura-komunitate kritiko eta heldu bat eraikitzearen zerbitzura.

Bi joera horiek indar berezia hartu zuten Etxepare Institutuaren sorrerarekin, 2010ean, hain zuzen ere, aldaketa-aro baten testuinguruan. Aipatu dugunez, aldaketa-aroak aldi garrantzitsuak dira, hitzarmen sozialak berrizendatu eta birpentsatu egin ohi direlako. Etxepare Institutuak hainbat helbururi erantzuten dio, eta 3/2007 Legeak (2007ko apirilaren 20koak), Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzeko xedapenak biltzen dituenak, helburuen artean honako hau biltzen du: «Euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta bermatuz». Zalantzarik gabe, euskal

kulturaren inguruko hitzarmen sozial errotuenak auzitan jarri zituen helburu horretako definizioak («euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan»), eta batez ere Etxepare Institutuaren jardunak eta sozializazioak euskal kultura euskarazko jardunaz besteko eremuetara zabaltzeko hitzarmena indartu zuen, kultura-hautuetan ere eraginez, eta kultura-diskurtsoetan eraginez. Ezin dugu ahaztu Etxepare Institutua dela une honetan euskal kulturaren inguruko kultura-politika iraunkorrak izateko kultura-erakunde publiko bakarrenetarikoa, Euskal Kultur Erakundearekin batera.

Etxepare Institutuaren jardunak eta sozializazioak euskal kultura euskarazko jardunaz besteko eremuetara zabaltzeko hitzarmena indartu zuen

XXI. mende hastapen hartako kultura-ikuspegiak tentsioa irudikatzen dute bi lekukotza hauek, beste askoren arteko batzuk baino ez direnak. Mari Jose Olaziregik, Etxepare Institutua sortu baino urtebete lehenago, hauxe idatzi zuen:

Y decimos inusitadas porque aunque sepamos que serán unas 3.000 las lenguas que desaparecerán en este siglo, parece ser que la lengua vasca tiene asegurada su supervivencia. Eso es al menos lo que se deduce de las afirmaciones de David Crystal en su conocido *The Language Revolution* (2004). El Euskara cumpliría las condiciones socio-históricas necesarias que Crystal apunta como necesarias para asegurar la pervivencia: nuestra lengua posee un número de hablantes considerable y claramente superior a los 100.000, una infraestructura política que, al menos en la Euskadi peninsular, defiende, subvenciona y legisla medidas para su promoción y normalización, tiene una presencia mediática y telemática considerable y, ante todo, es evidente que para muchos vascoparlantes, o euskaldunes, el euskara constituye su marca de identidad más esencial. [...]

El futuro de la literatura vasca pasa por la aceptación de que aunque el euskara sea la marca de identidad más definitiva para muchos de nosotros, también las otras lenguas que nos habitan pueden convertirse con naturalidad lenguas para la creación literaria. [...]

Las constantes manifestaciones de autores vascos en torno a la escasa curiosidad que estas traducciones despiertan entre sus conciudadanos [...], hablan de la clara incomunicación, de la «guetización» (término utilizado todavía en este tipo de debates), que sufre, en opinión de algunos, la literatura escrita en lengua vasca en Euskal Herria. Sólo nos queda desear que en un futuro no muy lejano dichas barreras sean superadas y que la literatura escrita en lengua vasca se erija en vía de comunicación entre las diversas comunidades lingüísticas. [...]

Autonomización que pasa por las traducciones a otras lenguas más centrales pues son, precisamente, estas traducciones las que permiten obtener el certificado literario para una literatura minoritaria. (Olaziregi 2008-2009: 355)

Pasarte horretan, euskararen egoeraren diagnosi oso baikorra egitearekin batera (eta, hortaz, barne-politikak sustatzeko premia neurri batean arintzearekin batera), euskal literaturaren premia nagusia kanpo-zabalkundea zela adierazi zuen, eta itzulpenek izan behar zutela zubi. Hortaz, kanpo-balioztatzearen ideia indartu zuen, kanpo-begiradaren premia aldarrikatu zuen, euskal kulturaren esparruko kultura-eragileen balioztatze prozesu burujabeei garrantzi gutxiago emanaz. Gogoan izan behar da Mari Jose Olaziregi Etxepare Institutuko Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko lehen zuzendaria izan zela (2011-2016).

Urte hartan bertan, 2009an, Antton Lukuk, *Euskal kultura? saiakera mamitsuan*, besteak beste, adierazi zuen euskal kulturara ekartzen direla beste kultura-esparru batzuetan sorturiko taxonomiak (bai artista nor den erabakitzeko, bai jakintza artistikotzat zer hartuko dugun erabakitzeko), betiere irizpide horiek auzitan jarri gabe. Bestalde, kanpo-zabalkundearekin ere kritiko agertu zen: «Garen kinkan iruzurra handia litzaidake etxean desagertua kanpoan sal bagenez» (Luku 2009: 14).

Lukuren arabera, euskal kultura-jardueraren eragile gehienek bere egin dituzte kultura hierarkizatze irizpide zenbait, eta, horregatik, inork zalantzan jarri gabe bereganatu dute kultura frantsesean profesionalaren eta amateurraren

artean gertatzen den funtsezko banaketa, amateurra jardun popularrekin eta klase apalekin lotuz. Adibide horren bitartez Lukuk hauxe agerrarazi nahi du, kultura baten graduak edo mailakatzeak adierazteko erabiltzen diren sailkapenek ez dutela zertan funtzionatu beste kultura-esparru batean, beste kultura-logika batzuetan. Azpimarratzen du beste kultura batzuen ikusmoldeak eta legitimazio-bideak geure egiteak mesfidantza handia sortu duela bertako kultura-praktika batzuen inguruan, eta, batez ere, euskaldun asko ezjakin egin dituela beren kulturaren alfabetoak edo sinbologiak interpretatzeko. Lukuren iritzi, esate baterako, jende asko ez da gai herri-antzerkia interpretatzeko, eta, ikustera joaten badira ere, ez da gai antzerkia zer kontzepzioen barruan garatu den ulertzeko. Arrazoi horiengatik guztiengatik, Lukuren aburuz funtsezkoa da kultura euskaraz sortu ez ezik, kulturari buruzko pentsamendua ere euskaraz sortzea, pentsamendu hori kultura-komunitate horretan bertan transmiti dadin.

Olaziregik eta Lukuk urte berean garaturiko kultura-ikuspegi horiek bi kultura-ikuspegiren arteko talka irudikatzen dute, azken hamabost urteotako hitzarmen sozial tenkatu baten erakusle dena. Tamalez, azken hamabost urteotan Araba, Bizkai eta Gipuzkoan Etxepare Institutuak sustaturiko ikuspegiak egin du aurrera, eta hezkuntza-testuinguruetako diskurtsoetan eta praktiketan ere izan du eraginik. Ez bakarrik zabalkunde mediatikoak zein diru-laguntzek emandako indarrak hitzarmen sozial horren oihartzunak eskola-testuinguruetara hurbilarazi dituztelako, baizik eta jardun konkretuetan eragina izan duelako. Hona hemen bi adibide konketu eta zehatz.

*Lehen adibidea.* xx. mendearen hasieran euskarazko testuliburu gehienak Euskal Herrian argitaratzen ziren, baina joera hori pixkanaka aldatu egin da. xx. mendearen amaieran Hego Euskal Herrian hezkuntza-lege berri bat (LOGSE) abian jarri ondoren, testuliburuak berri behar izan ziren, eta une hori mugarri izan zen euskaraz argitaraturiko testuliburu ia merkatu osoa kanpoko argitaletxeen esku geratzeko (Bilbao

eta Pérez 2008: 104). Are kezkarriagoa dena, testuliburu gehienak itzuliak dira, ez dira euskaraz eta euskaratik sortuak (*ibid.*: 105). Kanpo-logika horrek eta kanpo-begirada horrek, hortaz, testuliburugintzan ere izan zuen eraginik. Kanpo-ekoizpenak indarra hartzeak honako ondorio hauek izan zituen, besteak beste:

1936ra arteko ikonoetan erakusten diren pertsona ospetsuen %44 Euskal Herriari lotuta agertzen dira. 2000tik honakoetan, ordea, %13 baino ez da Euskal Herriaren erreferentzian jorratzen. (*Ibid.*: 103)

Euskal Herriari lotutako curriculumean, lurraldeak dauka garrantzi handiagoa historiak baino. xx. mende hasieran Eusko Ikaskuntzaren ekimenez argitaratu ziren testuliburuetan aurkitu duguna da, Euskal Herria baserria eta nekazal inguru hurbilagaz lotzen zela, sentsu sozialean ez geografikoan. (*Ibid.*: 104)

Horixe zen egoera Begoña Bilbaok eta Karmele Pérezek 2008an eginiko azterketan, eta, aurreraxeago ikusiko dugunez, azken hamar urteotan ez da testuingurua gehiegi aldatu.

*Bigarren adibidea.* Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege proiektu berriak, euskal kultura definitzean, Etxepare Institutuko diskurtsoen oihartzunak dakartza, kulturegintzako hainbat eragilek adierazi zuten moduan, Hezkuntza Legearen irakurketa kritikoa egitean:

Zirriborroan zehar *euskal kultura* kontzeptua hainbat alditan erabiltzen da, baina oso modu anbiguoan erabiltzen da. Ez dago argi kontzeptu horren bitartez euskaraz sorturiko kulturari erreferentzia egiten dion, edo Araba, Bizkai eta Gipuzkoako bi hizkuntza ofizialetan sorturiko kulturari erreferentzia egiten dion. Leku jakin batean esplizituki egiten du bigarren adiera horren alde, eta hartara, lehen adieraren alde egiteko aukera lausotzen eta oztopatzen du. Hain zuzen ere, 2. artikuluan, «Euskal hezkuntza-sistemaren printzipioak» izenekoa, d) atalean hauxe dio: «d) Euskal kultura eta haren bi hizkuntza ofizialak ezagutzen dituzten eta beren ondare ukiezinarean erabilera eta ezagutza baloratzen duten pertsonak prestatzea». Euskal kultura kontzeptua euskarazko sorkuntzaren adieran beste pasarte batzuetan ere aipatzen da, baina pasarte horiek ez dute printzipioen zerrendaren neurriko garrantzirik.

Sarritan *euskal* izendapena EAEn sinonimotzat erabiltzen da, eta ondorioz, hiztun-komunitatea eta kultur komunitatea aintzat hartzen ez dituen ardatz bat sortzen du, lurraldetasunaren ikuspegiari iskin egitearekin batera.<sup>3</sup>

1960ko eta 1970eko hamarkadetan gertatu ez bezala, gaur egun erakunde publikoek eginiko kultura-politikek euskal kultura berrizendatzeko eta birformulatzeko gaitasun handia dute Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, eta kultura-eragile herritarrak eta kultura-erakunde zibilak hitzarmen sozialak tenkatzeko ahulago daude. Hitzarmen sozial batzuk urtze-puntuak dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, eta hezkuntza-testuinguruetatik ere eragin behar da, euskal kultura berrizendatzeko tenkatze-une hauetan euskarazko jardunaren aldeko eta kultura-komunitatearen barne-logika eta barne-balioztatzeen aldeko logikak sustatzeko.

Zorionez, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako hezkuntza-dinamika batzuetan Lukuren logikak izan du eraginik, eta hezkuntza-testuinguruetan ekimen kultural interesgarriak abian jarri dira, baita kale-jardunetan ere (esate baterako, Iruinkokoa ekimena).

Kezkagarria da Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege berriak euskal kultura definitzean agertzen duen anbiguotasuna

## **Euskal Curriculuma, hitzarmen zartatua**

Kezkagarria da Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege berriak euskal kultura definitzean agertzen duen anbiguotasun hori, hain zuzen ere, orain arte euskal kulturaren inguruko bestelako hitzarmen sozialak errotu direlako hezkuntza-guneetan; beraz, euskarazko irakaskuntzaren testuinguruan ere hitzarmen sozial berriak ari dira zabaltzen, euskarazko kulturgintzaren kaltetan, kultura gutxiaren zein kultura-komunitatearen markoak kontuan

hartzen ez dituen. Gogoan izan behar da mugimendu eta anbiguotasun-joko horren bitartez Eusko Jaurlaritzak duela hamarkada luze hainbat eragileren artean adosturiko hitzarmen sozial bat arrakalatzan ari dela.

Gogoan izan behar baita, 2005-2006 ikasturtean, hezkuntza-eragile ugari<sup>4</sup> *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum*a diseinatzeko eta adosteko prozesu kolektiboa abian jarri zutela, eta horien artean jardun zuela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Prozesu kolektibo eta kolaboratibo hartan Euskal Curriculum hitzartu zen, eta, hain zuzen ere, curriculum hark euskal kulturaren transmisioa bermatzea zuen ardatzetariko bat, espezifikotasuna euskarazko jardunean kokatuz. Hezkuntza-hitzarmen sozial hark curriculumean ere izan zuen eraginik, 2014tik aurrera egituratzen hasi zen Heziberri 2020 egitasmoan ondorio zuzen bat izan zuelako: 2016an garaturiko curriculum-dekretuetan Euskal Curriculum eta euskal kulturaren transmisioa erdigune garrantzitsu bilakatu ziren. Ikus, adibidez, Batxilergoko curriculum arautzen zuen 127/2016 Dekretuak esandakoa:

Bide horretan mugari izan dira Euskal Curriculumaren proiektua eta Euskal Herrirako Curriculum, hezkuntza-eredu eta curriculum propioa adostu baitzuten hezkuntzako, gizarteko eta politikako eragileek. Curriculum-proposamen horiek nortasun propioa ematen diote euskal hezkuntza-sistemari, euskarari eta euskal kulturari oinarritua, aldi berean inguruan sustraitua, eta kanpora zabalik.

Eta hauxe gehitzen da beranduxeago: «k) Batxilergoko ikasgaiek euskal kulturaren berariazko dimentsioa txertatuko dute curriculumean, eta lagunduko dute oinarritzko konpetentziak dimentsio guztietan garatzen».

Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Lege berria garatzean, baina, baita 2023ko maiatzean Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum eta Batxilergoaren curriculum arautzen dituzten dekretuak argitaratzean ere (77/2023 Dekretua eta 76/2023 Dekretua, hurrenez hurren), hezkuntza-hitzarmen hori hautsi zuen, curriculumean ez zaiolako jada Euskal Curriculumari

erreferentzia espezifikorik egiten, eta jada ez delako euskal kulturaren transmisioa eta sozializazioa zehar-lerro gisa txertatzen ere.

Hitzarmen sozial hura modu esplizituago batean orain arralatu arren, jarduteko moduetan ez du hitzarturikoaren alde egin azken urteotan, ez du bitartekorik jarri 2016ko curriculumak zioena egituratzeko eta garatzeko, ez du Euskal Curriculumak garatzen zen egiaztatze jarraipen-batzorderik egin, eta oso kasu isolatuetan egituratu du irakasleak Euskal Curriculumean eta euskal kulturaren transmisioan formatzeko biderik (IRALEn garaturiko R600 ikastaroa dugu formazio-iraunkorrean salbuespen nagusi eta esanguratsu). Curriculumak ez betearazteko edo jarraipenik ez egiteko joera hori ere sumatu da testuliburuetan, Joan Mari Torrealdaireren ikerketek agerrarazi bezala, bi aipu hauek auzia bikain kokatzen dutela:

Kontua da ekoizpenaren erabakigunea nork duen, bereziki hezkuntza curriculumean. De facto, esaterako, hezkuntza edo irakaskuntzako liburu produkzio handiena ez dago euskal editorialen esku, baizik eta estatu mailako argitaletxeetan. Curriculum propioa proposatzen duen Eusko Jaurlaritzarentzat badu garrantzirik gertakari horrek. (Torrealdai 2018: 98)

Hiru taulen irakurketa bateratuak begien bistan uzten du nire ustezko arazo larria, guztiz larria. Hots, euskarazko hezkuntza proiektu gehienak Euskal Herritik kanpo diseinaturikoak dira, beste eta bestelako curriculum proiektuen arabera landuak. Jatorri horren markak nonahi agertzen dira: geografian, historian, oraingo zatiketa administratibo-politikoan, ikuspegi euskaltzalean...

Euskarazko bertsioaz ari naiz hemen. Erdarazko irakaskuntza liburuak curriculum bera du, kanpoan diseinaturikoa. Eta erdarazko ekoizpena askoz ere handiagoa da.

Hitz batez esanda, Euskal Herrian zabaltzen diren hezkuntza proiektu gehienak inportaziokoak dira. (*Ibid.*: 100)

Curriculum propioa garatu zuen Eusko Jaurlaritzak, beraz, baina abagune galdua izan zen, curriculum hori inplementatzeko baliabiderik ez zuelako jarri, eta, gainera, kulturapolitikatik sustaturiko ikuspegi bidez hezkuntza-hitzarmen hori une oro ahultzen ari zelako. Egoera horrek,

bestalde, beste eragin bat ere izan zuen: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza-eragile batzuek euskal kulturaren transmisioaren ardura hori erakundeen esku uztea, jada curriculumak eta legeak babesten zuelakoan.

Ikerketa eta esku-hartze pedagogiko bat ekarri nahi genuke hona, euskarazko irakaskuntzak euskal kulturaren transmisioa bermatzen ez duela ikusarazten duelako, baina, aldi berean, ekinbide berriak birpentsatzen dituelako. Naroa Jaurregizuriak, AHIZE-AEK-ko aholkulariak, #*Damolat* irakaskuntza-unitatea diseinatu zuen gazteekin eta gazteengan euskal kulturarekiko atxikimendua sustatzeko. Barakaldo aldeko gazteekin elkarrizketa-prozesu bat abiatu zuen, eta gazteekin eginiko saioetan ohartu zen euskaraz ikasita ere euskal kulturaren inguruko ezezagutza handia zela, eta, bestetik, gazte horientzat euskal kultura haurtzaroarekin eta haur imajinarioarekin lotuta zegoela (Elustondo 2021). Gogoeta horiek aintzat hartuta, badirudi hezkuntza-testuinguruek eta testuinguru sozialek euskal kulturaren hainbat alderdi haurren sozializazioan txertatzea lortu dutela, baina, adin tarte batean

Trantsizio-unean gaude  
Euskal Herriko hezkuntza  
testuinguru guztietan,  
eta trantsizio- eta  
aldaketa-une horiek  
abagune ere badira  
hezkuntza-eragileon  
jardunetik ekiteko  
moduak birpentsatzeko

indargune izan daitekeen hori, neurri batean, beste adin tarte batean ahulgunea dela, eremu infantilizatu modura ikusten dutelako, euskal kulturaren beste jardunbide batzuetarako sarbiderik izateko aukera ez badute behintzat. Hain zuzen ere, sarbide horiek errazteko irakaskuntza-unitatea sortu zuten AHIZE-AEK-ko kideek, #*Damolat* izenekoa. Ikusteko dago, hezkuntza-testuinguruak birpentsatu diren

honetan, nerabe-gazteekin aritzeko prozeduretan urratsak egiten ditugun; baina, era berean, ikusteko dago haurrengan kultura-arrasto horiek ere belaunaldi berriagoetan utziko

ditugun, edo gizarte-oihartzunek indar handiegia izango duten hezkuntza-testuinguruak kutsatzeko beste, baita adin tarte horietan ere.

Trantsizio-unean gaude Euskal Herriko hezkuntza-testuinguru guztietan, eta trantsizio- eta aldaketa-une horiek abagune ere badira hezkuntza-eragileon jardunetik ekiteko moduak birpentsatzeko, eta, hortaz, Euskal Curriculumetik eta euskal kulturaren transmisiotik nola eragin dezakegun pentsatzeko. Azken batean, aldaketa une batean egonda, eta irakasleei euren jarduna birpentsatzeko, eraldatzeko eta berregituratzeko ahalegina eskatuko zaienean, abagune ezin aproposagoa da birpentsatze-ariketa horretan guztian kultura-hezkuntza, oro har, eta euskal kulturaren gizarteratzea, zehazki, hezkuntza arautuan (eta ez-arautuan) nola egituratu eta txertatu beharko litzatekeen birpentsatzeko. Jardun hori birpentsatzeko, *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum*a dokumentuan adosturiko Euskal Curriculumak izan baditu indargune ugari, oraindik ere berrartu eta aldarrikatu beharreko ikuspegi ugari, besteak beste: lurraldetasuna ardatz izatea (ezagutzak egituratzean, koordinazio-jardueretan, eleaniztasuna ulertzeko moduan), curriculum malgua eta irekia izatea (tokian toki egokitu daitekeena, eta adarkatzeko aukerak dituen), pedagogia berritzaileen alde egitea, izaera hezitzailea gailentzea alderdi profesionalak lehenestearen aldean, euskal kultura espezifikokoari buruzko ezagutzak kultura-bideen bidez zehaztearen alde egitea... Baina, izan badira birpentsatzeko alderdi ugari, ulertzekoa denez, testuinguruak, ikuspegiak eta egiteko moduak aldatu direlako, eta egokitzapenak, eraldaketak... beharrezkoak direlako edozein hezkuntza-diseinutan.

Ez dira alferrik igaro hamabost urte. Gainera, hamarkada luze horretantxe aldaketa kultural, sozial eta politikoak abiadura bizian gertatu dira, eta erritmo eta abiadura horretan ez dugu aukerarik izan hezkuntza-egitasmoak egokitzeko. Hortaz, duela hamabost urte adosturiko Euskal Curriculum hartako hainbat alderdi birpentsatu eta egokitzeko pausatu

beharko genuke. Alde batetik, komunikazioaren inguruko ikuspegia eraldatu egin da azken urteotan, baita hezkuntza-curriculumetan ere, eta, beraz, komunikazioa jorratzeko moduak, ikuspegiak eta praktikak birformulatu beharko genituzke. *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum*a delakoan, komunikazioaren esparruan, bakar-bakarrik komunikazio idatzia eta ahozko komunikazioa aipatzen ziren, eta gaur egun komunikazio gorpuztua, komunikazio multimodala eta komunikazio digitala lantzea premiazkoa da; komunikazio bide horiek euskalduntasunetik eta euskal kulturatik jorratzen ez baditugu, ez diegu ikasleei horietan euskaratik eta euskalduntasunetik aritzeko tresnarik edo baliabiderik emango, eta horiexek dira gaur egungo komunikazio-bide nagusi batzuk.

Bestetik, oso garrantzitsua da curriculum hartan euskal kulturaren ondarearen eta genealogien inguruan egituratu ziren edukiak eta ikuspegiak birpentsatzea, begirada kritiko batetik, ondare horren inguruko diskurtso kritikoak garatzeko, baita begirada berrituak garatzeko ere, gaur egungo gizarte kezkekin eta premiekin lotzeko, eta ikasleei ere ondare horrekiko askotariko harremanak izan ditzaketela adierazteko. Euskal kulturaren ikuspegiak, ideologiak eta imajinarioak birpentsatu behar ditugu kritika feministaren begiradatik, kritika ekologikoaren begiradatik, kritika antirrazistatik... eta betiere klasearen aldagaia ere ardatz hartuta. Pentsamendu kritikoa ikasleen artean sustatzeko, lehen-lehenik geuk ere euskal kulturarekiko kokagune hori elikatu behar dugu, kultura-eragile modura, hezkuntza-eragile modura.

## **Kultura-aurreiritziak eraldatzeko, kultura-hitzarmen berrituak**

Kultura-kontsumoaren azterketa egitean, hauxe adierazi zuen Josu Amezagak: «Hizkuntz politikaren ikuspegitik, eragiteko lekurik errazena da eskola: erakundeen kontrolpean dagoelarik, arau eta baliabideen bitartez bideratu daiteke

euskararen ezagutzaren hedakuntza» (Amezaga 2018: 54). Lehen kolpe batean baieztapenak badu mamirik. Argi dago, kultura-aurreiritziak eraldatzeko, hezkuntza-testuinguruek ere indar egin behar dutela euskal kulturaren inguruko bestelako imajinarioak, praktikak eta ikuspegiak hedatzeko, baita kultura-hitzarmen berriak eraikitzeke prozesuetan indar egiteko ere. Baina, antza denez, epe laburrean behintzat, kultura-hitzarmen berri horiek eta hezkuntza-hitzarmen berri horiek ez dira etorriko, ez Eusko Jaurlaritzaren eskutik, ez Nafarroako Gobernuaren eskutik, ez Frantziako hezkuntza-sistemaren eskutik. Bestelakoak behar du izan eraldaketaren logikak, bestelakoak behar du eragiteko bideak. Euskal Curriculumaren eta euskal kulturaren transmisioaren aldeko ekimenak korrontez kontrako jardunak izan dira historian zehar (Salbotx 2021), eta pedagogia konprometituaren bidetik eta ekinetik edan dutenak, irakasle-talde eta hezkuntza-eragile konprometitu askoren jardunetik garatu direnak. Ataka honetan, pedagogia konprometitu horri eustea dugu helduleku eraginkorrena, transgresioaren bidetik (hooks 2023) curriculumetan eta hezkuntza-testuinguruetan Euskal Curriculumaren eta euskal kulturaren ikuspegi garatzeko zirrikituak eta estrategiak bilatzeko, eta gizarte-eraldaketan urratsak egiteko, hezkuntza-eragileek eta kultura-eragileek norabide berean bidea egin, eta kultura-hitzarmen berriak eraikitzeke espazioak eta uneak sor ditzagun. Kultura-aurreiritzi berriak sor ditzagun geure hezkuntza-praktiketan. 🍌

### **Oharrak**

1. Eztabaida hartako iritzi eta testu zenbait esteka honetan bildu dira: [www.susa-literatura.eus/emailuak/escritor-vasco](http://www.susa-literatura.eus/emailuak/escritor-vasco)
2. Bertsozale Elkarteak erakundetze-prozesu beregaina egin zuen 1980ko eta 1990eko hamarkadetan zehar, eta, horri esker, bertsojaritza-jarduna izendatzeko eta jardunari dagozkion hitzarmen sozialak kultura-esparruan bertan adosteko, tenkatzeko eta malgutzeko gaitasuna izan du.
3. Hainbat kultura-eragilek eginiko irakurketa kritikoa osorik irakurtzeko jo esteka honetara: <https://kulturgintzan.eus>
4. Eragile-zerrenda luzea denez, egitasmoarekin bat egin zuten hezkuntza-eragileen berri izan nahi duenak jo beza esteka honetara: <https://euskalcurriculum.a.eus/eu>

### **Bibliografia**

- Amezaga, Josu (2018): 'Euskal kulturaren kontsumoa ulertu nahirik', *JAKIN* 226, 39-63.
- Apalategi, Ur (2005): 'Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatura sistemaren argitan (eta vice versa)', *Lapurdum* 10, 1-18.
- Allur, Juanjo (2018): 'Argazkia euskarazko kultur kontsumoari', *JAKIN* 226, 11-30.
- Bilbao, Begoña; Pérez, Karmele (2008): 'Euskal Curriculum lehen eta orain', *Ikastaria* 16, 83-108.
- Elustondo, Miel Anjel (2021): 'Euskararen mundutik jasotzen dituzten erreferentziak arrotz zaizkie periferiako gazteei', *Argia*, 2021-12-31.
- hooks, bell (2023). *Transgresioa irakasgai. Hezkuntza askatasunaren praktika gisa*, Iruñea, Katakarak. Itzultzailea: Amaia Apalauza Ollo.
- Larrinaga Renteria, Ane (2008): 'Kulturgileak mugimendu sozialen tradizioan: euskal intelektualak euskalgintzan', *Uztaro* 66, 87-103.
- Luku, Antton (2009): *Euskal kultura?*, Iruñea, Pamiela.
- Martinez, Josu (2022): *Irudiz eta hizkuntzaz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza*, Bilbo, UEU.
- Olaziregi, Mari Jose (2008-2009): 'Literatura vasca e identidad nacional', *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* 14, 355-369.
- Roux, Willy (2023): 'EHZ, euskal kulturaren aldeko boluntario berrien 'eskola'', *Kazeta.eus*, 2023-06-24.
- Salbotx, Nora (2021): *Askatu edo moztu. Euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak*, Tafalla, Txalaparta eta Iratzar.
- Torrealdai, Joan Mari (2018): 'Euskal liburugintza 2016', *JAKIN* 226, 93-110.

Jon Urzelai Urbietta

---

## Kultura eta basamortua

**Z**iur inoiz gertatu zaizuela: uste duzu elkarrizketa aberasgarri bat izan berri duzula zure solaskidearekin –zuri hala iruditu zaizu behinik behin–, eta, konturatzerako, jakin duzu adostasun ustekoak kontrako ikuspegiak ezkututzen zituela muinean. Ez zirudien arren, hitzak bestela ulertu ditu hurkoak, edo zeuk izan duzu inpresio okerra, nork daki; kontua da berriketa berberak irakurketa ezberdinak, are kontrakoak izan ditzakeela ohartu ere egin gabe. Berben adiera ezberdinak trabatuko zitzaizkizuen agian? Intentzio kontua da, asmo txarra? Gabezia ere izan zitekeen, esan gura zena zorrotz adierazten asmatu ez izana.

Gertatzen da. Batez ere, kontu lausoez ari garenean: bada-kizue, maitasunaz, askatasunaz, esku biluziz atzeman ezin diren kontzeptu horiez. Kulturarekin ere bai, uste baino gehiagotan, gainera. Kulturak herri baten tradizioei egin ahal die erreferentzia, usadioei, harri bihurtu diren ohiturei, identitatea eraikitzen duten ikurrei. Edo, oso bestela, gizarte baten eguneroko jarduna osatzen duten eta oharkabean pasa ohi diren automatismoei buruz aritzeko balio dezake hitz berak; instituzioei, egiteko manerei, unearen eta tokiaren arabekoak diren jarrerei. Ohiko beste adiera batek arte adierazpideei egiten die erreferentzia: dantzari, antzerkiari, musikari, zinemari, bertsolaritzari, pinturari...

Jarrai genezake, baina agian hobe lur hartzen badugu. Zertaz ari gara kulturaz ari garenean? Definizioen eta hitz aspertuen bueltan aritzea baino, gurean kultura nola hezur-mamitzen den aztertzea dugu onena, horretarako lehenbizi ele pilaketaren forma gorenera jo behar badugu ere: txosten-gintzara, alegia. Orain eta hemen kulturari buruzko solasaldi bat izatekotan, elkar uler dezagun ziurtatze aldera, tarte bat eskain diezaiogun Eusko Jaurlaritzak aurtengo martxoan onartu duen Kultura 2028 Plan Estrategikoari, EAEn oinarritu arren, ñabardurak ñabardura, beste lurraldeetara orokortu genezakeen ildo baten berri ematen digun dokumentua baita. Izenburuak berak argi adierazten duenez, kulturaz ari da –hitz horrek dituen adiera guztien artean bat hobestea dagokio, ezinbestean–, plan bat da –ez dela burutazio bat, alegia; helburuak eta bitartekoak gogoeta baten ondorio direla ontzat eman beharko genuke–, 2028a bitarte garatu beharrekoa da, noski, eta estrategikoa ere bada –EAEko instituzio nagusien gidaritzaren funtsezko ikuspegiak islatzen du, beraz–. Pellokeria dirudi, baina merezi du, ezer baino lehen, kontuak argi adieraztea. Badaezpada ere.

Eta zer dio bada, dokumentu horrek? Ale dezagun patxadaz. Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren hitzurrearekin hasten da testua. Honakoa dio, besteak beste:

Kulturak ematen die forma gizabanakoen eta gizartearen bizipen, asmo, beldur eta ametsei. Kultura da daukagunari forma ematen diona, eta datorkigunari aurre egiteko lanabesak eskaintzen dizkiguna. Jende gehienarentzat, kultura bere aisialdian gozatzeko, egiten, jasotzen den jarduna da. Baina ez da, hala ere, denbora pasa hutsa. Ez da gizarte baten aisialdirako entretenimendu soilak. Ez hori bakarrik. Kulturak egiten gaitu pertsona, ikuskera, pentsamendu, pertzepzioak lantzen dituzte. Kulturak egiten gaitu herri, fenomeno kultural oinarritzkoenetatik hasita –hizkuntza–. Kulturak ematen dio forma gure nortasunari, pertsona bezala eta herri bezala. Forma itxi eta zigilatua izan daiteke, edota forma aldagarria, etengabe bizi-berritzen dena. Bizia, alegia. Kulturaren ikuspegi dinamiko eta ireki hori dago gure jardunaren eta plan honen muinean.

Ez da Zupiriak dioen gauza bakarra, baina nahikoa dugu hasteko.

Kulturaren berezko balioaren aitortza egiten da pasarte horretan, «denbora pasa hutsa» baino gehiago omen baita. Indibiduoaz eta kolektiboaz ari da, pertsonaz eta herriaz; aldakortasuna hobesten dio kulturari, bizitza. Ez da, berez, abiapuntu txarra.

Hitzaurreak mamiari bide emateko daude, ordea, eta, inon arreta jartzekotan, bertan egin beharko. Zupiriaren hitzartzea atzean utzi eta zortzigarren orrialdera heltzean zera irakur daiteke, 'Kultura erdigunera' atala hasi bezain pronto: «Ukaezina da kulturaren garrantzia herri baten kanpo irudian eta herri baten erakarmenean. Kultura eskaintza kalitatezko turismoaren osagai funtsezkoa da». Bi orrialde aurrerago, ondorengo hau, 'Misioa eta ikuspegia' tituluaren azpian: «2028an Euskadi bere herri garapenean kultura leku zentralean txertatu duen herri bezala ezagutua izango da Europan». Beste bi orrialde pasa orduko, berriz matraka bera, «Euskadi – Basque Country bikaintasunezko norako turistiko» ahotan: «Eskaintza turistikoaren bikaintasuna sustatzea, hori norakoen dibertsifikazioarekin eta bere berezitasunarekin lotuz eta bestelako eskaintzekin uztartuz: gastronomikoa, enologikoa, kirolekoa eta kulturala». Argi geratu ez bazaigu ere, hamazazpigarren orrian berriz azpimarratzen zaigu: «Harreman berezia du kulturak turismoarekin, kultura osagai garrantzitsua da kalitatezko turismoan». Hogeita hamahirugarren orrialdean topatuko dugu oraingoz nabarmenduko dudana azken testu zatia:

Orain eta hemen kulturari buruzko solasaldi bat izatekotan, elkar uler dezagun ziurtatze aldera, tarte bat eskain diezaiogun Eusko Jaurlaritzak aurtengo martxoan onartu duen Kultura 2028 Plan Estrategikoari

Nazioarteko erakargarritasuna bere eginkizunaren baitan duten museo eta jaialdiek kulturaren euskal kostaldea marrazten dute munduan. Guggenheim, Balenciaga eta Chillida-Leku bezalako museoek eta nazioarteko jaialdiek (Donostiako Zinemaldia, BBK Live, Azkena Rock, Musika Hamabostaldia, Jazzaldiak...).

Gehiago ere badio testuak, ezin bestela, baina adierazita-koak iruditu zaizkit hemen dagokigunerako interesgarrienak.

Euskararen langile profesionalak biltzeko asmoz sortutako Lanartea elkartekoek ere, nik egin antzera, dokumentu horrek dakarrena aztertu dute, eta, arestian nabarmendu ditudanez gain, bestelakoei ere jarri diete azpimarra. Argigarriak dira atera dituzten kontuak: dokumentu osoan bertsolaritza hiru aldiz aipatzen da soilik, literatura zortzi aldiz, idazlea behin, irudigintza agertu ere ez da egiten, dantza hamaika aldiz, komikia behin, abestia edo abeslaria inoiz ez, ez eta kantua edo kantaria ere, antzera kazetaritza eta kazetaria berbekin.

Kulturaren ikuspegi «bizia», pertsonari eta herriari forma ematen diona, gogora dezagun. Mezu kontraesankor horiek helduleku oso ziurrak ez diruditen arren, lurzoru mugikor horren gainean eraiki beharko dugu geure analisia ezinbestean. Kulturaz solas egingo dugu Plan Estrategikoarekin horretarako.

## **Kulturaren basamortua**

Atrebentzia onartzen badidazue, kirolaz arituko natzaizue tarte batez, kultura kontuei zuzenean heldu aurretik. Ez alferrik, bi arloak, kultura eta kirola, sail berean uztarturik joan ohi baitira sarri. Kirolari dagokionez, Tourraren etorrera izan da urteko ekitaldia, nahitaez aipatu beharreko gertakaria. Inguratu zuen ikuskizunaz baino, kirolaz beraz aritzeko gaude hemen ordea –elkar ulertzen saia gaitezen, ados?–, eta zentzu horretan zeresana eman zuen Jaurlearitzak txirrindularitza federazioekin lortutako akordioak: azken aldian gazteen lasterketak antolatzeke dituzten geroz eta zailtasun handiagoak (errepideak mozteko edo moto loturak aseguratzeko

ezintasunak, adibidez) konpontze aldera, mahai bat eratzea adostu zuten Tourra hasi baino egun gutxi batzuk lehenago. Denak ondo bidean zirudien, baina abuztuan Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak denboraldia bertan behera uztea erabaki zuen, «Trafikotik jarri zituzten trabak lasterketak antolatzeko eta agintari politikoek arazoari irtenbidea topatzeko izan duten ezgaitasuna» azpimarratuz.

Udan, sare sozialetako apar iragazkorretan zenbait egunez arreta bereganatu zuten Joxe Mari Apaolaza kirol esatariaren hitzek, *Biba zuek!* saioan Tourraz ari zela esanda koetatik hartutako tarte bati zegozkionak. Ekitaldi handiak kontsumitzera mugatzen garela aipatzen zuen Apaolazak, eta horren adibidetzat hartzen zuen ez Tourra soilik, baita aurten Donostian egin diren Frantziako Errugbi Ligako final laurdenetako ospakizunak edo Eurokopa Bilbora ekartzea ere. Donostian ez dago errugbian jokatzetik, euskal futbol selekzioa ahaztua dugu aspaldion, Euskal Herri zabaleko txirrindularitza lasterketak desagertzen ari dira, Euskal Herriko Itzuliak –barka, Itzulia Basque Countryk– ez du erlojupeko etaparik izan horretarako baimenik lortu ez duelako. Joera orokor baten adibide batzuk besterik ez dira.

Hala ere, gurea Bike Country omen, hala izendatu dute okasiorako behintzat. Zale suharren lurraldea, txirrindularitza errailetan daraman gizartea. Bike Country, «zalerik onenak, hutsik egiten ez dutenak», «berrehun eta berrogeita hamar klubek indarra» eta «bizikletarekiko pasioa, indartsua, benetakoa» duen herritarrez osatua, ekitaldi itzelerako berriaz sortutako iragarkiaren arabera. «Herri bat mugiarazten duen pasioa» ere aipatzen du enpo egiteko beste epika biltzen duen *spot*-ak, «Welcome to the Basque Country, Welcome to the Bike Country» leloarekin amaitzeko.

*Zertaz ari gara Euskal Herriaz ari garenean? Basque Countryz, Euskadiz, Bike Countryz? Plan Estrategikoan basque berba hamasei bider agertzen da.*

Bingen Zupiriak iragarkiaz esan zuen adierazten duela guk nola nahi genukeen munduan ikusiak izan (*ikusgaitasuna*

*zazpi aldiz agertzen da Plan Estrategikoan*). Adierazgarria da euskal txirrindularitza zaleen fideltasuna oinarritzat hartzea herri gisa atzerrian gure irudia indartzeko, eta, printzipioz, harro egotekoa dirudi. Afera da, dena den, politika horiek mamia beharrean oskola indartzeko duten joera kezka-garriaz harago, egiten dutena kolektiboki sortua ustiatzea dela, pasioa zurrupatzea eta irudi bilakatzea. Nortasun bizi baten izenean, identitate bizia sortzeko bitartekoak eragozte. Hala ulertzen dut nik.

Berriz ere kulturari gagozkiola, merezi du hitzaren beraren jatorri etimologikoa gogoratzea. *Kultura* latineko *cultus* hitzetik dator, *colere* hitzaren partizipiotik, alegia. *Colere*-k laboratu esan nahi du, landu, zaindu. Lurrarekin du zerikusia, edo hala izan du inoiz behintzat. Egun gailendu den adiera urrun dago inguru semantiko horretatik, bistan denez. Laborantzak prozesua lehenetsi behar du nahi ala ez, fruitua garrantzitsua izanagatik, lur emankorrik eta jagole zuhurrik ezean ez baita halakorik. Ongarria behar du, pazientzia, isilpeko lana, arreta.

Guggenheimen harira (*sei aldiz agertzen da Guggenheim Plan Estrategikoan, estrategikoki agertu ere*), Kultura Saila-

Bike Country santuan  
Tourraren alde egitearekin  
batera herri lasterketak  
ahaztu diren hein berean,  
kulturaren ikusmolde  
jakin bat gailendu da  
behin eta berriz

ren aurrekontuen lehentasunak aldatu zituztenean Kultur Kezka kolektiboak museoa bonba atomikotzat jo zuenetik –basamortu kultural bat utziko omen baitzuen– urte mordoxxka bat pasa da dagoeneko, eta kulturaren ikuspegi ezberdinen arteko talken adibideak hamaika izan dira urteotan guztiotan. Bike

Country santuan Tourraren alde egitearekin batera herri lasterketak ahaztu diren hein berean, kulturaren ikusmolde jakin bat gailendu da behin eta berriz (*kolektibo hitza bi aldiz bakarrik ageri da testuan*).

Guggenheimez jada aski hitz egin izan denez, jo dezagun Donostiara. Bertan egon zen Arteleku 1987tik 2014ra, hainbat artistak ikasi, proiektuak garatu eta elkarrekin lan egiteko gunea. Argigarria da bertan gertatu zena. Ia hogeitaz urteko jardunaren ondotik, Arteleku zegoen eraikina botatzeko erabakia hartu zen, zegoen inguruan uholdeak saihesteko asmoz martxan jarri zen hirigintza proiektu bat tarteko. Eraikina hustu ostean jaio zen Artelekuren testigua hartuko zuen Kalostra komentua zahar batean, barrura begirako lana egiteko asmoz. Proiektuaren arduraduna zen Xabier Gantzarainek kontaktzen duenez, orduan oraindik gauzatu gabeko ideia besterik ez zen Tabakalera mamu bat izan zen, eredu kontrajarriak hezurramitzen zituztelako. Kalostran ez zuten ikusgarritasunik bilatzen; kontrara, egonaldi luzeak egiteko lasaitasuna eta baldintza egokiak bilatzen zituzten. 2015eko urrian itxi zuten Kalostra, ordea, Tabakalera ireki zen inguru bertsuan. Bata lanerako tokia zen, bestea, aldiz, erakustokia. Bide batez, ingurumari berean hustu zuten Kortxoenea gaztetxea ere, ez dago sobran gogoratzea.

Ulerkera ezberdinek gaizki-ulertuak sortzeaz haragoko eragina baitute: hiriak eraikitzen dira berben gainean, bizitzak eraldatu. Porlana eta haragia datoz tintaren ostean (*publiko-pribatu hiru bider*).

Ikerne Badiola orduko Kultura diputatuak «norabide argirik gabe» ikusten zuen Arteleku, Gantzarainek azaldu zuenez. Denis Itxaso etorri zen gero, eta horrek ere Kalostra eta Tabakalera, biak batera, mantentzearen ezinezkotasuna adierazi zuen, «hau ez baita Berlin». Kalostra ixtearekin batera 373.000 euro aurreztuko omen genituen, ondoren Tabakalera inbertitzeko ezinbestekotzat jotzen zituztenak. 2017an jakin genuen zein izango zen Kalostra gorde zuen eraikinaren zatiak izango zuen erabilera berria: diseinu eskola bat egingo zuten bertan. Diseinua bai, baina enpresa diseinua. Barrabés. biz enpresarekin sinatutako hitzarmena zela-eta elkarlan publiko-pribatuaren leloa ahotan zutela, aurkezpenean diseinuak ekonomia suspertzeko duen gaitasuna azpimarratu

zuten. Argi zegoena zera zen, behingoagatik gunee hark norabide argi bat berreskuratu zuela.

Iragarpena egin bai, baina zentroak ez zuen inongo bizi seinale gehiagorik eman lau urteren buruan, asmo hura ordeztuko zuen beste proiektu internazional bat aurkeztu zuten arte. Santa Teresako komentua heren bat Japoniako inbertsio funts pribatu batek erosi zuen 2021ean, dirudie-nez, ikasleentzat erresidentzia bat sortzeko. Hori da dugun azken berria, lorategia zegoen tokian orubea baitago orain. (*Hala doa markagailua: erakartzeko zortzi, erakargarri lau, erakargarriagoa bi; proiektu lau aldiz*).

Hau ez da Berlin: hemen kulturak beste forma bat du. Hemen kulturak –hala kirolak– turismoa erakartzeko amu izan behar du, mapan jarriko gaituen bitxi (*hamasei bider idatzi dute turismoa txostenean*). Berdin dute entsealekuek, aretoek, elkarteek, bidegorriek, baliabideek. Grinak, harremanek eta sare trinko batek osatu dutena merkatuaren eta ikuskizunaren bitartez saretzen doa hala. Proiektatu nahi den benetakotasunak, uniformizatu ez ezik, horren ikusgarria omen den suari oxigenoa kentzen dio, apurka. Kultura garaikidea porlanez eraikitzen da eta lurzorua estaltzen du, idortu.

Korrontea indartsua da, eta politika guztien norantza baldintzatzen du. Ez soilik kultura alorrekoa, gainera; ildo estrategikoa da, funtsezkoa. Hizkuntza bat da. Hizkuntza ba-koitzari kosmobisio bat dagokio sarri gogoratzen dugun mo-duan, eta horren araberakoa ere bada ikuspegi estrategikoa. Zer esangura du, bestela, txosnei TicketBAI erabiltzea de-rrigortu nahiak? Zer, Last Tour enpresari Mungia eta Lekei-tioko espazio publikoa erabiltzeko erraztasun guztiak emateak, herriko elkarteek zailtasunik besterik ez izateko gero? Eta Basque Culinary Centerrek egoitza berri bat eraikitzeak Donostia erdian? Merezi du Jon Ander Agirre arkitektoak proiektu horri buruz esandakoa gogoratzea: «Gastronomy Open Ecosystem» izena jarri dioten horrek, inguruko berdegune bakarra estaltzeaz gainera, «hiria errentak jasotzeko soro baten gisa ulertzen duen ereduari erantzuten dio», eta

«soro horrentzako ongarria besterik ez da». Gastronomiak, kirolak eta kulturak egiten gaituzte, jakina da hori. Adierazgarria da, halaber, nola surfa, gastronomia eta musika uztartu eta Urdaibai lau haizeetara proiektatu nahi zuen Bay of Biscay festibalaren sustatzaileetako bat egun Culinary Centerreko garapen zuzendaria den. Alor horietan guztietan, aberastasunik egotekotan, komunean eraikitakoaren ondorio da, salerosketaren fruitu bainoago (*irisgarritasuna lau bider agertzen da, egonkortu behin*). Kulturak hor beharko luke bere funtsa, baina besterik da gurean, agidanez.

Agian hobe genuke Plan Estrategikoaren terminoetan hitz egiteari uztea (*atzerrian, atzerriko hiru bider; bisita, bisitak, bisitariak beste horrenbeste*) eta kulturaz aritzeko beste modu batzuk bilatzen hastea. Lehenetsiko nukeen bestelako hizkuntza baten printza batzuk utzi ditut dagoeneko, baina komeni da zehaztapen batzuk egitea lehenbizi. Haizea Barcenillak 2016an azaldu zuen (JAKIN 215-216) nola gertatu den honaino ekarri gaituen kultur politiken paradigma aldaketa: 1991 eta 2001 urteen artean obra handien aroa izan zen, «kultura gizarte-oinarritik aldentzen hasi» eta «ikuspegi geroz eta instituzionalizatu eta handiagoetara jo» zen garaia; hurrengo hamarkadan, 2011 bitarte, «artegintza beharrean, turismoa puztu zen», ikuspegi ekonomizista indartu; 2012 eta 2016 artean, berriz, kulturaren homogeneizazioa gailendu zen Barcenillaren arabera, «politikatik hobesten den kulturaren irudi bakar, bateratu eta salgarria bultzatzean» datzana. «Irudi fabrika» bihurtzera bideratutako kultur politikak salatzen zituen testu hartatik zazpi urte pasa dira dagoeneko, analisiari beste aro bat gehitzeko beste. Atrebentzia barkatuko didalakoan, ereduak goia jo duen urteez aritu gintezkeela uste dut nik. Goia jo, eredu erabatekotasunez ezarri delako, baina baita eman behar zituenak eman dituelako ere. Sorginkeriaren efektuak amaitzen hasi direlako, apurka, «Guggenheim efektua» delakoaren –Ramon Zallok idatzi modura, agian «Gehry efektuaz» jardun beharko genuke– lilura agortzen. Bilbo grisa ordezkatu zuen dirdirak ezkututzen duen herdoilaz jabetzen hasi baikara.

Apurka ari da gertatzen, ez gaitezen engaina, baina zantzuak badaude. Besterik da ea beste kosmobisiorik indartzen ari den, kulturaz aritzeko beste hitz batzuk pilatzen ari den inor, beste esanahi batzuk eraikitzen. Izan ere, lelo zaharrek beren indarra galdu dute hein batean. Ikurrekin ere gertatu da, urteko ekitaldiak agerian utzi duen gisara. Tourraz ari naiz berriz, nola ez. Gogoratzearren, Tourra Euskal Herri-tik abiatu da, ahaztu bazaizue ere. Tira, EAEtik esatea agian zehatzagoa litzateke, mapa ofizialetan hala ageri izan baita eta, Nafarroatik pasa gabe, Bidasoa zeharkatuta «France» izan baitu hurrengo geltoki. Ekitaldia girotzeko 120.000 ikurrin banatu dituzte zaleen artean: Jaurlaritzaren Euskadi Basque Country markak, Kutxabankek eta EITBk eman dituzte horien erdiak, hiruren logoez gain, «Ongi eTOURri» leloa serigrafiatuta zutela; beste 60.000 banderak Gure Esku ekimenak diseinatu ditu, «Basques Decide» idatzita. Ikurrin erraldoiak ere paratu dira han-hemen, aldarriekin batzuk, bandera biluziak besteak; antzera bide bazterrak bete dituztenekin ere. Askok bi erduei jaramonik ez egin eta etxetik eraman dituzte ikurrak.

Hamaika aldiz erabili dugu Martxel Mariskalek idatzi eta Dutek musikatutako hura: «bandera trapu bat da, haizerik ez badabil». Kontua ez da bandera haize faltan trapu bilakatu dela; haizea gogor jotzen ari da, bistan denez. Norantza da azken urteotan aldatu dena, eta horretan beharko luke gure arretak.

## **Basamortuaren kultura**

Haize korronte bortitz eta ustez geldiezin horrek daraman belaontzi behinena da Urdaibaiko Guggenheim sukurtsal berria. EAEko kultura estrategiaren hitz guztiak bereak ditu: turismoa, ikusgarritasuna, basque, nahi beste. Haren anaia nagusia aurkeztu zenean gertatu antzera, kontrako aldarriak ere ozenak dira baina.

Orduko hartan kultur mundua izan zen proiektu haren gaitzak zerrendatu zituena; oraingoan, termino ekologistetan

eraiki da, besteak beste, kontrakotasuna. Urdaibaiko lurralde babestuetan eraiki nahi diren bi egoitzek –EAEko biosfera babestu bakarrean– eta hura zeharkatu eta Gernika eta Murueta lotuko dituen zazpi kilometroko «bide berde» delakoak kezka sortu dute, ezin bestela, eragin dezakeen inpaktua dela eta.

Dena den, balizko kalte konkretu horiez harago eta duten garrantzia arbuatu nahi gabe, merezi du testuingurua sakonago aztertzea, bizi ditugun garaion kultura –berriz– zailantzan jartzeko. Hona datu zerrrenda esanguratsu bat: Bigarren Mundu Gerraz gerokoak Azelerazio Handiaren urteak izan dira, Will Steffen kimikariak izendatu zituen moduan.

Urte horietan guztietan atmosferako CO<sub>2</sub> kontzentrazioa %40 handitu da, metanoarena %70, ozeanoen azidifikazioa izugarri okertu da, baso tropikalen deuseztapena bikoiztu da, ornodunen populazioa %68 murriztu da, energia primarioaren erabilera bost aldiz biderkatu da. Azken bi mendeetan mila aldiz biderkatu da giza mugikortasuna, eta hazkunde horren erdia 60ko hamarkadaz geroztik gertatu da, eta 80ko hamarkadatik hona isuri da atmosfera kutsatu duten gasen erdia. Jarrai nezake, baina zertarako, ezagutzen duzue panorama.

Izaki «petrokulturalak» gara, Jaime Vindelak idatzi izan duen gisara. xx. mendearen erdira arte, ikatza zen energia iturri nagusia oraindik, baina petrolioak gailendu denetik gauzak dezente aldatu dira –nahiz eta ikatza ez den inolaz ere desagertu, bestela dirudien arren–. Baita kultura eta berori bizitzeko modua ere. Krisi ekosozialari –aldaketa klimatikoari, bioaniztasunaren galerari, trantsizio energetikoari...,

Urdaibaiko  
Guggenheimek EAEko  
kultura estrategiaren  
hitz guztiak bereak  
ditu: turismoa,  
ikusgarritasuna, basque,  
nahi beste. Haren  
anaia nagusia aurkeztu  
zenean gertatu antzera,  
kontrako aldarriak ere  
ozenak dira baina

baina, batez ere, horri guztiari aurre egiteak eskatzen duen eraldaketa sozialari– ganoraz erantzuteko asmorik balego, oinarrizko zehar lerrotzat hartu beharko genuke auzia, baita kulturaz ari garenean ere. Estrategikoa behar lukeela, alegia.

*Trantsizio hitza bi aldiz agertzen da Plan Estrategikoan, betiere trantsizio digitalari lotua. Digital hitzaren deklinazioak ehun eta hamasei aldiz idatzi dituzte, eko aurrizkia duten berbak ehun eta hogeita hamasei bider; horietako bakarrean osatzen du ekologiko hitza, beste guztietan ekonomiarekin du zerikusia. Klima berba hirutan agertzen da.*

Garaiek ikuspegi berri bat eskatzen dute, errotiko aldaketa bat. Mugez jabetzea dagokigun heinean, desira neoliberalaren ikuspegi indibidual, mugagabe eta bat-batekoaren orde, konpromisoak eta erantzukizunak behar lukete ipar. Horrek ez du, berez, desira alboratzea eskatzen, baizik eta berezkoa dugun bulkada hori, kontsumoaren bidez bainoago, harremanen bitartez asetzea. Harreman osasuntsu eta aberatsagoak eskatzen ditu horrek, ordea, kulturaren ikuspegi berri bat, ezinbestean. Kulturaz aritzean, horretaz jardun beharko genuke; musika, kirola, artea bizitzeko ikuspegi kolektiboetz, parte hartzaileez. Zaintzaz, arretaz, arduraz, laborantzaz. Huskeria dirudi, baina funtsezkoa da.

Esan izan da politika oro dela politika klimatikoa egun, Salvage kolektiboak dio politika osoak behar duela desastreakon kontrako politika izan. Bada, merezi du egungo kultur politiken arrasto klimatikoa aztertzea. Sustatzen duten harreman eredia aipatu dugu, baina badaude adierazle konkretuagoak. Turismoak negutegi efektuko gasen %8 inguru igortzen du –autoen erabilerak igortzen duenak beste–, eta Ryanair, adibidez, Europako hamar enpresa kutsakorren artean dago. Nazioarteko hegaldien eragina askoz ere handiagoa da bestelako garraioarena baino, noski, eta petrolioz bustitako paradigma agortze bidean egotearen mamuak turismoan oinarritutako ekonomia kinka larrian utz lezake. Gainera, turismoak helmugako lurraldearen ur baliabideak zukutzen ditu (Balear Uharteetan, adibidez, uraren %25

turismoak darabil), eta muinean duen eredia ezin zaurgarriagoa da aldaketa klimatikoaren eraginei dagokienez. Zer esan sustatzen dituen lan baldintzei buruz.

Oraindik hezur eta haragizko adierazleak behar dituenak geure hiriburu eta kostaldeko herrietako egoera aztertzea besterik ez du. Herritarrek ordaindu ezin dituzten prezioak, turistifikazioa, gentrifikazioa, sozializazio esparru beharrean dekoratu bilakatu diren kaleak. Badakigu zein kulturaz ari garen: kultura hiltzen duenaz.

*«Ohitura sozialak eta kontsumo moldeak aldatzea» proposatzen du, une batean, Plan Estrategikoak, baita «bizitza parametro jasangarrietan irudikatzea» ere, «iruditeria berria sortzea».*

Alfred Kroeberrek eta Clyde Kluckhohnek *kultura* hitzaren 164 definizio topatu eta zerrendatu zituzten 1952an *Culture. A Critical Review of Concepts and Definitions* liburuan. Horietako bat, sinplea bezain orokorra: «animalietatik bereizten gaituen hori da kultura».

Baieztapen horrek ezkutatzen duenaz luze hitz egin genezake, baina ideia bakarra garatuko dut hemen. Ohikoa da kultura eta natura bereiztea, bi mundu ezberdintzat hartzea. Hala, gizakion kultura, aldakorra, natura menderaezinenaren apeten meneko izan da beti. Erabat posible sekula izango ez dela jakinagatik, natura kontrolatzea izan da, beraz, gizakiaren egitekoa. Garaiok bestelako

ezaugarri bat dute, ordea: kultura bilakatu da ingurua baldintzatzen duena, inertzia geldiezina da, indar ia geologiko bilakatu da. Ongi etorri antropozenora; kapitalozenora, zehatzago esanda. Zenbaitek naturan ikusi nahi du abangoardia orain, politikak eta kulturak inoiz izan zuten gaitasuna bertan

Herritarrek ordaindu ezin dituzten prezioak, turistifikazioa, gentrifikazioa, sozializazio esparru beharrean dekoratu bilakatu diren kaleak. Badakigu zein kulturaz ari garen: kultura hiltzen duenaz

topatu; zurruna hautsi eta arrakalak irekitzeko aukera klimak, euriteek, pandemiak, suteek izango lukete egun. Basamortuak, inork izatekotan.

Joan berri zaigun urte honetan hainbat marka hautsi dira. Urte beroena izateaz gainera, uztaila izan da munduan inoiz erregistratu den hilabeterik beroena. Abuztuaren 23an jo zuten goia Euskalmeteko neurketek: 45,6 gradu egin zituen Gueñesen. Egun horretan 40,2 gradu egin zituen Beran, 40,6 gradu Iruñean, hiriko errekorra berdinduz. Afrika eta Hego Amerikako neguan inoiz ikusi gabeko bero sapak izan dituzte -40 gradu baino gehiago Brasilen-, Kanada, Tenerife, Hawaii, Mediterraneo kiskali dira. Libian milaka izan dira hildakoak, Derna hiritik iritsi zitzaizkigun irudiek gerra baten ostekoak ziruditen. Grezia erre da, itotzeko gero; aurtengo eta datozen urteetarako uzten zati handi bat ez da jasoko. Ozeanoak sekula ez bezala berotu dira, Mexikoren tamaina duen Antartikako izotz zati bat galdua da jada. Bizitza posible egiten duten planetaren bederatzi segurtasun mugetatik sei gainditu ditugu dagoeneko. Naturaren abangoardia ez da inertziak guztiz eteteko gai izan, ordea: Estatu Batuetan egun bakarrean izandako hegaldi kopuru handiena gainditu da aurten, Loiu eta Hondarribiko aireportuek inoiz baino bisitari gehiago jaso dituzte. IAG eta Air France-KLM konpainien mozkinak ere inoiz ikusi gabeak izan dira.

Andreas Malm ikerlari eta ekintzaile suediarrek dio guber-  
nuek, karbono emisioak murrizte aldera, neurri «drakonia-  
rrak» ezartzeko ministerio bereziak eratu beharko lituzketela. Kapitalaren joeren kontra aritzea denez ezinbesteko egin-  
beharra, plangintza ekonomikoa ezinbestekoa omen da, «ge-  
rra komunismoa» eskatzen ei du egoerak. Baina, suediarren  
esanetan, «errazagoa bilakatu da sistema klimatikoan eskala  
handiko esku hartze bat irudikatzea, kapitalismoan egitea  
baino». Sinesgarriagoa zaigu geoingeniaritza irudimentsua,  
eraldaketa politikoa baino. Malmen kalkuluen arabera, kar-  
bono emisioek maximora heldu behar zuketan 2020a baino  
lehen, eta, hamarkada honetan, urte bakoitzeko %3 murriztu.

Ehuneko hori batezbesteko bat litzateke gainera; lurralde aberatsenetan %5 edo, are, %10 murriztu beharko liriateke isurketak urtero. 2022an, jaitsi beharrean, igo egin ziren munduko karbono emisioak beste behin. Ez dirudi aurten joera aldatu denik. Ezinezko dirudi mende amaierarako munduko tenperaturaren igoerak 1,5 gradu ez gainditzeak –isurketak urtero %7,6 murriztu beharko genituzke horretarako–, eta 2 gradu baino gehiago ez igotzearen erronka ezin estrategikoarekiko ezaxola gailentzen da gurean.

Testuinguru horretan kulturaz idaztean, ez ote den ezinbestekoa terminoaren esanahia bera zalantzan jartzea. Tinta porlan bilakatuko den esperantzan, haragitu nola edo hala. Malmek, energiaren erabileraren historia arakatzen ari dela –fluxutik stockera, uretik ikatzera–, aipatzen du nola Al-Andalus eta El-Fayumen (Egipto) ibaiaren ibilguaren kopkapen ezberdinetako interes kontrajarriak era harmonikoan uztartzeko gai izan ziren, interes komunaren izenean. Hala, desertuko mugetara egokitzen jakin zuten. Horretan lagundu zuten baldintzak ere zerrendatzen ditu Malmek: konfiantza ezinbestekoa da, dentsitate handiko harreman sarea, era kolektiboan jardun eta luzaroan irauteko gaitasuna.

Egungo kultura neoliberalaren etsairik handienetako bi: planifikazio zentralizatua eta kontsumoan oinarritzen ez den parte hartzea.

*Plan Estrategikoak dio: «Kultura da daukagunari forma ematen diona, eta datorkigunari aurre egiteko lanabesak eskaintzen dizkiguna».*

Bira osoa egin eta itzul gaitezen Tourrera, amaitzeko. Las-terketa gurean batetik bestera zebilela, telebistako seinalean, Zumaiako flyscharen eta Gaztelugatxeren irudien artean, tarte bat bereganatzea lortu zuen protesta batek une batez. «Le Tour de France 23» leloa osatu zuten zenbait lagunek letraz letra osatutako mosaiko batekin; kameraren arreta bereganatu bezain pronto kartoi puskei buelta eman eta «Fuck Guggenheim» irakur zitekeen, ordea. Kulturarena ez da, ziur aski, aurrean daukagun erronka itzelari aurre egiteko alor

garrantzitsuena, baina has gintezke, lehen pauso gisa, zale horien bidea jarraitzen: leloak buruz behera jartzen, esan-gurak berreskuratzen, hitzak okupatzen.

Ahotan dugun Plan Estrategiko horrek 2028an du jarria begirada. Aski baieztapen onartua da 2020-2030 arteko hamarkada garrantzi handikoa izango dela –hamarkada amaierarako isurketak erdira murriztu beharko genituzke 1,5 graduko igoera ekiditeko–; hartutako erabakiek, martxan jarritako eraldaketek eta finkatutako ikuspegiek ondorengo urteetako joerak baldintzatuko dituzte. Etorkizuna dago jokoan. Gurean auziak gehiago dirudi, halere, Espainiako Estatuak galduko duen turismoa bereganatzen saiatzea, klima atsegina izango dugulakoan. Desertua badator, baina gurera oraindik ez; nola ez dugu ba aukera probestuko?

Bidea aspaldi amaitu zen, baina azeleragailua indarrez saketzea besterik ez dagoela dirudi. Politika oro omen da politika klimatikoa orain, eta auzi politikoak borroka kultural gisa bizi ditugula ere esan ohi da. Kulturarentzat norabide berri bat estrategikoa da, beraz, aspalditik. Hil ala biziko auzia da, eta ez da hitz egiteko modu bat. 🍷

### Liburuak eta loreak

Kulturaren hirian bizi naiz. Pintxoen auzoan. Bilintx izena jarri zioten kalekatik apur bat aldunduta, Mikel Laboaren jaiotzetik gertu. Goizean agertzen den pintada eguerdirako horma zuri da berriro. Goizero pasatzen da kamioia beira biltzera. Ahaztu egiten zait non bizi naizen harik eta logelako leiho parean dudan Airbnb-ko turistak balkoian gosaltzen ikusten ditudan arte. Jende kurioa da beti. Besteen hirietan gu garen bezalakoxea.

Museo handi bat, antzoki zahar bat, zinema monarkiko bat... dauzkagu etxetik bi minutu baino gutxiagora. Langileak esplotatzen dituzten tabernak, janari lasterra saltzen duten lokalak eta arropa denda eksklusiboak ere bai. Utz iezadazue, halere, hiria erromantizatzen. Merkatu zaharraren ondoan karpa batean loreak saltzeko postu bat ipintzen dute, eta poztzoa ematen du oraindik loreak erosten dituenik badela pentsatzeak. Postu hori desagertzen denean negar egingo dugu barrutik, baina Lidl-i erosiko dizkiogu loreak erdi prezioan.

Kulturaren hiria esan dut, hala deitu ziotelako behin. Eta izena badu bada eta kontu horiek guztiak. Kultura zeri deitzen zaion, hor dago koska. Antropologia ikasi nuen, hortaz, badakit galdera horren erantzuna ez dela batere sinplea. Edo ni ez naizela emateko gai, behintzat. Eta kultura izan daitezkeela pintxo garestiak eta Behobia eta Zinemaldia eta Basque Culinary Center eta nahi duten guztia. Zorionez ez zidaten kulturari buruz idazteko eskatu.

Literatura da jarri didaten gaia, eta urteak eman duenaz berba egiteko eskatu didate. Ez naiz bereziki ona aginduak

betetzen, hortaz, urteak eman duenaz baino, urteak kendu digunaz egingo dut berba lehenik eta behin.

Hiri honetan liburuak erosteko eta hartzeko lekurik ere ez da falta, euskal liburuak Amazonetik ere eska daitezkeenik, are gutxiago. Kuttun batzuk falta zaizkigu, ordea. Eta liburu-denda kuttuna ixten dutenean sentitzen den huts hori ez dute La Casa del Librori eta Fnaci lapurtutako liburuak betetzen. Kosta egiten zait Lagun eta Tobacco Days itxi dituztela onartzea. Atalondotik pasa eta bitrinako aukeraketa ikusteko gogoia pizten zait oraindik. Ez dakit. Etxe ziren espazioak desegiten ikusteak deserri sentsazioa sortzen dit apur bat.

Oso paisaia aldakorra da hirietakoa, alokairu garestia ordaintzen duten beste negozio batzuk egongo dira orain bi lokaletan, beste jende mota batek habitatuko ditu espazioak. Gure nostalgia ez da inorentzako bazka. Literaturak ez du jaten ematen. Ez da esplikazio gehiago behar. Jarrai dezagun liburuak eta loreak erosten badaezpada ere.

## Nire bazka

Liburu-dendetan supermerkatuetan baino denbora gehiago pasatzen duen honek zer esango dizue goseaz. Ezer zentzuzkorik ez. Ia egunero bazkaltzen dut, halere. Are, esango nuke irakurtzen baino denbora gehiago ematen dudala jaten. Gehiagotan jaten dut, behintzat.

Aurten irakurri ditudan liburu gehienak ipuin liburuak izan dira. Hala nahi izan dut, eta hala ekarri dizkit sistemak ere. Euskal literaturako nobedadeetan nabarmena izan da emakume ipuingileen presentzia, eta gizonek idatzitako libururik apenas irakurtzen dugunontzat berri ona izan da hori. Ez dakit denak irakurri ditudan, baina ia denak irakurri ditudala esatera ausartuko nintzateke. Horien artean gehien gustatu zaizkidanak (autoreen izenaren araberrako ordena alfabetikoan) Aintzane Usandizagaren *Zomorrotu*, Esti Martinezen *Animalia domestikoak* eta Garazi Arrularen *Lurraz beste* izan dira.

*Zomorrotu* irakurri nuen lehenbizi. Eleberria edo ipuin liburua den eztabaidatu izan dut hainbat lagunekin. Nire ustez ipuin liburua da zalantzarik gabe. Kaleidoskopio bat proposatzen du autoreak. Bost istorio luze. Pertsonaiak istorioz istorio harilkatuta. Besteen begiradatik jendea nola ezagutzen dugun ikusteko parada eskaintzen du Usandizagak; aldiro fokua begirada batean jarrita, eguneroko harremanen konplexutasuna mahaigaineratu du giro ironiko batek ziprztinduta. Hasi eta buka irakurtzeko liburua da, ez irakurri, faborez, ipuinak era desordenatuan. Edo bai, baina beste liburu bat irakurtzen ariko zarete.

Lehena amaitu bezain pronto irakurri nuen *Lurraz beste*. Ziurtzat dugunari arrakalak ateratzen hasten zaizkionean gertatzen den hori jaso du Arrulak bere bigarren ipuin liburuan. Oso gustura irakurri nuen, baina kostatzen egin zitzaidan liburua amaitzea, ipuin bakoitzarekin hausnarketarako leiho bat zabaldu izan balitzait bezala. Pitzadura pertsonalez idaztea arazo sozialez hitz egitea dela aditu nion behin autorea, eta, egiari zor, ez zait liburua deskribatzeko esaldi egokiagorik okurritzen.

Urteko nire azken irakurketetako bat izan da Esti Martinezen lehen ipuin liburua: *Animalia domestikoak* izeneko lana. Bi hitzetan laburbilduko dut liburua: edertasuna eta dekadentzia. Denok dauzkagu, amesgaiztotzat hartuko ez genituzkeen arren, goizean umore txarrez egotea eragiten diguten oroitzapenak. Halakoak bildu ditu Martinezek: istorio intimoak, gertukoak... Oro har begiratzen ez dugun lekuetara begiratzeko behatxulo bat eskaintzen du, norbera ohartu dadin, akaso, ez dela hain polita horrenbeste detailerekin apaindu dugun panpina-etxea.

## Taldean behar du

Askotan entzuten da literatura oso jardun bakartia dela. Nik ez nuke hala denik esango. Irakurtzea edo idaztea ekintzak

bere horretan ez zaizkit panpinekin jolastea baino bakartia-goak iruditzen, baina hori kontuan hartu gabe ere, ez nuke esango literatura jardun bakartia denik. Ingurukoei ipuinak bozgoran irakurtzera zaletu naizen urte honetan, are gutxia-go. Literaturak taldea behar du, are, gutxienez bi lagun behar ditu testu batek: idazlea eta irakurlea.

Idazlea eta irakurlea dikotomian ulertzea ez zait, ordea, batere egokia iruditzen. Literaturzale eta literatur hartzaile garen asko sortzaileak edo egileak ere izaten baikara normalean. Zorrotzago jartzen baldin bagara, irakurle oro da sortzailea... baina ez naiz erromantikoei jarriko. Sarreran apur bat zalantzan jarri dudan arren, nik ere sentitu izan dut bakardadearen zera hori, eta bakardadeak beldurra ematen du sarri. Hori dela eta, benetan maite dut elkargune funtzioa betetzen duten espazioak existitzea eta haien parte izatea.

Aurten euskal literaturan gertatu diren gauza guztien artean, Zirriborro idazketa eskola azpimarratu nahiko nuke. Urrian lau egunez Donezteben elkartu zen literaturarekiko interesa duen gazte andana, eta era guztietako tailerrak eta ekintzak izan zituzten haien artean saretzeko eta norik bere idazketa lantzeko. Kanpotik itxura ederra zuen; inbidia ematen duten plan horietako baten traza duenik ezin ukatuko didazue.

Tailer bat ematera joateko gonbidapena jaso eta han agertu nintzen ni, belaunetan dardara, maleta bete liburu eta traste, idazle trajea jantzita, eskaintzeko zerbaitek ba ote neukan pentsatzen (bai, batzuetan, beldurrari aurre egiteko, moztortzeko joera izaten dut, trikimailu baliagarria da, erabil ezazue behar izatekotan). Lagunen besarkadek eta ezezagunen irri konplizeek egin zidaten ongietorria. Berehala arindu zitzaidan dardara. Sekulako giroa zegoen eta espero baino jende gehiago.

Gazteek gazteentzako sortutako ekintzek funtzionatzen dutela argi gelditu zen berriro, eta benetan diot, paperean ezin da ongi adierazi zeinen ederra izan zen hura. Elkartzen hastea da bakardadearen kontra antola daitekeen ekintzarik iraultzaileena.

Egun hartan pozik itzuli nintzen etxera. Pena bakarra izan nuen: maletan aldatzeko kuleroak eta lo-zakua ez eraman izana. Gustura geratu izango nintzatekeen ni ere bertan asteburua pasatzen. Datorren urtean berriz egingo delako itxaropena dut... Ea agendak ez dizkidan halako plan ederrak izorratzen.

## Herriarentzako poesia

Jende interesgarriarekin elkartzeak alde on asko ditu, eta horietako bat, politena, akaso, proiektu kolektiboak sortzeko posibilitatea da. Literaturaz aritzerakoan, batzuetan niri ere zaila egiten zait prozesu kolektiboak irudikatzea, baina egiten da, eta, beraz, egin daiteke. Kolektiboki sortzea ez delako boligrafo bana hartuta denok koaderno berean idaztea. Elkar entzutea, laguntzea, zirikatzea, irakurtzea... ere elkarrekin sortzea da.

Literatura idatziaz baino ez naiz aritu orain arte, eta nire barruko bertsolaria gehiago sumindu baino lehen, ahozko literaturaz berba egitera natorkizue. Bertsolaritza literatura ote den esatera ez naiz sartuko, zorionez, ez zidaten bertsolaritzari buruz idazteko eskatu.

Aurten Euskal Herri osoan barna biran aritu da Mejillon Tigre kolektiboa *Hitz esana* izeneko emanaldia eskaintzen. Ane Zubeldia eta Eider Adeletx. Herriarentzako poesia egiten. Mundu anglosaxoian ezaguna den *Spoken Word* eredu euskarara ekarri eta oholtza gainean zutik kontatzen dituzte haiek aurrez idatzitako poemak, musikaren eta performacearen laguntzaz. Ahoz irakurtzeko eginak dira olerkiak, eta, gaitegiari dagokionez, haien belaunaldiaren kezka dira batik bat. Ironiaz eta umorez hitz egiten dute gai serio eta korapilatsuen inguruan, eta hala lortzen dute hartzaileekin konektatzea.

Ez dakit nire hitzekin emanaldiari justiziarik egin ote diodan... Udan ikusi nuen nik. Horretarako propio joan nintzen Lekeitiora lagun batzuekin. Barre egin genuen sano, gustura

egon ginen. Horren gustura, ezen euria hasi zuen arren, lurrean eserita jarraitu genuen adi-adi.

Gertatuko ziren beste hamaika kontu interesgarri ere, bizitza erritmoak, burbuilak eta gehiegizko etxaberetasunak ez didate askotan nahiko nukeen bezainbeste gauzarekin enteratzen uzten. Noizbehinka penatu arren, eskertu ere egiten dut, ez pentsa. Bestelako kezka batzuk izateak ere on egiten dit sarri. Hortaz, aipatu ez dudan gauza oso-oso garrantzitsurik balego, esan iezadazue, mesedez. Eta esan ditudanak hemen kontatzeko bezain garrantzitsuak iruditu ez zaizkionik balego, zoritxarrez literaturari buruz idazteko deitu zidaten, eta baietz esan nuen... Lasai egon, hurrengo batean beste bati deituko diote.

Atzera begiratzeaz gain, etorkizuna aurrerata ere gustatzen zaidanez, literatura eta musika uztartzen dituen *Popperra*, *afterra*, *utopia* emanaldia ere aipatu nahiko nuke. Danele Sarriugartek eta Miren Narbaizak egiten dute. Bi emanaldi baino ez dituzte egin aurten, baina datorren urtean halako artikulua batean agertzeko moduko bidea egingo duelakoan nago. 🍷







## Gorka Erostarbe Leunda

**D**iskoez, singleez, bideoklipez, produktuez harago, bizitzaren eta heriotzaren arteko interludioa da musika, musika ere bai. Garai ilun samarrak bizi ditu humanitateak, solemneki esanda. Gauza asko ari dira hiltzen, gauza eta jende asko, ñabardura *txikia* gehituta. Eta musikaren munduan ere ari dira gauza batzuk hiltzen; batzuk ezinbestean, denboraren joanaren joan hutsez, bestetzuk hartaratuta, behartuta, interesaren interesez, interes ekonomiko ezan nahi baita. Baina musikak egiten du bere bidea, uzten ditu bere lorratzak, ez alferrik da bizitzaren tempo edertua.

### Laboa eta transmisioa

Ohartzerako pasatu dira hamabost urte Mikel Laboa hil zenetik. Abenduaren 1a zen, 2008koa, Ruper Ordorikak *Seikulabelardiko kantaria*-n ondo kontatu eta kantatu zuenez. Hil zen musikari bat eta jaio zen mito bat. Eta utzi zituen dizipuluak han-hemenka, nor bere estilo eta moldearekin bidea egiten joan direnak, hala nola Ordorika bera, Anari, Mursego, Joseba Irazoki, Amorante, Verde Prato, Moxal edota Peru Galbete... Hala nola aurtengo abenduaren 1ean *Lorategi izoztuetan hezur huts bilakatu arte* diskoa plazaratu duen Lisabö. Laboaren hilaurreko azken lanean, *Xoriek 17* testamentuzkoan, kolaboratzaile izan zen Irungo taldea, *Orduan* kantu progresibo zoragarrian. Orduan ez zuen hainbesteko indarririk anglizismoak edo anglokeriak euskal musiketan, nahiz eta igartzen hasia egon; ez zegoen esaterako *featuring*-ik, eta, Laboaren diskoan parentesi artean Lisabö jarrita, soil eta garbiki adierazi zuten taldearen parte hartzea.

Aipaturikoek eta gehiagok izan dute erreferentzia itsasargi bat Laboa, zer duda egin. Horietako gehienek dituzte, ordea, 40 urteak paseak, salbuespen bakarren batekin. Nolabait Laboa bizian ezagutu zuen azken belaunaldia da. Eta horrek galdera egitera garamatza: egun bizirik al da Laboa musikari belaunaldi gazteengan, eta gazteengan orokorrean? Transmisioa gauzatu da, ala eten bat dago? Kezka horretatik abiatuta, Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan erreportajea egin zuten urtearen hondarrean. Tartean sartu zuten unibertsitateko zenbait ikasleri egindako inkesta. Hamar bat laguntik pare batek baino ez zuen ezagutzen Laboa, eta ez ziren gauza bere kantu bat aipatzeko. Lagin oso txikia da, baina ematen du pistarik: transmisioa eteten ari da. Baina transmisioa gauza konplexua da, ez parametro bakar bati erantzuten dion aritmetika hutsa. Hezkuntzako eta irakaskuntzako ikasmaterialetan jarri zuten arreta bereziki erreportajea, eta hor huts egin dela argi dago: irakasle bakoitzaren interes eta borondatearen arabera irakasten dela euskal kultura eta euskal kulturaren pertsonaia ezinbesteko zenbaiten bizitza eta obra, eta ez zerbait sistematiko bezala. Hori da gutxi-asko atera litekeen ondorio nagusia.

## Errituak eta burbuilak

Edonola ere, hezkuntza-irakaskuntza gainditzen duen kontzeptu potoloa da transmisioa. Transmisioaren nondik norakoak ulertzeko, ezinbestekoa da bizitzari, kaleari, etxeari eta abarrei ere erreparatzea. Esaterako, aisialdia ohiturei, eta ikus-entzunezkoak ulertu-kontsumitzeko moldeei. Nago puntu giltzarrietan giltzarritsuena dela ikus-entzunezkoena: igaro gara, nahiko denbora laburrean igaro ere, musika eskuz esku zintetan grabatuta elkarri pasatzetik, gero etxean bakarka edo etxekean abaroan ahots gora entzuteko, mundu osoko musika pantaila batean izatera. Baina *mundu osoa* eufemismo arriskutsua bilakatzen da kasu honetan, esan

nahi baitu musika industriak indar handiz eta bereziz bul-tzatutako produktuen erakusleihu bilakatzen dela pantaila, musika anglo eta latinoarena, gaur-gaurkoz, eta euskararena ur-tanta bat ozeanoan bezain galdu geratzen dela. Eta zein zaila egoera horretan transmisioa gauzatzea, hezurmamitzea. Hezurra eta mamia, eta gorputza galdu baititugu pantailon garaiotan, Iñigo Martinez Peña filosofia irakasleak *Pantailen garaipena* (Elkar, 2023) argitsuan kontatu bezala. Esana dugu, zenbait gauza hiltzen ari dira, mundu oso bat hiltzen ari da, edo existentziaren amildegi ertzera iristen bederen, haien artean, eta Martinez Peñak asko aipatzen duen Byung-Chul Han filosofo hegokorear berlindartuak azken liburuetan azaltzen duen gisan, erritu komunitario zenbait galtze bidean dira, galdu ez badira. Horien artean, musika bizitzeko modu kaletar auzotar-komunitario bat.

Musika entzun liteke egun ere taldean, entzuten da, esaterako musika jaialdi erraldoietan, baina festaz haragoko konexio eta transmisorik nekez (festa eta poztasuna gauza handiak direla onartuta ere) lortzen da gisakoetan, edo hobe esanda, musikaz honantzagokorik; gertutasuna ez baita izaten makroebento horien ezaugarri nagusia. Musikariak eta ikus-entzuleak elkarrengandik urrun, pantaila erraldoiak nonahi hor ere, soinu baldintza eskasak gehienetan, eta bertaturikoak ere gertakizuna sakelakoarekin grabatzeaz kezkatuago musikaren uneko dimentsio askatzaile-bateratzaileaz baino. Eta, esan gabe doa, edo ia esan gabe, jaialdien egitarauetan erdarazko talde eta musikariak proportzio handian nagusi, euskaraz ari diren taldeetarako kupo txiki bat utziz (sarri jaialdiotako antolatzailearen zigiluetan egon ohi diren taldeak).

Taldean egonik ere, egon baitaiteke bat isolatua, bere burbuilan barnebildua. Ez da iritsi oraingoz gurera pandemiario betean The Flaming Lips talde estatubatuarrek entseaturiko formula hura: ikus-entzulea eta artistak nor bere plastikozko burbuila erraldoian sarturik (gehienez bi eta hiru lagun burbuila berean), soinu megafonia sofistifikatu batekin:

komunerako beharra zuenarentzat kartel erraldoiak ere pres-tatu zituzten, hartarako beharra zuenak baimena eska zezan... Oraingoz gertakari bakana izan da, baina metafora gisara balio du etorkizun ez hain urrun baterako irudi futurista-distopikoa imajinatzeko. Esperimentu ahaidetzat har liteke jada Euskal Herriko tabernaren batean abian jarritako ekimenena ere, bezero bakoitzak musika kasko-aurikular propio eta indibidualetatik entzuteko aukerarena, alegia. Bestelako kontua da, baina harremandurik egon liteke, eta da Duran-goko Azokako korridoretan urtetik urtera igartzen den izen bakarren ugaltzea, esan nahi baita, zigilu, diskoetxe, kolektibo eta abarretatik kanpo euren izen propioz erakus-mahai bat edo gehiago dituztenena: Zetak, Su Ta Gar, Izaro, Chill Mafia, Kai Nakai, Bulego, ETS... eta zerrenda luze bat. Arrazoiak mila izan litezke, baina adierazten du lan egiteko modu bat, ez hain lotua kolektibora. Adierazitako horiek dira egun arrakasta komertziala duten talde nabarienetakoa.

Musika kontsumitu egiten da, ez bizi, ez arnastu, ez gorputz bihurtu, eta kontsumitzen da geroz eta modu indibidualista-goan, indibidualizatzaileagoan. Hori dena eta gehiago salatz-zen du Jon Urzelai soziologoak *Su festak* (Susa, 2023) liburu zorrotz eta beharrezkoan, zeina, liburu forman izanagatik, urteko gertakari musikaletako bat den. Besteak beste, kapitalismo basatienak gidaturiko urbanizazio joerek, eraikuntza eta ebento handien ugaritzeak eta horren ondoriozko gentri-fikazioak kultur ekipamendu, ohitura eta transmisioetan ere nola eragiten duen gogoetarako bide ematen du. Hara hor urte hondarreko azken albisteetako bat: Donostiako Altxerri pub-taberna jazzeroak atek itxi behar izan ditu, lehenago Etxekaltek egin bezala, adibidez, eta Donostiako etxebizitz-zen eta lokalen erosketa zein alokairu prezio garestitze etenga-beak, turistifikazio aberatsaren mesedetan, eragina du kul-tur eskaintzaren pobretzean, edo ondoriozko transmisioan. Bestela, galde diezaiotela Iñaki Salvadorri, adibidez, zer izan den, zer garrantzi izan duen taberna horrek berarentzat eta gisako musikarientzat.

## Artea eta konpromisoa: galderak airean dira

Dena ez da beltz koloreko, ordea. Garai pantailazale eta indibidualistok krisi orokor bat ere irudikatu dute musikaren munduan, eta asko dira kezka horietatik abiatuta lanean ari direnak. Katakarak liburu-denda eta kultur kooperatiba lan eskergea egiten ari da azken urteotan alternatiba berriak planteatzen; kokagune eta eragingune nagusia Iruñea izanik, haren eragin-dardara Euskal Herri osora zabaltzen da. Hamarkada bete du Katakrakek, eta, efemeridea osatzeko, hamabost kantuz eta hainbat interludioz osaturiko bilduma plazaratu du. Hainbat eta hainbat musikaririk parte hartu dute bertan, modu kolektiboan, Ion Celestino musikariaren eta Hedoi Etxarte idazle eta editorearen gidaritzapean: Josepa Tápia, Ibil Bedi, Mursego, Chill Mafia, Raimundo el Canastero, J Martina, Trigger, Nakar, Fermin Muguruza, Pirritx, Porrotx eta Marimotots... Belaunaldi desberdinak batuta, egungo euskal musikaren erretratu aski interesgarria ematen duena, eta transmisioa egon badagoela adierazten duena. Falta dena transmisiorako kanalak eta politika publikoak dira, ekimen autogestionatuak bizirik jarraitzen baitu.

Musika ez da soilik diskoak, abestiak, kontzertuak... Baita horiek guztiak egiteko moduak ere, eta krisi garai betean agertzen dira galdera berriak edo zaharberriak plazaratzen dituzten belaunaldi berriak. 90etako hamarkadatik honantz ahaztuxeak ziruditen kontzeptuak izan dira konpromisoa, ardura, koherentzia... Eta, galdera moduan bada ere, airean dira berriz. Galdera horietatik abiatuta osatu eta gidatu zuen Paul Beitia idazle, musikari eta GKSko (Ekida Mugimendu Sozialistako kultur eta artearen adarreko) kideak *Lugorri* izeneko bideo sorta interesgarria, besteak beste Ion Celestinoekin berarekin eta J Martinako Kattalin Barcenarekin. Eta Durangoko Azokaren bezperetan egindako *BaDA!bil* bideopodcasteko saio batean gonbidatu izan zen Beitia bera, Xalba Ramirez (Nakar) eta Olaia Inziarte musikariek batera. Galderak egiten, Amets Aranguren (Ibil Bedi).

Koherentziaz, arduraz, artea ulertzeko eta egiteko moduez. Kezkak eta galderak badatoz airean...

Formulazio erabatekorik ez da izango, akaso, baina bilatu, bilatu beharra dago, bidea eginez eta ahal bada konpainia noblearen abaroan, hala ateratzen baitira alternatiba eta erritu komunitario berriak. Eta erritu horietatik ere atera baitaitezke artearekin berarekin konprometitutako egitasmoak; zergatik izan behar dute kontu bateraezinak artearen autonomiak eta gizartearekiko nolabaiteko ardurak? Hor beste galdera bat. Halaxe egin du bidea, esaterako, Bilboko Atxuri auzoko Espora espazioak (urrian lokala utzi behar izan zuten, eta kokagune bila dabilta), eta urratsez urrats musika esperimentalaren fabrika eta laborategi etengabeko bihurtu; Txaranga Urretabizkaia, IbonRg, Mikel Vega... Eta 50etik gora ekitaldi, kontzertu, tailer, hitzaldi... Eta molde kolektiboari garrantzia emanez bihurtu da zigilu erreferentziazko Forbidden Colours bilbotarra ere. Horren erakusgarri, urte honetan argitaraturiko disko errenkada zoragarria. Amoranteren *Harri herri har*, Galderren estreinako izen berekoa, Moxalen *Nabar* eta Xabier Zeberioaren *Pause*, adibidez. Zigiluaren gidari, Aitor Etxebarria, zeinak ia disko guztietan utzi duen bere lorratz distiratsua, soinu ekoizle bezala, kolaboratzaile bezala edo laguntzaile bezala. Euskal musika alde askotatik aberasten ari den musikaria da Etxebarria.

Musika diskoak baino zerbait gehiago da baiki, baina diskoak ere badira musika, nahiz eta kontzeptu hori ere eraldatzen ari den; produkzioa geroz eta gehiago bideratzen da singleetara, bideoetara, lan laburretara... Egungo begi-belarriek nekez jasaten dute hamar segundotik gorako estimulu *espektakular* (soinu zein irudi) baten gabezia. Asko hazi da produkzioa, nahiz eta CD edo binilo formatuan gutxi entzun. Eta, horien artean, gauza interesgarri asko. Esandakoez gain, eta batzuk nabarmentzearren: Ibil Bediren *Goldea* eta Esanezinen *Erretratu bat* pop-rockean, Vibora taldearen *Zaldi beltza* hardcorean eta Sei Segaren *Euria eta Bilbo* ep-a post-punkean, Rruccullaren *Zeru freq* eta Abaunzen *Beire* elektronikan eta

post-trap elektronikoan, Bas(h)oanen *Bas(h)oan II* folk-rock esperimentalean, eta, bukatzeko, anekdotikotik bezainbat izan dezakeena ildo berri baterako bidetik: musika klasiko zein garaikidetik publiko pop baten bilaketa. Hiru adibide eder: Gotzon Hermosa eta Garikoitz Mendizabalen *Sustraien matxinada*, Xabier Zeberioaren *Pause* eta Joserra Senperenaren *Lied koaderno*.

### Heriotzaren erritua: Jonan Ordorika, Alan Griffin

Dena ez dago galdua. Bizitzaren eta heriotzaren arteko interludioa da musika, diskoez eta singleez honantzagoko zerbait, eta oraindik balio du giza arimak elkartzeko, besarkatzeko. Jonan Ordorika soinu teknikaria hil zen abuztuaren hasieran, eta harekin lan egindako musikarien maitasun adierazpen uholdeak erakusten du musika badela *zer*, baina badela *nola* ere. Denek goretsi zuten haren lan egiteko gertutasuna, musikaria zaintzeko apeta, inguruan sortzen zuen «giro ona», goxotasuna. Eta bazuela horretarako erriturik: «Berak presatutako zuen hamaiketakoa edo bazkaria, eta musikaz hitz egingo zuen, edo Athletic-ez, umorez...». Badok.eus atarian zerrenda osatu zuten Ordorikarekin lan egindako musikarien kantu eta hitzekin. Erritu polit bat osatu zuten birtualki izanda ere. Antzeratsu gertatu da Alan Griffin musikari irlandar gipuzkoartuarekin. Urte hondarrean zendu da besteak beste Alboka eta Antzina taldeetako kidea, eta maitasun adierazpenak izan ditu handik bezala hemendik. Ez da urte ona izan irlandar musikarentzat. Sinead O'Connor hil zen udan, eta haren adiskide Shane MacGowan (The Pogues) urte hondarrean. Azken horren agur kaletarrak erakusten du musikaren erritu komunitarioaren indarra: dozenaka lagun kantuan, ahots batez, joandako laguna gogoan. 🍷



## Paisaia likidoak begi-bistan

Euskal testuinguruaren panorama artistikoari erradiografia egitea suertatu zaidan honetan, hurrengo galdera planteatzen diot nire buruari: zein da arteak edonoren iruditerian edota egunerokotasunean duen presentzia?

Erantzuna argia da, presentzia lausotua eta, askotan, estereotipatua da: jeinuak, maisulanak, irudi ulergaitzak, inaugurazio eleganteak, artelanak biltzen dituzten eraikin ultramodernoak, edo ultraklasikoak...

Hots, azaleko iruditeria artifizial hura zeharkatzen denean, presentzia desegonkor haren sustraietan hondoratzen gara. Aurkezten zaigun errealitatea bestelakoa dela bistaritzen dugu orduan. Nolabait, artea ezagutza da, eta ezagutza hori ikusleok adierazpen artistikoarekin garatzen dugun elkarrizketaren bitartez bereganatzen dugu.

Kantitateak kualitatea baino balio handiagoa duen gizarte honetan, bestelako denborak eta bideak eskatzen dituen diziplina batekiko ezagutza bideratzea zaila da. Zygmunt Baumanek azaltzen zuen eran, norbanakoaren eta kolektiboaren jakintza sustatuko zuketena ezagutza ereduaren desagertze prozesua abian da. Zeinaren bitartez, eta gizarte kapitalistaren mesedetan, ezagutzak elementu kualitatibo izateari utziko baitzion norbanakoaren jabetza kuantitatibo bihurtzeko.

Horra hor arteak hezkuntza sisteman pairatu duen lausotze progresiboa. Arte arloko ikasgaiak nahitaezkoak izatetik hautazkoak izatera pasatu dira, eta zenbait zentrotan beren existentzia ikasle eskaeren kopuruaren baitakoa da. Gogoeta honetan murgildu ahala, oso gogoan dut Haizea Barcenillak *Berria* egunkarian idatzi zuen artikuluetako batean dioena:

Hainbatetan, pentsakor utzi naute arte ederrak ikastea erabaki duten 18 urteko gazteek. Zerk bultzatu ote zituen, nerabe zirenean, artista izango zirela erabakitzea. Guztia argiegi edo erabat nahasia duzun adin horretan, nola otutzen zaio norbaiti artista bilakatzea? [...] Eta pentsamendu horietan galtzen naizenean, konturatzen naiz zein indartsua izan behar duen sen horrek, objektiboki begiratuta, miraria baita umeei, nerabeei eta gazteei hezkuntza arautuaren bitartez transmititzen diegun guztia ikusita oraindik ere arte ederretan matrikula egiten duten ikasleak egotea. Irakasten dieguna zera da: artea umeentzako kontua dela, arrazoia erabiltzen ez duten izaki azpi-garatuena.

Halaber, adierazpen artistikoei zuzendutako ikasgaiak prozedura tekniko, zehatz zein zurruntara bideratzen dira, eta parametro horietatik aldentzea zaila da. Ikasitakoa dese-raikitzeak eta artea beste zerbait dela ondorioztatzeak lana eskatzen du.

Heziketa artistikoa bideratzen duten espazioak hezkuntza arautuei zuzentzen zaizkienetatik aldentzen direla ondoriozta dezakegun honetan, arte espazioek proposatutako proiektuekin egiten dugu topo. Eszena idor horretan, badira molde berriak planteatzen dituztenak. Hala, aitortza egin behar zaie hainbat erakunde artistikoren hezkuntza departamentuek bideratzen dituzten eszenei. Hezkuntza curriculumei kolorea emateko aukerak zabaltzen dituzten hainbat bide sortzen baitituzte. Horren adierazle dira Uharte Zentroak garatutako *A3-hezkuntza-proiektua* eta *Tresnaka* proiektuak, arte garaikidearen eta hezkuntza arautuaren arteko zubiak eraikitzen baitituzte. Era berean, Artiumek bideratutako hezkuntza programek ere zubi horiek mantentzeko oinarriak bideratzen dituzte.

## Boomerang efektu desbideratuak

Urteak arteari edota arteak urteari zer ekarri dion planteatu didaten honetan, zail egiten zait aurreko urtearekiko ezberdintasunik topatzea. Alabaina, urte bat atzera egin eta San

Telmo Museoa garatu zen *Baginen bagara* erakusketan kokatzen badut nire burua, hark Euskal Herriko arteen kontakizunetan izan zitzakeen eragin hipotetikoetan murgiltzen naiz. Mostrak emakume artisten ikusgarritasunen logikak planteatzen zituen; hala, horiek baztertzeko zituzten mekanismoak agerian utzi eta beroriek aurkezteko bide berriak geratzen ziren agerian.

Mostraren inguruko kritika idatzi nuen *Berria*-n. Guztiz bat egin nuen mostrak planteatutakoarekin. Edukia eta eragile artistikoen ikusgarritasuna moldatzen dituzten mekanismoen bistaratzea guztiz beharrezkoa baita. Hala ere, oso positibo edota positiboegi nagoenean, gauza on guztiak amaitu egiten direla gogorarazten didan alarma zapuztailea dut barrenetan, eta testua idatzi ahala aktibatu zitzaidan. Zein izango zen mostra konposatzen zuten hainbat eta hainbat artistaren lanen etorkizuna? Eraginik izango zuen Euskal Herriko testuinguru artistikoan? Aipatutzat hartuko zuten beren burua mekanismo baztertzailleak bideratzen zituztenek?

Erantzunak denborak dakarzkigu, ekarri, eta, oraingoz, artista askoren lanak gordailuetara bueltatu dira. Logika inklusiboagoak bideratzeko pautak mahai gainean jarri baziren ere, haien oihartzunak eskas entzun dira zenbait instituzioren bildumetan edota erakusketa programazioetan. Haziak hor daude, eta orain haien ernaltzearen esperoan gaude.

Horren adierazle dira Azkuna zentroak, Bene Bergadoren erakusketarekin, Nafarroako Museoak edota Artiumek era irmoagoan bideratzen dituzten proposamenak. Nafarroako Museoari dagokionez, kaperan egindako mostrek ildo berrien saiakerak adierazten dituzte, bertan gure testuinguruko hainbat emakume artistaren mostrak egituratzen baitituzte.

Era berean, Artiumen aurkeztutako proiektuek agerian uzten dituzte bide berri horien aztarnak, gure testuinguruko hainbat artistaren lanei ikusgarritasuna emateko bideak sendotu baititu museoak. Euskal testuinguruko artisten mostrak beste herrialdeetako artisten erakusketekin uztartzeak hartu-eman mesedegarriak bideratzen ditu. Alabaina, aipatutakoez

gaindi, gainontzeko instituzio artistikoetan aurkezten zaigun panoramak ez digu aldaketa handien edo aldatzeko nahien seinalerik igortzen.

Begirada bazterretara fokuratzen dugun momentuan, paisaia berrantolatzen da. Izan ere, instituzio artistikoez harago, badira haiek ematen ez dizkiguten aukerak bistaratzen saiatzen diren espazio xumeagoak. Horren adierazle dira, besteak beste, Iruñeko Apaindu espazioa, La Taller eta Aire galeriak eta inguruak okupatzen dituzten beste zenbait arte espazio.

## Periferiak

Proiektu artistikoekiko interesa dutenak izan ohi dira kontzienteki horiek hartzen dituzten espazioetara mugitu izan direnak. Alabaina, askotan esperientzia turistikoen nahitaezko eginkizuna izan ohi da museoak edota espazio artistikoak bisitatzeko. Horra hor Guggenheim eta Bilborekin sortu den binomioa.

Arteak gure inguruan duen egoerari buruzko gogoeta honetan, askotan ahantzi egiten den kontu bat datorkit burura. Arterari lotutako espazioak hiriguneetan errotzen badira, zein da artearen egoera landa eremuetan?

Agerikoa da bestelakoa dela. Ziur naiz badirela artea eta landa eremua antagonikotzat jotzen dituztenak. Alabaina, badira zubiak eta bestelako moduak bideratzen dituzten proiektuak. Kasuak kasu, azpimarratzekoa da mediazioaren presentziak, erakusketekin batera, faktore erabakigarria jorratzen duela, inguruarekin elkarrizketak sorraraziz, ikusleak erakusten denarekiko loturak ehun ditzan.

Horren eredu dira Eremuak-en ekimena den Harriak programa Euskal Autonomia Erkidegoan, edota Uharteko Zentroaren parte den Uholdeak programa, Nafarroan. Kasu horietan, erakusketa da ikusleengana gerturatzen dena, eta ez alderantziz. Halatan, erakusketa programak badira ere, biek bideratzen dituzte mostren inguruko saretze eta mediazio

programazioak. Izan ere, prozesu artistikoekin harreman zuzenik ez duten ikusleak kontuan harturik, helburua horiek erakartzea eta arte garaikidearekiko gerturatze bat bideratzea da.

## Elefante bat periferian

Artea ulertzeko moduak askotarikoak izan daitezke. Hots, aurretik planteatu ditudan hausnarketen artean, egungo gizarte kapitalistak faktore kuantitatiboek ematen die balioa, eta kualitatiboak bigarren plano batean baztertzen ditu. Hala, hurrengo urteetan garatzear dagoen proiektua ikuspuntu hura bermatzera dator: Guggenheim Urdaibai proiektua, alegia.

Esan bezala, beharrezkoa da arte garaikidea landa eremuetara gerturatzeko programen garapena, mesedegarria baita hango biztanleentzat. Alabaina, oraingoan proiektu megalitiko horrek arteari ekarriko dizkion onurak zein izango diren ez dakigu. Hasieratik igorri denez, hori ez baita museoaren eraikuntzaren gakoa, dirudienez proiektua sustapen ekonomiko baten erara proiektatu izan baita.

Bai, mundu mailan ezaguna den erakunde artistiko batek bi egoitzez konposatutako proiektu museistikoa eraikiko du Busturialdean. Baina, zeren truke? Diru publikoz hornitutako proiektua bada ere, litekeena da sarrerak Bilbon bezainbesteko prezioa izatea, hemezortzi euro, zehazki. Inguruko biztanleekin existi daitekeen hartu-emanaren barreiatuko luke horrek. Bada, hori ez da arazo nagusia, bestelako faktoreen artean inguruak paira ditzakeen aldaketak ditugu. Hala, galeren erpinean, inguruaren turistifikazioa zein gentrifikazioa eta erreserba naturalak jasango dituen kalteak kokatzen dira.

Gustatuko litzaidake, berriz ere, pesimistegia ez izatea, baina zaila egiten zait. Litekeena da periferian eraikiko den proiektu erraldoi horrek inguruarekiko murruak eraikitzea, entzungor izatea eta gutxi batzuen etekin ekonomikoa bideratzeko baliagarria izatea. 🐘

# Adimen ARTifiziala

BEGIRA EZAZUE ARTELAN HAU... ADIMEN ARTIFIZIALA DUEN ROBOT BATEK SORTUA DA! ARTISTA ETA BERE LANAREN EZAUGARRIEI BURUZKO ZENBAIT DATU TXERTATZEN DIZKIOGU ETA ALGORITMO BATZUEN BIDEZ GUK AUKERATUTAKO ARTISTAREN ESTILOAN EGINDAKO NAHI ADINA ARTELAN SORTU DITZAKE. ADIBIDEZ, IKUSI ZEINEN ONDO BIRSORTU DUEN JACKSON POLLOCK-EN ESTILOA KOADRO HONETAN, BERE IZAERA, KEINUA, KINADA, EGILEAREN SORMENAREN INDIRRA...



HARA! LEHENGUN GURE MANEX TTIKIYAK ETXEKO SUKALDEN INDAKO MARRAZKIE EMATEU, EZTA, JOXELUIS?

HOI NIK E' INGO NIKEK PINTZELA Z\*\*\*L PUNTAN JARRITA...

EIN...?!  
A, BAI,  
OSO  
POLITA.

AI, NESKA, BA NEI GOATZEIT GAZAKO BONBARDAKETA BAT, EZTA?

ZERGATIK EZ DOAZ CROMAGNON HAUEK BOKADILLOA JATERA BEHINGOZ?

HONETARAKO EGIN NITUEN NIK ARTE EDERRETAKO IKASKETAK...?

EZ AL NUKE HOBE ERRIOXAKO UPATEGIETAN GIDARI GISA ARITZEA?

HONA HEMEN EGUNEN BATEAN NEURE BURUARI ERANTZUN BEHARKO DIZKIODAN GALDERETAKO BATZUK...

## Zinemaren bila

Treanean norbait film bat ikusten ari dela konturatu naizenean –ez preseski Aleksandr Medvedkinen zinema treanean, baizik eta aldiriko tren utzi batean–, galdetu diot neure buruari: non dago zinema gaur? Galdera zahar batzuk beti dira berriak. Berdin tokiak ere: aretoan, jaialdian, museoan, artxiboan, etxean egongo da. Egon bakarrik ez; tokiek eta teknologiek egin egiten dute zinema, azken finean. Horrexegatik, batetik, batzuek urteak daramatzate esaten Thomas Edisonen irabazi egin diela Lumière anaiei, mugimendudun irudien esperientzia indibiduala, kinetoskopioarena, gailendu egin zaiolako kolektiboari, zinematografoarenari; bestetik, gero eta zailagoa da irudikatzea zer den film bat, non dagoen, noren eskuetan, nola gordeta, zer formatutan, noiz arte. Komeni da pentsatzea zinemak zer toki izango duen aretoen gainbehera hurbilaren ondoren, eta nolakoa den digitalaren materialtasuna –*hodeia* delako ilusio itxuraz kaltegabeketik begiak jaitsita, ozeanoak zeharkatzen dituzten kabletara eta datuak biltzen dituzten zerbitzarietara–.

Zinema presentiaz hitz egiteko presak ez du uzten astirik mapak egiteko, eta, edozein modutan, kartografia inoiz ez da izaten geografia bezain interesgarria, errepresentazioak ezarritako muga bazterretan geratzen direlako maiz gunerik bizienak. Hala ere, gauza bat jakina da: zinema pantailetan dago. Batzuetan irudiak proiektatzen diren eta besteetan irudiak eratzen dituzten azal paradoxiko horietan. Baina beste toki batzuetan ere bai: filmatu gabeko gidioletan, artxiboetako film bukatugabeetan, ikerketa kritikoetan, ikusleen gogoetan.

Hitzetan ere egon liteke zinema. Esperientzia zinematografiko nabarmen bat izan da, esaterako, Victor Erizek Zinemaldian Donostia saria jaso aurretik egindako prentsaurrekoa, inor gutxik bezala gorpuzten baitu zinemaren bizipen existentziala. Haren diskurtsoaren muina gordeta dago *El espíritu de la colmena* (Erlauntzaren espiritua, 1973) filmeko eszena gogoangarri batean: Ana haurrak zinemako proiektioari begira erakusten duen lilura izugarrian. Zinemak bere-berezkoa du lilura hori, beste arte diziplinek baino gehiago akaso, eta harrigarria ere bada nola iritsi den gaur arte hastapeneko filmek beraiekin ekarritako indar infantila.

Haurren izaera tolesgabea goraiatu zuen José Bergamínek, 1930ean emandako *La decadencia del analfabetismo* (Analfabetismoaren dekadentzia) hitzaldi probokatzailan. Haren ustez, tolesgabetasun horri lotutako kultura espiritualak akabatuta zegoen, alfabetatzeak zabalduetako kultura literalaren «dominazioaren» ondorioz. Ildo berean, eguberrietan ipintzen diren jaiotzen defentsa poetiko suharra egiten ari zela –analfabetismoaren ikurtzat zituen–, zera esan zuen: «Zinema asmakizun liluragarriki analfabetoa da».

## Puntu kardinalak

Maparik gabeko bidaiak bat abiatu dugunez gero, alferrik litzateke euskal zinemak 2023an utzitako uzta zerrenda batera makurraraztea. Filmak sakabanatuta daude, eta irudi dibertigarriagoa osatzen dute hala; are gehiago, esan liteke ezinezkoa dela film bat soil-soilik bere horretan ikustea, aurrez ikusitakoek arrastorik utzi izan ez balute bezala. Haien artean elkartzeko jolasak, hierarkiarik eta lehiarik gabe, hobeto pentsatzen lagundu dezake. Orientatzeko, kapritxozko lau puntu: kontzeptuen iparra, fantasiako mendebala, migrazioen hegoa eta ekialde gaztea.

Nola hasi film bat? Nola ekin *ibibide* bati? Estibaliz Urresolak eta Alberto Gastesik eskarmentua zuten film laburrak

egiten, baina *20.000 especies de abejas* (20.000 erle espezie) eta *Gelditasuna ekaitzean* lan luzeekin pauso handi bat eman dute. Lehenengoaren aurreneko planoan, haur bat ageri da ohean etzanda, leihotik sartzen den goizeko eguzki apurrak argituta, amaren eskortzoari begira, haren galderen aurrean mutu. Bigarrenarenean, emakume bat autoan, zuhaitzetako hostoak islatzen dituen kristalaren atzean, begirada galdua-rekin. Koloreak kontrastea egiten du zuri-beltzarekin; formatu panoramiko estandarrak, 4:3 karratuagoarekin; herriak, hiriarekin. Baina etxea bi filmetan da elkargunea: Urresolak belaunaldien arteko loturak eta tentsioak irudikatu ditu, naturalismotik, eta Gastesik, berriz, denaren eta zitekeenaren arteko gurutzatze ia fantasmagorikoak, estilizaziotik.

Bi pelikula horiek ez dute merezi kritika orokor batzuen zama beren gain botatzea, baina biek piztu didate barruan zalantzazko alarma bat, zinema garaikidearen joera arrisku-tsuren baten berri eman lezakeena. Alde batetik, idazketak duen karga izugarria: hain dago hitzez neurtuta keinu eta metafora bakoitza, non emaitza zurrunegia izaten den, gaiaren justifikazio teorikoak estutua –nahiz eta hautu formalek ekarpenak kontuan hartzekoak diren, noski–. Horrekin lotutako hipotesi bat entzun dut berriki: diru laguntzak eta egonaldiak ez ote diren gehiegi bideratu gidoia eta garapena bultzatzera –prozesuko zatirik merkeenetara, bide batez–, filmatzeko unea iristerako hitzezko aldarnio erraldoiak eraiki behar izateraino. Bestalde, ez dakit ustezko errealismoa zinema euskara zokoratzen ari ez ote den. Hizkuntzek, gaztelaniak eta euskarak, funtzio narratibo bat dute *20.000 especies de abejas* zein *Gelditasuna ekaitzean* filmetan, genero marka baliaitzeko eta narrazioa denboran bereizteko aukera ematen dietelako, hurrenez hurren, baina iruditzen zait bide laburra dagoela kaleko erabileraren aniztasuna islatu nahi izatetik euskara hutsezko fikzioaren ahala gutxiestera.

2023an euskarazko film handirik izan bada, hori Paul Urkijoren *Irati* da. Anbizio handiko fantasia epiko bat egin du Urkijok, eta asmatu du proiektu pertsonal bat, ekoizpen handi

bat eta ikusle asko lotzeko gai den istorio bat bateratzen. Pelikulak giharra erakusten du, baina samurtasuna ere bai, efektuak efektu, oinarria eskuz eginda balego bezala. Neurriari dagokionez, ez du zerikusirik Maia Iribarneren eta Paxkal Irigoienen *Bañolet* filmarekin, baina haren xarmak ere lotura zuzena du egiteko moduekin; izan ere, herritarrekin sortutako lan kolektibo bat da. Fantasia umoretsua eta jolastia darabil, *Irati*-ren seriotasunetik urruti, nahiz eta helburua antzekoa den: euskaldunen kondairez aritzea. Urkijok mitologia eta historia nahastu ditu abenturazko kontakizun batean, antzinako istorioak gaurko munduarekin konektatuz; Iribarnek eta Irigoienek, berriz, beren mitoak sortu dituzte, bitxiak bezain dibertigarriak, konbentzio guztietatik aske ibiltzeko.

Beste lan batzuei urgentzia darie, kaleko gertakariekin duten lotura estuarengatik. Migrazioa dute abiapuntu Iratxe Fresnedaren *Tetuán* eta Fermin Muguruzaren *Bidasoa 2018-2023* filmek. Fresnedak *Erregistroaren trilogia* delakoa itxi du bidaia berriarekin, bere bidetik jarraituta: off-eko ahots iradokitzailea, plano finkoak eta atalkako kontakizun pausatua. Azkenerako, bidean topatutako pertsoneri eman dizkie tokia eta ahotsa, esperantzazko keinu batekin. Muguruzaren lanean, herritarren aktibismoak gorpuzten du itxaropena. Mugako bizitzeari ahotsa eskaini die, migratzaileei zein herritarrei; hildakoei, berriz, memoria. Muturreko egoera baten erantzuna da dokumentala, zuzena eta salaketazkoa. Lurraldeei azpikoz gora begiratzeko bi aukera, aretoetara haize kontra iritsiak.

Ez al da jasanezina modako esamolde batzuek eragiten duten kirrinka? Esaterako, gaur egunean, kulturaren instituzioetatik *talentu berriez* ari diren aldiro berresten dute *talentu* hitzaren adierarik antzinakoenean dagoela gakoa: merkatu-rako diru unitatean, txanpon gazte distiratsuan. Eta, hala ere, iristen dira indar berezidun lan berriak, nolabait izendatzea merezi dutenak. Oraingoan, tokiei lotutako bi film: Negu kolektiboaren *Negu hurbilak* luzea, Zubietari; Mikele Landaren *Noizko basoa* laburra, Eako Ulla basoari. Pertsonaia baten ihes isila naturaren handitasunarekin elkartzeko da batean;

paisaia bera da protagonista bestean, hango pertsonekin harremanetan. Biak filmatu dituzte 16 milimetrotan. Ez da kasualitatea denborak –memoriak, esperoak, biharrak– pisu nabarmena izatea bi lanetan, formatuak berak baduelako gaitasuna, denbora atzemateaz gain, beste denborazkotasun bat sortzeko, irudietan zein lan prozesuetan. Adibidez, Negu kolektiboko kideek (Ekain Albitek, Mikel Ibargurenak, Nicolau Mallofrék eta Adrià Rocak) bi urte eman zituzten Zubietan, kamerarik hartu gabe. Irudiak ez ezik, soinuak ere testura ederra du bi filmetan: bateko ahotsek, eta besteko siltasunak eta katarsiak. *Noizko basoa*-n, zuhaitz eta pertsona bakoitzak bere izena dauka; ez *Negu hurbilak*-eko protagonistak. Azken finean, aparteko lurraldeetan daude Landaren jario poetikoa eta Negu kolektiboaren bulkada politikoa.

Ezaguna da Vicente Huidobro poetaren esaldi jolastia: «Lau puntu kardinalak hiru dira: hegoa eta iparra». Haren sintesi kartografikoa euskal zinemara ekarriz gero: herri espirituala eta hiri literala?

## Palaziotik kanpora

Zinemaren orainaz hausnartzeko leku aproposak dira festivalak. Donostiako Zinemaldiak, lehenengo aldiz, euskaraz azpidatzita eman ditu Sail Ofizialeko film guztiak Kursaalako auditoriumean, bere egoitza nagusian. Tartean, Isabel Hergueraren *El sueño de la sultana* (Sultanaren ametsa) animaziozko lan ederra. Urrats garrantzitsu horren ondoren, ezinbestekoa da hurrengoa nola egin asmatzea: filmok euskarazko azpidatziekin iritsaraztea aretoetara nahiz plataformetara. Eta pentsatzekoa da merkatuak ez duela horrelako pausorik emango, inork banatzaileei eta emanaldien arduradunei bultza egin ezean. Ez da abiapuntu txarra.

Jaialdiek hedatzeko joera gero eta handiagoa dute, gainera. Gurean, 2022ko abenduaz geroztik, Donostiako Zinemaldiak *Artxiboa* dauka, zinemaren beste toki inportante bat.

Milaka kaxaz osatutako biltegi ezkutua artxibo irisgarri eta bizi bihurtu dute, jaialdiaren historia osoko dokumentuak eta argazkiak erakusteaz gain, haren gaineko jardun kritikoa ere lantzen duena. Elias Kerejeta Zine Eskolako Pablo La Parrak koordinatu du ikerketa, eta, lehen argitalpenetan, 1970eko hamarkadaren bigarren zatiko eraldaketetan jarri dute fokua; besteak beste, 1977an abiatutako *Auzoak eta herriak* programan eta 1978an antolatutako *Emakumeen zinea* zikloan.


Zinemaldiaren egunkari ofizialaren zenbaki guztiak digitalizatu dituzte, eta zera jakin dut haietako bati esker: *Auzoak eta herriak* programaren barruan, 1979ko irailaren 11n, Robert Bressonen *Une femme douce* (Emakume gozo bat, 1969) proiektatu zutela Villabonako Gurea zineman, beste hamaika emanaldiren artean. Pierre-Henri Deleau Cannesko Zinemagileen Hamabostaldiaren sortzaile eta zuzendariak gidatu zuen ondorengo solasaldia ikusleekin. Egunkarian, *Festibala palaziotik kanpora* izeneko sailean kontatu zuen han bizitakoa:

Villabonako esperientzia izan da jaialdiko gauzarik eder eta atseginetako bat. Jaialdia deszentralizatzea ideia bikaina da, gertakari kultural inportantea delako probintzia osoarentzat. [...] Imajinaezina da Bressonen film baten proiektioan herri bateko zinema beteta egotea. Gainera, jendeak interesa du solasaldietan parte hartzeko, zinemaz etengabe ikasten jarraitzeko.

Bada, Villabonako Gurea zinema horrek berak 75 urte bete ditu aurretik. Zenbait ekitaldi antolatu dituzte urteurrena ospatzeko: udaberrian, Koldo Almandoz zinemagileak bere *zineborroak* erakutsi zituen, *Amestutako filmak* izeneko saio dibertigarrian; udazkenean, Pello Lizarralde idazlea literaturaz eta zinemaz aritu zen, *Argiantza* nobelatik tiraka. Lizarralderen hitzak dira hauek:

Herriak katalogatzeko modu asko daude. Lagun batek esaten zuen: «Badaude ibaia duten herriak, eta ibaia ez dutenak». Eta nik uste dut badaudela zinema aretoa dutenak, eta ez dutenak. Zinema aretoa duen herri batek gauza asko ditu.

Gutxienez, zinemarentzako toki bat. 🍷





### Uda

Hego-ekialdeko haizea ibiliko da eta termometroa 35-40 gradu artean, hainbat puntutan 40 gradutik gora ere igo daiteke. Azken urteetako beroena izatera helduko da, barnealdean zein kostaldean. Ozeanoaren batez besteko temperatura 21,1 gradura iritsi da. Bero zapa. Dena sikatu da. Lurrak arrakalazten jarraituko du. Babesteko gomendia luzatu dute. Zaindu zaitetze.

Piztu pantaila eta jar ezazu askorik ez pentsatzeko zerbait. Streaming plataformetan aurki daitezke nahi beste narkotiko. Aurtengo 'onenak' bila ditzakezu –*The Last of Us, One Piece, Beef*– edo harribitxi ezkutuen klubeko kuxina besarkatu –*We Are Lady Parts, The Architect, Selftape*–. Hollywoodeko gidoi-larien grebak izan du eraginik katalogoan, euskal gidoi-larien existentzia bera apenas da igarri beste behin.

Nazioarteko 17 herrialdeko hainbat plataformatako ikus-entzunezkoen eskaintzaren hizkuntz azterketa eginez gero, erradiografiak ez dagoena erakutsiko luke: Prime Videon, 138 edukitan eskaintzen da euskarazko audioa (hori da eskaintzaren %0,08) eta 650 pilulatan azpidatziak (%0,16); Netflixen, euskarazko 63 audio kanal (%0,01) eta 129 azpigitulu (%0,02); Disney+ arakaturaz gero, zero patatero. Akaso hori gara, zero koma gutxi bat.

Lotuta daude plataformetako kultur paisaietan agerikoa den sarraskia eta hizkuntz paisaia erabat hegemonikoa. Bizi dugun minorizazio egoeraren larriak ia ezabatu digu hatz marka. Garena errekonozitzen ez duen aztarna digital bat dugu gertu. Zero biribila.

Mugagabeko desertuaren handitasunean, itolarrian ia, uda agortzeko zorian zela jarri zen martxan –az-ke-nik– gure

plataforma: Primeran, euskal munduari irekitako leiho digitala.

IJBOL (*I just burst out laughing*).

Hautsiko dut «bejondeizuela», «ongi etorri», «zorianak» lako erreakzioen magal abegitsua. Badira euskal mundutik esan beharreko batzuk.

Hasteko, euskal mundua zer ote da denboraldi honetan estreinatu den *Zinea zetaz* saioko lehen filma *Érase una vez en Euskadi* aukeratzen duenarentzat? Akaso da *Itxaso* telesailaren gidoiak erdaraz idaztea? Apika *El vasco* filma osorik euskaraz edo gaztelaniaz ikusteko aukera soilik eskaintzea istorioa Bermeo eta Argentina artekoa denean? Artifizioaren dikotomia gailendu behar al da errealitatearen nahaste natural eta ederra beharrean?

Egin dezagun erregistroa. Doan da baina izena eman behar da. Datuak, pertsonalizazioa eta algoritmoak. Ezagutzen ditugu joko arauak. Ea zer sailkapen aurreikusi duten: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta... Iparralde. Zenbat gara? Bost, OK. Agur Xiberua!

Horri gehitu lehenbiziko egunetan ezin zela izena eman jaioteguna euskaraz jarrita: xx-xx-xxxx eta xxxx-xx-xx artean kabitzen da mundua euskaratik ikustearen edo hala ez bizitzearen arteko aldea. Ez dakit uler daitekeen euskal streaming plataformaren tresna erdaraz pentsatu eta sortzea, baina nekez onar daiteke pretest fasea gainditu ondoren be-turreko euskaltzaileen zuzenketak integratu gabe plazaratzea.

Goazen barrura. Internet nabigatzailetan eta sakelako zein tablet aplikaziotan hasieran, AndroidTV bidez telebista adimendunetan ere 2023ko azken asteetan. Bada zer ikusi katalogoan, baina *scroll*-a ere azkarregi amaitzen da inguruan. Ikusi ditut hiru pelikula, bi dokumental eta telesail bat. Orain zer? Eduki berrien esperoan, surf egitera ateratzen direnak olatuen zain nola.

Agian esperientzia partikularra baino ez da, hirugarren eta laugarren hamarkadaren artean bizi den emakume bizkaitarrena. Izan ere, galdera egokiak dira ziurrenik ondokoak:

zer profiletako erabiltzaileak liluratu ditu plataformak? Zenbat denbora pasatzen dute batez beste astero konektatuta? Zer eduki ikusten dituzte? Zer ikusteko iradokitzen die plataformak? Gomendio algoritmoa berdina ote da erabiltzaile mota guztientzako? Erregistratutako herritarrek zenbat hizkuntza ezagutzen dituzte eta zelako euskara maila dute?

Izena eman dugunak 50.000 ei gara. Hori izan daiteke Euskal Herriak duen biztanleriaren %1,6; milioi bat euskaldunen %5; hizkuntz komunitate trinkoagoa osatzen dugunon heren bat. Edozein kasutan, euskal munduak dituen hiru neurrietako batean ere ez gara publiko potentzialaren gehiengora heldu. Netflix bai, baina gu ez.

Agian kontua da ez dugula ondo ulertu, plataforma gazteentzako omen baita. Gazteen kontsumo ohiturak eta portaera digitalak aipatu dira. Noiz arte izango da Internet gazteen kontu bat gure erakundeen plan estrategikoetan?

Katalunian ere aurkeztu dute streaming plataforma aurten, 3Cat. Katalanaren bultzatzaile izateko asmo irmoa adierazi zuten jendaurreko aurkezpen ekitaldian, hizkuntza galtzeko arriskua dakarren kontestuan indartsu eragiteko gogoia. Generalitateko presidentea ere izan zen aurkezpenean, eta harro adierazi zuen haren gobernuak zinema ekoizpenetarako laguntzak boskoiztu egin dituela, eta telesailak sortzekoak x 12. Hizkuntza eta kulturari irekitako leihoaz mintzo dirahan, ez katalan munduaz.

Fantasia.

Goiko lerroetako zortzi ertzek oso gutxi dute kritikarik, eta asko kezkatik. Dena erretzen ari den bero zapa honen epizentroan sentitzen den egonezinetik, arduratik, larritik. Sofa ertzetik begiratuta antzematen denaren arabera, herri estrategiaugarren beha jartzeko ereserkia hautatzen hastea izan baitaiteke, eta bozgorailurik gabe ere aditzen da melodia: *Irudi izoztu bat da gure itxaropena, txukun ta garbi dago hondamendia...*

Inork ez du etorkizunik nahi  
(Nakar, Lore eta laban diskoko Garaia harri)

## Bitartea

Ez-urtaro batek ez du eguraldi iragarpenik.

Dena ziurgabetasunak bete duen aro honetan, eta ia ukigarria denean aldaketa, zail dago garaiari ilusioz begiratzea. Eskerrak garaipen txiki batzuek argi izpi batzuk sartzeko moduko pitzadurak irekitzen dituzten kolonialismo digitalaren markoan.

Googlek, aldizka, bere bilatzailearen emaitzak sailkatzeko modua aldatzen du, eta, halako batean, katalanezko edukien desagerpenaz ohartu ziren Aliança per la Presència Digital del Català erakundean, baita euskarazko edukien ikusezintasunaz ere euskal Wikipedian zein Puntueus fundazioan. Egin ziren salaketen ondorioz, galdutako ikusgarritasuna berreskuratu zen pasa den irailean. Hara, ikerketen babesarekin eta herri antolatuaren ekimenarekin lortzen diren aldaketak. Ai, halako arrakasta ttipi asko bagenitu!

Noizko euskararen presentzia digitalaren aldeko aliantza bat? Digitalean ere biziko garaela nahikoa ziurra denez, bada unea euskalgintza digitalizazioari begira eta digitaletik pentsatzen hasteko. Internet ez da atarian jartzeko kaktus bat.

Akaso urrats horiek artikulatzen hasiko bagina, Google News euskaraz konfiguratzeke aukera ere izango genuke gure kide katalanen pare. Horrela, bertan irakurriko genuke sarean bolo-bolo zabalduko Otsagabia eta Larraine arteko errepidean agertutako hartza, auto bateko leihotik ogi pusketak bat jaten ematen diotena, ez dela benetakoa. Albiste faltsuen enegarren biralizazio zahar-berria.

Nolanahi ere, adimen artifiziala erabilia di-da berregin daiteke bideo zati hori, eta egiaztapenerako baliatutako errepide ertzeko petrila ezabatu. Bertako basoarekin osa dezakegu atzea, eta inor gutxik ukatu ahalko du egia denik. AAK kontuan hartzen ote du biodibertsitatea? Edo hori ere bere konfigurazioan dituen alborapen zerrendako beste lerro bat ote da egile eskubideen kutzaren azpian gordeta?

2022an oraindik urruti irudikatzen zirenak egiteko gai izan da honezkero adimen artifiziala. Spotify ikusi dugu

podcastak itzultzeko zerbitzua eskaintzen Voice Translation bidez, itzulitako bertsoan ere norbere ahotsa mantenduz; eta Meta ere antzeko ariketetan dabil SeamlessExpressive demoan, tonu ez robotiko eta aitzitik erabat naturalean eskainiz ahots itzulpenak, jatorrizko abiadura, bolumena edota tonua mantenduta –hizkuntz aukeretan ez da ageri, baina hitz eginez gero euskara ezagutzen du aise–.

Bada, espresuki, adimen artifizialak euskaraz hitz egin dezan aurten abian jarri den egitasmo bat ere, «batu ditzagun gure ahotsak» lemapean martxan den *Gaitu.eus* ataria. Esaldi batzuk irakurri altuan eta grabatu, beste batzuenak entzun eta ondo dauden edo ez erabaki... Jolas entretenigarria ere bada, gainera!

Nola? Gaia arrotzegi zaizula, galdua zabiltzala edo gehiago jakin nahi duzula? AA, algoritmoak, humanitate digitalak, metabertsoa, hizkuntza prozesamendu naturala, *big data*, ekologia digitala edo harreman afektibo digitalak bezalako kontzeptuak azaltzeko bideo sorta ederra ondu dute 2023an: bilatu *Ikusgela erronka digitalak*. Zalantzarik ez izan, definizio gehiago hurrengo denboraldian.

Etorkizuna,  
ez dakit konstante bat  
(Maialen Imaz, *Geruzak* ikus-entzunezko sorta)

## Negua

Zerua estalita egongo da eta zaparrada mardulak botako ditu Kantauri isurialdean. Alerta gorriaren bezperan, kostaldean 130 kilometro orduko ipar-mendebaldeko haize-boladak espero dira. Traba egingo du. Horrez gain, goizaldean abisu horia egongo da indarrean izozteengatik, eta tenperatura maximoak ez ditu 5 gradu gaitutuko egunean zehar. Hartu aterpe eta barruko lanak egiteko baliatu. Pasako da.

Urak blaitzen du zarra-zarra ingurua, indar suntsitzailez hartzen dizkio lurrari zentimetroak, edo xurga dezake emankor

has dadin orube hori noizbait. Batzuetan ez da jakiten zer gertatuko den, baina ur garbia bizitza bezain baliotsua da beti.

Baso bete ur izan dira 2023ko bideopodcastak: *baDA!bil*, *Ikerl(h)ari*, *M ama\*eme\*ume\**, *Zozoak beleari*, *BTN 2.0*, *Yoko Ona*, *Zulora*, *Irratiak ordaintzen digu trena*, *Flop kultura*, *Iufi* edo *Lay Day*, besteak beste. Bideopodcasten urtea izan bada ere, soilik audioan entzuteko sortuak diren irudiz jantzitako ahotsen podcast belaunaldia ere bada honakoa. *Berriketan*, *Kinka*, *Uhin ultramoreak*, edo *(Min)bizi* bezalako podcasten segidan entzuteko modukoa. Esatea da arau berria. *Berria*-k bideo labur eta bertikaletan egindako apustua ere olatu horren aldeko haizea izan da, mundua azaltzea ez dago erraz eta lortzen dute labur bezain zorrotz. Euskadi Irratian ere azalpen kazetaritzaren bidean abiatu dira, eta estudioko kamerek jasotzen dituzten irudiak agertu zaizkigu sare sozialetan.

Konturatu ez denak leihotik kanpora begiratu beharko du, emankortasun batez ere bete baina airea. Sekula ez da euskaraz entzuteko horrenbeste audio egon, esaterako. Beste adibide batzuetan, halaber, audientziak eta edukiak bat egiten dute, Antton Telleriaren *Nekatutak-Grabatutak* bakarriketaren kasuan legez: egun bakarrean 5.000 ikustaldi pilatu zituen Youtuben, eta hiru egunetan 12.000tik gora. Aldeko haize zirimolan, *Irati* filma inoizko euskarazko estreinaldirik arrakastatsuena izan da 160.000 ikusle bilduta zinema aretoetan –nahiz eta, emisio sistema predigital bati lotuta oraindik, ezingo den Primeran plataforman ikusi 2024ko irailera arte–. Akaso ez dago horren urrun, iragar liteke data eta hitzordua gordetzeko eskatu. Batzuek hemen eta orain 2025eko udaberrirako Euskaraldiak iragartzen dituzte, eta beste batzuek 15.000 sarrera saldu sei ordutan eta bigarren saio bat jarrita beste horrenbeste lau ordutan.

Delulu.

Arretaren kolapso betean eta mass mediatik ni mediara pasata gauden honetan, eraunsiaren indarra izaten dabil egarri baten helduleku eta tradizio baten amesgaizto. Euskal komunikazioaren industriak, hedabideen ibilbidea ardatz

hartuta, 40 bat urteko ibilbide oparoa du, iragan mendeko 80ko hamarkadatik aurrerako loralditik honakoa. Honaino ekarri gaituen lan eskerdari esker ederra izan den bidea; baina, orain, beste bidegorri eta mugikortasun plan batzuk eraiki beharko dira.

Kapitalismoak, globalizazioak eta plataformizazioak erabat eraldatu dituzte kanalak eta efektuen aurreikuspenak. Gainera, ez audientzia ez komunikatzailea ez dira lehengo berak. Portada eta *prime time*-tan konfiguratutako aroa joan da.


Aldaketa azeleratuen aroak ez dira proposenak arnasa hartu eta etorkizuna diseinatzeko. Urak lepo eta kontrako haizea, alabaina, ez da berria. Haluzinatu dezagun, pentsatu ezinezkoen posibilitatean, zoratu gaitezen, probatu dezagun, esperimentatu eta aliantza berrietan teilakatu. Utzi ameslariari bidera sartzen. Senti dezatela plazaren babesak. Ez dago beste orainik.

Ziklo batzuk perbertitu dira, eta beste batzuk perbertitze-ko daude.

Nahi nuke lasai ausartu hausten

(Aissa Intxausti,

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finaleko agurra)



- Norman Rockwell-en *The Gossips* margolanaren eguneratze algoritmiko penagarria. Ai!

### Inoiz ez bezala bukatzeko

Urteko analisi baten enkargua jasotzean hasten da bat pentsatzen ea zer bereizgarri izan duen 2023ko bertsolaritzak. Ez dakit abiapuntu traketsagorik aukera nezakeen, zeren, urteka antolatzen ez den aktibitate kulturalari zer bereizgarri aurkituko diot, bada? Determinatzekotan, konparazioz determinatu ahalko dela da bigarren okurrentzia, alegia, aurrez iragandako denbora tarte berdina eta erregularren parean jarri eta zertan bereizten diren ikusi. Gutxi gehiago, 2022 eta 2023 artean zazpi desberdintasunak aurkitzera jolastea da hori. Tira, zerbait bada, gutxienez, bertsolaritza eta arte kritika uztartuko dituen figura agertu arteko zera bat izan daiteke; eta, ikusiak ikusirik, denbora apur batean hala beharko du, zaila baitago bertsolaritzak dituen sorkuntza bereizgarrien araberako kritika-molde bat aurkitzen eta onartzen. Sinesgaitza dirudi arte-kritikan jantzia den inork bat-bateko bertsogintzaren analisi zintzorik egin nahi ez izatea, hor badugu zerbait. Agian, gai-jartzaileek beren jardunean egiten duten ariketa abiapuntu ona da trebatzeko, ekarpen-ahalmen handia du esparru horrek.

Bigarren botean, ni hemen eseri banaiz izan da ez zaidalako analisi bat eskatu, baizik eta 2023an akotaturako bertsolaritzaren gaineko testu bat. Ahal bezain zabal begiratuagatik, 95ean jaiotako hernaniarra, hizkuntza-ardatza euskara duena, emakumea eta bertsolaria nauzue. Wittigek eta ereñoztuarrek barkatuko didate. Hortik begiratzen dut ezinbestean. Gauza batzuk urruti geratzen zaizkit, beste batzuk gertu, zenbait gertuegi ere bai. Horregatik, argi utzi nahi dut hemendik egingo dudala ahalik eta irakurketa baliagarriena.

Hori, eta kalkulatu dudala 2023 urtean hogeiren bat saio entzutera joango nintzela asko jota, eta, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen arabera, mila saiotik gora izan direla. Zein saiotara joan eta zeinetara ez, gainera, aukeratu egin dut hein batean (eta nik bezala, zuk ere bai), beraz, lagina ez da ikaragarri zabala.

## Hegazti habiagileak

Ez diot alferrik begiratu ni izan nintekeen igorleari. Geure buruei begira jarri eta, buruari lotuta gorputza ikusi genuenetik, presenteago dagoela bertsolariaren izatea bertsolaritzan. Duela ia hamarkada esana dago bertsolariak buru hiztunak balira bezala behatu direla, eta bertso jardunaz aipatu diren ezaugarriarik gehientsuenak lepotik gora kokatu direla: inteligentzia, arrazoiketakarako gaitasuna, memoria, dialektikarako trebetasuna... Gorputzari leku egitean beste bide batzuk zabaldu dira, eta geldialdietako bat izan da bertsolaritzako gorputzena. Bertsotan dabilzan gorputzak, ez daudenak, botere harremanak, bertsolaritzaren parte direnak bertsolari izan gabe, eta beste hamaika subjekturen kontzientzia garatzen joan dela dirudi, eta horregatik heldu zaiola, berriz ere, zilegitasunaren gaiari. Gaudenak gaude, oraingoaz. Urte batzuk lehenago sumatu dut inguruan nori, nork, nondik eta zertarako kantatzen diogulako ardura, eta 2023a horrelaxe hasi genuen, EHUko *Gorputza, egiletasuna eta generoa euskal kultur sorkuntzan* ikerketaren barruan antolatutako mahai-inguruarekin. Izan zen, nolabait esateko, azken urteetako –batez ere– txapelketetako hausnarketetatik eta bizipenetatik egindako bateratze bat. Jakina, kontestua ez zen nolana hikoia, zeren 2022a Txapelketa Nagusiak baldintzatutako urtea izan zen zalantzarik gabe, eta 2023aren hasiera ere bai. Ediziotik ediziora modu nabarmenagoan gertatzen delako irudipena daukat, are, lurraldeetan ere garatzen doala fenomeno hori. Kanturako posizioarekin jarraituz, Txapelketa Nagusian ikusi

ahal izan ziren zenbait adibide praktiko, eta ausartzen naiz esatera estetikoki ere aldaketa bat dakarrela molde horretan kantatzeak, gehienak forma aldetik ere bereiz daitezkeela, alegia. Beraz, 2023an korrantea zabaltzen joan da. Martxoaren 7an Elorrión, esaterako, Nerea Ibarzabal eta Onintza Enbeita, gorputzaren memoriaz ari direla, gaia eurenera eramaten dute, betiere, Ainhoa Urienen gaia plazaratzeko moduak lagunduta; edo abuztuaren 16an, Donostiako Easo plazan, Miren Artetxek jarritako gaiari gaitik bertatik erantzun zion, hau da, jarritako gaia baliatu zuen jarritako egoerari erantzuteko (entzun saioak, eta ea zer diozuen). Plazako bi bertsoaldi ekarri nahi izan ditut, horrelako adibideen bila hasitakoan aurrea hartzen baitiete txapelketetako bertsoaldiek. Jakina da, gainera, txapelketarako aurrez prestatzea hobe dela eta behin egindako lanak gero ere emaitzak eman ditzakeela; ondorioz, puntuatutako saioetan adina perla aurkitzen dira auzoetako saioetan. Gaiari interesa duenari lehenago aipaturiko ikerketa gomendatzen diot, *Gorputza, egiletasuna eta generoa euskal kultur sorkuntzan* ikerketa. Donostiako mahai-ingurua lanaren atal bat baino ez da, jarduera eta gogoeta-saio gehiagotatik irakurketa oso baliagarriak egin dira kultur sorkuntzari begiratzeko eta, beraz, bertsolaritzari. Spoiler txiki bat eginik, jakizue zilegitasunen gaineko gogoe-tek izango dutela leku bertsolaritzan 2024an ere.

## Espezie endemikoak

Kontuak kontu, urte hasiera BTNren (Bertsolari Txapelketa Nagusiaren, ez Berezkoa Ta Naturalaren) erresakaren doinura aritu zen kantari, eta luze jo zuen finalisten edo zortzi bertsolariko saioen eta metabertsolaritzaren garaiak. Salbuespenezko hilabete horiez harago, Bertsozale Elkarteak aukera luke ecofriendly zigilua eskuratzeko, zeren, egun, auto bakarrean abitzen dira saioko gai-jartzailea eta bertsolari guztiak, apenas baitago lau bertsolaritik gorako saiorik. Luzeak

dira seiko saioak, zer esanik ez zortzikoak. Seiko saio bat egokitzen zaizunean gutxi eta «*enkasillatuta*» kantatzen duzulako sentipena duzu, lauko saioetan ardura gehitxo izan dezake hankamotz dabilenak eta hiruko saioak orekatzeko zailak dira. Seiko saioetan ardura banatuago egon daiteke, laukoetan ariketa mordoska bat egin beharrak luzitzeko aukera gehiago eman ditzake eta ez duzu baztertzen hiruko saioen potentziala. Ez dago ordu terditik pasatzen den saiorik, ordu eta berrogeita bost luzeegia da, ziur. Horren gaineko nire iritziak bi xentimoko baliorik ere ez du, besteak beste, ez dudalako iritzi garbirik, gaur A eta bihar B diodalako. Baina aztergai interesgarria iruditzen zait saioen iraupenaren, bertsolarien eta entzulearen arreta akotatze hori; baita, txapelketetan eraginik ez izateaz gain, finaletako parte hartzaile kopurua handitzeak harrabotsik sortu ez izana ere. Bestalde, agian izango da parte-hartzaile kopurua gutxitzeak oholtzaratzen den erreferentzia dibertsitatea gutxitzen duela edo, zergatik ez, entzuleen heterogeneotasunaz ohartu garela eta eskaintza espezifikagoa egin beharra suertatu dela. Beharbada, ez ditugu hainbeste interes amankomun? Auskalo. Bada, hala ere, zerbaiten adierazle saioen zehaztasuna. 2023an izan ditugun ekimenen artean daude: adinekoen egoitzetan egindako saioak (Adin-adin); haur eta gaztetxoei bideratutako saioak (bertso-jasa); antzerki, bakarrizketa eta musika bidaide dituztenak (alpistoia, urpekariak, KILIMATERIOA, Amaraun, Anonyme Popular, Miresiaren Adarrak, Luze eta motz, eRRe, rr, etab.); pentsiodunei bideratutako bertso-paper lehiaketa (bertsopentsionistak); musika bidezko lagunarteko gazte sariketa (Bertso Muxikatuak); belaunaldiartekotasunari erreparatutako giro informaleko edo mahai bueltako sariketak (Zapiketa, Mingaño saltsan, Pello Errota); transfeminismoa ardatz duen giro informaleko sariketa (Señora Sariketa); eta beste hainbat. Jakina, aipatu ditudan ekimen guztiak ez dira 2023an abiatutakoak eta, era berean, aipatutakoak baino askoz ere saio berezi gehiago izan dira 2023an (martxa honetan 'saio berezi' bezala katalogatuko ditugu lau bertsolari

eta gai jartzaile batez osatutako saioak! Baina, hori, beste upel bateko sagardoa da). Hona aurten proposatu didaten ariketa bat: *marrastu ezazu bertsolari bat. Askorik pentsatu gabe, hartu arkatza eta marrastu gainontzekoek bertsolari bat dela ulertuko duten bertsolari bat.* Ariketa honi atal gehiago gehi dakizkioke, esaterako: *marrastu ezazu bertso-publikoa. Askorik pentsatu gabe, hartu arkatza eta marrastu gainontzekoek bertso saio batera joan direla ulertuko duten jende multzo bat.* Zorionez, bertsolaritzara bide eta interes desberdinetatik heldutako jende pila bat gara, eta horri leku egin dezan uzteko ahalmena dugunik eta bertuterik onena izan daiteke. Gertuen sentitu dudan adibidera jota, Señora Sari- ketan beste saio mota batzuetara hurbildu ere egiten ez den jendea sumatu dut, eta, zer, horiek ez al dira bertsozaleak? Ziur zaude 'bertsozalea' saio mota guztietara doala? Nora doa? Zergatik? Eta ez publikoa bakarrik, kanturako sortzen den kontestuak askorako ematen du. Aurten, bat bereizte aldera, Eli Zalduaren «lehen jira internazionalaz» flipatzeko aukera izan dugu, eta pozteko modukoa da ikustea elkarri leku egiteak eta laguntzeak, plazak eta plazarako eskaintzeak zer ondorio dituen.

### *Rara avis-ak*

Eta bai, artikulua osoa daramat paretik kendu nahian, destor- bura datorkit etengabe, eta, agertu arteko bakerik izango ez duenez, bai, 2022a izan zen txapelketa urte ofiziala, baina, urtero bada txapelketaren bat. 2023an, Arabako kanporaketa, Xilabako taldekakoa, Nafarroakoa eta Bizkaikoa. Aurtengoa da, ordea, Euskal Herriko Txapelketa Nagusirako lurraldeka- ko txapelketa loteslerik izan ez den bakarra. Gogoetagai posi- blea da txapelketek duten, hartzen duten edo ematen diegun garrantzia eta adierazgarritasuna eta hori guztia zeren bizkar lortzen den. «Lehen saioa lehertu nahi nuen/ ni izan nintzen leherkari [...] barkatu flanez eginda nago/ ez naiz zurrun

bertsolari» hasi zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketako Altsasuko finalerdiko hasierako agurra Saioa Alkaizak, eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Lemoakoa «lagunarte ederrean/ pozik hastea bertsotan/ hauxe defendatuko dut/ ezer defendatzekotan» kantatuz Nerea Ibarzabalek. Txapelketen ajeez eta, era berean, bertan egoteaz asko dioten bi agur. Lan galanta egiten da txapelketen bueltan, ahalegin handia egiten dute gai-jartzaile, bertsolari, epaile eta denek, eta horren guztiaren jakitun gara, analisi honetan fokua beste nonbait jarri nahi izan bada ere. Emaitzei begira zer? Bada, Arabako 18koak 2024an jokatuko du txapelketa, Xilabako taldekako egungo txapelduna Hazparke taldea da, Nafarroako txapelduna Julio Soto da eta Bizkaikoa Nerea Ibarzabal. Eskerrik asko 2023ko 'peps-a' izan zareten eta urtea titi bat aterata bukatuko duzuenoi. 🍷



## LIBURUAK

99 Euskal liburugintza 2022  
Xabier Eizagirre Gesalaga

# Euskal liburugintza 2022

Xabier Eizagirre Gesalaga

*Filosofian lizentziaduna eta JAKINEko erredakzio burua*

Urtero bezala, liburu ekoizpenaren emaitzak aurkeztu eta aztertzeraz geroz. Joan Mari Torrealdaik 1976tik 2017 arte, urtero-urtero etenik gabe, liburugintzaren ikerketa soziologiko sistematikoa osatu zuen, eta baita JAKIN aldizkarian argitaratu ere. Lan horrek bi emaitza sendo ekarri ditu: batetik, euskarazko liburugintzaren katalogoa osatu ahal izan du Jakinek; eta, bestetik, liburugintza kultura oso baten osasun egoeraren adierazletzat hartuta, sei hamarkadetako sistematizazioa eta begirada sakona ahalbidetu du, haren indarguneak eta ahulguneak identifikatuz. Torrealdaik abiatutako ildo beretik, 2022ko liburugintzaren azterketa duzu ondorengoa.

Pandemiaren bi urte gogorrenak gainditu ondoren, 2022an goranzko joerari heldu dio berriro liburugintzak: 2.529 liburu argitaratu dira euskaraz, aurreko urtean baino %9,9 gehiago. Pandemiaren eta liburu ekoizpenaren arteko erlazioak ez digu, itxura batean, ondorio esanguratsurik ateratzeko tarte handirik eman: pandemiaren lehenengo urtean, 2020an, %11,3 egin zuen gora ekoizpenak, eta bigarrenetan, aldiz, 2021ean, %11,6 behera. Orain aztertzeraz goazen urtean, 2022 postpandemikoan, aurreko bi urteetakoaren neurriko aldaketa izan dugu, eta oraingoan ere, txandari eutsiz, goranzkoa izan da aldaketa hori.

## Metodologia eta bibliografia

Azterketa honek hamarkadatan zehar taxutu eta findutako metodologiari jarraitzen dio. Urtetik urtera saiatu gara hobetzen, azterketak fintzen eta informazio iturriak zehazten. Gogoratze aldera, esan dezagun lege gordailua dela urtea markatzen duena, eta urtearen barruan arakatzen duguna ISBN duen titulua dela. Bildu, ISBNdunak baino gehiago biltzen ditugu, eta horietako batzuk aurkitu daitezke gure webgunean jartzen dugun katalogoan.

Bi urrats nagusi ditu gure metodologiak: informazioaren bilketa eta azterketa bera.

### Informazioaren bilketa

Lehen urratsa liburuaren katalogoa osatzea izaten da. Eta, horretarako, liburuak berak biltzen saiatzen gara. Baina ematen duena baino nekezagoa da liburuaren informazioa inguratzea. Guk informazioaren gune zuzenera jotzen dugu lehenik, argitaletxeetara, eta ondoren gure sareak botatzen ditugu hemen eta han. Gezurra badirudi ere, ez dugu lortzen euskal argitaletxe guztiek informazioa eskura diezaguten; esan beharrik ez dago kanpoko argitaletxeekin areagotu egiten dela bilketaren zailtasuna. Eta, hala ere, katalogoa osatzea lortzen dugu.

Gure informazio iturriak, 2022an, hauek izan dira:

- Argitaletxe eta argitaratzaileak zuzenean: %36,5.
- Liburutegiak, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Donostiako Udal Liburutegi Nagusia: %14,3.
- ISBN (*International Standard Book Number*), ELSN (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala) eta EIPS (Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea) arakatuz lortutakoa: %48,8.
- Bestelako bideak (Internet, *Biblioteca Nacional* espainiarra...): %0,4.

Zorionez, urte batzuetan behera egin ondoren, argitaletxeetatik zuzenean jasotzen dugun informazioa emendatu egin da oraingoan, herenetik gora: aurten %36,5 izan da. Garrantzi

handia du guretzat informazio iturri hori ugaria izateak, iturri fidagarri eta seguruen den heinean; beraz, igoera hori oso seinale ona da. Hori bai, liburutegietatik jasotakoak behera egin duenez (2021eko %22,7tik 2022ko %14,3ra), bi iturriotatik jasotakoak ekoizpen osoaren erdia gaintzen du ozta-ozta, iaz bezala. Baina kontuan har dezagun duela urte gutxi %60ra iristen ginela bi bide horietatik. Jakina, kopuru horietara itzultzea litzateke ideala, datuen fidagarritasunean irabaztearren. Sare pelagikoekin lortzen dugun informazioaren kalitateak eskasagoa eta ilunagoa izateko arriskua du.

Informazioa ahalik eta zehatzen bildu eta gero, liburu bakoitzaren fitxa bibliografikoa osatzen dugu, dozena bat datu edo ezaugarriren inguruan: titulua, autorea, itzultzailea, elebitasuna, argitalpen maila, moldatzailea, argitaratzailea, koedizioa, herria, neurriak, orrialde kopurua, gaia.

Jasotzen dugun eta bilatzen dugun informazioari esker fitxa bibliografikoak osatu ondoren, urteko katalogo osoa gure webgunean jartzen dugu kontsultagai. Esan bezala, azterketarako erabili ditugun tituluak baino gehiago daude webguneko zerrendan. Izan ere, eduki aldetik interesgarriak izan eta arrazoiren batengatik ISBN gabe argitaratu diren batzuk ere eransten dizkiogu ISBNdunen zerrendari. 2022ko katalogoak 2.725 titulu biltzen ditu guztira: ISBN duten 2.529 titulu eta ISBN gabeko 196.

2013tik, bitan banatuta eman ohi dugu azterketa hau. Eskuetan duzu paperezko bertsioa, azterketaren zati mami-tsuena. Baina, hori osatzeko, webguneko bertsio digitalera jo behar da (artikulu honen amaieran dator QR kodea): han daude informazio osagarriak, zehatzagoak, luze-zabalagoak. Katalogoa ere hortxe aurki dezakezu, hau da, 2022ko titulu guztien fitxa bibliografikoa.

### **Azterketa hiru ataletan**

Informazioa bildu ondoren, liburugintzaren azterketa hiru ataletan banatzen dugu:

1. *Ekoizleak eta ekoizpena*: orrialde kopuruak, ekoizle kopurua, hamar argitaletxe nagusien ekoizpena, argitaratzaileen tipologia eta tipologiaaren araberako produkzioa.
2. *Eskaintza editoriala*: tituluak zenbat diren, horien artean zenbat diren nobedade eta zenbat berrargitalpen, zenbat diren jatorrizko eta zenbat itzulpen. Deskribapen kuantitatibo horri, mende berriarekin, eboluzioaren bi osagai erantsi zizkion Torrealdaik: eboluzioaren lerroaren eta eboluzioaren indizearen grafikoak. Lehenak, eboluzioaren lerroak, 2000ko emaitza erreferentziatzat hartu eta harrezkeroko balioak neurtzen ditu urtez urte. Bigarrenak, eboluzioaren indizeak, aurreko urteko erreferentzia laburra hartzen du kontuan, urte batetik besterako aldaketa zein izan den adieraziz.

Eboluzioaren ikuspegia, egia esan, betidanik hartu da kontuan azterketa hauetan. Analisi guztietan nagusitzen da ikuspegi historikoa. Izan ere, testuinguru kronologikoak ematen dio datu absolutu isolatuari ez bakarrik kokapena, baizik eta baita balioa eta esangura ere.

3. *Ekoizpen tematikoa*: urteko ekoizpena –2022ko 2.529 tituluak, esate baterako– nola banatzen da gai eremutan? Sei gai eremu nagusi bereizi ohi ditugu: hezkuntza eta irakaskuntza liburua, haur eta gazteentzako liburua, giza eta gizarte zientzietako liburua, helduen literatura, zientzia eta teknika alorrekoa eta aisia liburua. Gai eremu bakoitza zehatz arakatu ohi dugu: datu absolutuak, ehunekoak, eboluzioa, edizio maila, itzulpenaren eta berrargitalpenen neurria...

## **Aurtengo azterketaren atarian**

Hona hemen 2022ko liburugintzak eman dituen datu kuantitatibo esanguratsuenak:

- *Argitaratzaileei dagokienez*, 317 izan dira 2022an. Ekoizlearen kopurua ez da urtetik urtera modu esanguratsuan aldatzen, 300 inguru dabil aspaldi, azken bi urteetan

pittin bat gorago. Jakina, ekoizle ugari horien artean denetik dago, aurrerago ikusiko dugunez: argitaletxeak eta argitaratzaileak, txikiak eta handiak, profesionalak eta amateurrak, bertakoak zein kanpokoak, publikoak eta pribatuak, izaera askotarikoak.

- *Eskaintza editorialari dagokionez*, 2022ko ISBNdun titulu kopurua 2.529 da, horietatik %81,3 bertario analogikoan (paperean) eta %18,7 digitalean.

2021ean baino 228 titulu gehiago argitaratu da. Bietan igo da, analogiko zein digitalean, baina igoera handiagoa izan du digitalak (129) analogikoak baino (99).

Nobedadeak %74,7 izan dira, 1.888 titulu, iaz baino 267 gehiago. Berrargitalpenen kopuruak, 633 titulu, 39 unitate galdu ditu 2021etik, eta ekoizpen osoaren %25,3 dira aurten.

- *Gaiei dagokionez*, hezkuntza eta irakaskuntza liburuak ohikoa zaion lehen tokia berreskuratu du alde handiarekin, 895 titulurekin (ekoizpen osoaren %35,4, iaz baino ia hamar puntu gehiago).

Haur eta gazteentzako liburua itzuli da, hain zuzen, bigarren tokira, 718 titulurekin (%28,4, iaz baino ia bost puntu gutxiago).

Helduen literatura hirugarren tokira igo da (350 titulu, %13,8).

Giza eta gizarte zientzietako liburua, aldiz, ohiko hirugarren tokitik laugarrenera jaitsi da (318 titulu, %12,6).

Bosgarren tokia aisia liburuari dagokio (148 titulu, %5,9), eta seigarrena zientzia eta teknika alorreko liburuari (81 titulu, %3,2).

## **Ekoizleak eta ekoizpena**

### **Ekoizle ugari**

Ekoizpenari eta ekoizleei buruzko lehen atal honetan hainbat ezaugarri gurutzatuko ditugu: eragile argitaratzaileen izaera, noski, baina baita horien jarduna eta jatorria ere.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	181
2-4	71
5-9	25
10-19	18
20-29	5
30-39	4
40-49	1
50-59	3
80-89	2
100-150	4
150etik gora	3
<i>Guztira</i>	317

317 dira guztira 2022an libururen bat plazaratu duten argitaratzaileak. Egia esan, aurreko urtekoaren kopuru oso antzekoa da: sei argitaratzaile gutxiago besterik ez.

Behin baino gehiagotan azpimarratu izan dugu horiek guztiak ez direla argitaletxeak, edizioaren profesionalak. Ezta

pentsatu ere. Noizbehinkari asko eta asko dago, eta halakoak ez direnen artean ere, gehienak ahulegiak dira liburu politika sendo bat markatzeko.

Gainerakoan, 2021ean egin-dako proportzio eta iruzkin bertsuak egin ditzakegu ekoizle eta ekoizpen banaketari buruz. 317 horietatik erdia baino gehiago dira (%57,1) titulu ba-

karra argitaratu dutenak. Hamar titulutik behera publikatu dutenak ere asko dira: 277 (%87,4). Areago: %79,5 dira lau titulu edo gutxiago ekoitzi dituztenak (252). Argi dago horiei guztiei ezin zaiela argitaletxe deitu; noizbehinkako argitaratzaileak dira, gehienez ere.

Urteak daramatzagu esaten urteko 20 tituluko neurriak ezar dezakeela editoreen arteko ekoizpenaren langa garrantzitsua. 2022an, bada, editoreen %6,9k bakarrik ekoitzi dute 20 titulutik gora, 22 editorek. Beste guztiek -295, %93,1- 20

20 tituluko neurriak ezar dezake editoreen arteko ekoizpenaren langa garrantzitsua. 2022an, %6,9k bakarrik ekoitzi dute 20 titulutik gora, 22 editorek

titulu baino gutxiago atera dituzte. Betikoa azpimarratuko dugu berriro ere: ekoizleen atomizazioa dela euskal produkzioaren ahulezietako bat. Eta, argi gera dadin, atomizazioa arazo bezala ikusteak hau esan nahi du: arazo nagusia ez da txiki asko egotea, handi gutxi egotea baizik.

Ekoizleen panorama hori ezagututa, tipologiaren arabera bereizketa ere aztertu ohi dugu. Ez baita gauza bera, ez produkzio mailan, ez liburuek jorratzen dituzten gaiei dagokienez, argitaletxe komertzial petoa izatea edo unibertsitate, udal edo kirol elkarte izatea, adibidez.

### Argitaletxe nagusien ekoizpena: 1.388 titulu

Hamar argitaletxe, handienak eta komertzialak, daude zerrenda honetan. Bada hemen agertzen direnak baino gehiago ekoitzi duenik –Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua bederatzigarren legoke handien zerrenda honetan, 60 titulurekin–, baina komertzial eta pribatuak bakarrik hartu ditugu aintzat.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrargitalpenak</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkar	85	168	253	10,0
Ikaselkar	35	163	198	7,8
Santillana-Zubia	175	0	175	6,9
Anaya-Haritz	104	68	172	6,8
Susaeta	99	36	135	5,3
SM-Ikasmina	117	5	122	4,8
Edelvives-Ibaizabal	100	15	115	4,5
Erein	54	34	88	3,5
Edebé-Giltza	45	35	80	3,2
Editorial Erita	50	0	50	2,1
<i>Guztira</i>	<i>864</i>	<i>524</i>	<i>1.388</i>	<i>54,9</i>

Hamar handien multzoak indarra berreskuratu du 2021etik, bai kopuru absolutuan (1.388 titulu), bai ekoizpen osoarekiko ehunekoa (%54,9, 2021ean baino ia zortzi puntu gehiago). Esan behar da, dena den, 2021ean beherakada handia izan zuela multzo horrek, eta, beraz, aurreko urteetako ohiko kopurura itzuli dela, ekoizpen osoaren erditik pittin bat gorako zatia hartuz.

Hamar goren horien artean, lehen aldia da zazpi 100 tituluren muga gainditzen dutela. Bada zerbait.

Gure kasuan, beti erreparatzen diogu argitaletxeen jatorri geografikoari. Urterik urte, guretzat funtsezkoa den bereizketa egin izan dugu bertakoen eta kanpokoen artean: hau da, erabakigunea Euskal Herrian duten argitaletxeak hartzen ditugu bertakotzat, eta Euskal Herriatik kanpora dutenak kanpokotzat, nahiz eta hemen filialak izan.

2022an, lehen aldiz, hiru bakarrik dira bertakoak, eta zazpi kanpokoak. Eta ekoizpen kopuruei dagokienez ere kanpokoak bertakoak baino indartsuagoak dira hamar horien ekoizpenaren barruan: %61,2 vs %38,8. Ekoizpen orokorrekiko, aldiz, hamabi puntuko aldea ateratzen diete kanpoko zazpi nagusi horiek bertako hiru nagusiei: %33,6 vs %21,3. Azken urteotako datuei begiratuz, argi ikus daiteke kanpoko argitaletxeen itzala haziz eta haziz doala.

Bertakoen eta kanpokoen arteko alderik handienetakoa, 2022an ere, berrargitalpen politikan dago. Eskuratu ahal izan dugun informazioa fidagarria bada, bertako argitaletxeetan berrargitalpenaren indarra %69,7koa da, eta %32,3koa bakarrik kanpokoetan. Betiere hamarron unibertso horren barruan. Baina, sarritan aipatu dugun bezala, argitaletxe batzuek dituzten berrargitalpen kopuru hain baxuak susmagarriak iruditzen zaizkigu (posible ote da, adibidez, Santillana-Zubiak azken urteetan batere berrargitalpenik ez izatea, edo SM-Ikaskuntzaren 2022an bost berrargitalpen bakarrik?). Datu guztiz esanguratsuak iruditzen zaizkigu horiek guztiak, liburugintzari egonkortasuna berrargitalpenak ematen dion neurrian.

### **Argitaratzaileen tipologia**

Argitaratzaileen tipologia askotarikoa da: kanpokoak zein bertakoak; argitaratzaile komertzialak eta ez-komertzialak; pribatuak zein publikoak; handiak eta txikiak; irakaskuntzakoak; talde, elkarte edo fundazio izaera dutenak... Ekoizleen unibertso hori bost multzoko sailkapenean ordenatu ohi dugu.

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertako argitaldari pribatu komertziala	79	988	39,1
Kanpoko argitaldaria	72	1.046	41,4
Elkartea, taldea, fundazioa, erlijio-etxea...	92	162	6,4
Argitaldari publikoa	34	158	6,2
Irakaskuntza + unibertsitatea	15	106	4,2
Besterik	25	69	2,7
<i>Guztira</i>	<i>317</i>	<i>2.529</i>	<i>100,0</i>

### Bertakoak eta kanpokoak testuliburuen merkatuan

Testuliburuen merkatua aztertzeke ere, hamar ekoizle handien unibertsoan jarraitzen dugu.

Atal honetan, bertakoen eta kanpokoek jokamoldean jarriko dugu arreta. Bereizketa hori, azalean, geografikoa da; baina editorialaren erabakigunearen kokagune geografikoak du garrantzia: erabakiak non hartzen diren, bereziki hezkuntza curriculumean. Zentzu horretan du garrantzia bereizketak, horren arabera aldatzen baitira batzuek eta besteek gure ekosistema editorial eta kulturean duten inplikazioa, hezkuntza curriculumean duten eragina edota euskal argitalgintzaren industrian duten indarra. Horrek guztiak garrantzi handia du hezkuntza sistema propio eta beregaina nahi duen edonorentzat.

Batzuek eta besteek ekoizpenean duten proportzioa ez da urtero bera izaten, baina kanpokoek esku hartzearen emaitza beti da handia, eta azken urteetan ekoizpen osoaren bi herenetik gora egonkortzen ari dela konproba daiteke.

Hona azken urteotako emaitzak hamar argitaletxe nagusien artean:

<i>Urtea</i>	<i>Ekoizle nagusien pisua irakaskuntzan</i>		
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>
2018	29,7	64,9	5,4
2019	23,0	72,1	4,9
2020	21,1	75,6	3,3
2021	33,2	62,7	4,1
2022	25,4	70,4	4,2

Auzi honen garrantzi azpimarragarria dela eta, hiru taula baliatuz azalduko dugu jarraian bi ekoizle mota horiek,

alegia, kanpoko argitaletxeek edo bertako argitaletxeek, argitalgintzan duten portaera. Bereziki testuliburuaren alorra eta curriculum arakaturik ere, adierazgarria eta esanguratsua da gainerako gai eremuetan duten ekarpena ere aztertzea. Horrenbestez, taula bakoitzean gai eremu guztiak daude zerrendatuta.

Taula bakoitzak bost zutabe dauzka: lehenean gaia agertzen da, eta hurrengo hiruretan ekoizleak: bertako, kanpoko eta gainerakoak. Bertako eta kanpoko diogunean, argitaletxe profesional-komertzial-pribatuez ari gara soilik, aurreko atalean aipatu ditugun bestelako ekoizleak (publikoak, elkarteak, irakaskuntza alorrekoak...) aintzat hartu gabe.

Lehen taulan, zifra absolutuak agertzen dira, eta horiei esker ikus daiteke zein den edizio mota bakoitzaren pisu kuantitatiboa.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Balio absolutuak</i>			
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	989	1.046	494	2.529
HI	227	630	38	895
HG	353	318	47	718
HL	258	19	63	350
GG	62	8	248	318
AL	67	37	44	148
ZT	11	32	38	812
Besterik	1	2	16	19

Ekoizpen osoaren baitan, oro har, Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak dira nagusi, bai bertako editore komertzialek argitara ematen dutena (989 titulu) eta bai elkarte, talde, fundazio, argitaldari publiko eta enparauek argitaratzen dutena (494 titulu); 1.483 titulu dira guztira (ekoizpen osoaren %58,6).

Gai eremuak banaka begiratu ere, bertakoen zifrak altuagoak dira sail mamitsuenetan kanpokoak baino, salbuespen nabarmen batekin: hezkuntza eta irakaskuntza liburuan oso goitik daude kanpokoak, 630 vs 227. Azken urteetako joeraren isla da berriro ere proportzio hori, 2021eko salbuespen bitxiaren gaineratik.

Bigarren taulak alderaketaren ikuspegia proposatzen du. Ezker-eskuin, etzanean irakurri beharrekoa da, gai eremu bakoitzean kanpokoan eta barnekoan indarra zein den neurtu ahal izateko.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>% horizontalak</i>			
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	39,1	41,4	19,5	2.529
HI	25,4	70,4	4,2	895
HG	49,2	44,3	6,5	718
HL	76,6	5,4	18,0	350
GG	19,5	2,5	78,0	318
AL	45,3	25,0	29,7	148
ZT	13,6	39,5	46,9	81
Besterik	5,3	10,5	84,2	19

Ekoizpen osoa aintzat hartuz, bertako zein kanpoko argitaletxeen indarrak orekatu xamar daude (%39,1 vs %41,4). Hezkuntza eta irakaskuntza liburuaren lerro horizontalean, aldiz, erabat nagusi dira kanpokoak, produkzio osoaren ia hiru laurden bereganatuta. Lehen esandakoa: iazko salbuespena ahaztuta, aurreko urteetako kopuruetera itzuli gara, kanpokoan nagusitasun erabatekora, alegia.

Taula horretan, argi ikusten da aurten ere kanpokoek ekoizpen sinbolikoa dutela bestelako gaietan: ia ez dute parte hartzen, adibidez, helduen literaturaren zein giza eta gizarte zientzietako liburuen alorretan (ekoizpen osoaren %5,4 eta %2,5, hurrenez hurren). Hau da, kanpoko editorialek haur eta gazteen eta eskola liburuen merkatuari soilik begiratzen diote, ez beste ezeri.

Hirugarren taula, azkenik, zutikakoa edo bertikala da, zutabe bakoitza goitik behera irakurtzekoa. Editorial mota bakoitzaren baitan ekoizpena non mamitzen den adierazteko balio du, edizio mota bakoitzaren indargune eta ahulguneak non dauden erakutsiz.

Irakurketa bertikalari lotutako taula egiazki esanguratsua da editorialen filosofia hautemateko: argitaldarien espainiarren ekoizpena haur eta gazteentzako eta hezkuntza liburuetan zentratzen da kuantitatiboki (%90,6); eta, bereziki,

hezkuntzakoan (%60,2). Gainerako liburu motatan –helduentzako liburuetan, alegia–, huskeria ekoizten dute, ezta hamarrena ere mota guztien artean.

<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>% bertikalak</i>	
	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>
Ekoizpen osoa	100,0	100,0
HI	22,9	60,2
HG	35,7	30,4
HL	27,1	1,8
GG	6,3	0,8
AL	6,8	3,5
ZT	1,1	3,1
Besterik	0,1	0,2

Betiko auziaren mamiak, horrenbestez, gure muturren aurrean jarraitzen du, egoskor. Izan ere, kanpoko argitaletxeek hezkuntzaren muina dute xede nagusi eta ia-ia bakar:

Euskal Herritik Euskal Herrirako hezkuntza proiektuak ez dira jada nagusi, bertako editorialek lantzen duten curriculum proiektuak ez baitu gehiengoa hartzen

Euskal Herriko eskoletan kanpoan sorturiko curriculum egokitua sartzea. Ikus dezakegunez, euskarazko hezkuntza proiektu gehienak Euskal Herritik kanpo diseinatzen dira, bestelako curriculum proiektuen eta helburuen arabera landuak.

Joan Mari Torrealdairen aspaldiko kezka ez du etenik, beraz... Haren hitzetan: barrutik husten ari gara. Hau da, Euskal Herritik Euskal Herrirako hezkuntza proiektuak ez dira jada nagusi, bertako editorialek lantzen duten curriculum proiektuak ez baitu gehiengoa hartzen.

Gu esnatu edo ez, hortxe datza dinosauroa.


## Eskaintza editoriala

Azterketaren bigarren atal honetan, argitaratzaileen emaitza material eta kuantitatiboez jardungo dugu. Hainbat ezaugarri

arakatuko ditugu jarraian: titulu kopurua, liburuen egiletza kronologikoa eta linguistikoa. Eta hori guztia ez soilik aurtengo datuekin, 2000tik gaur arteko bilakaerari ere begiratu baizik. Izan ere, eskaintzaren azterketari buruzko gure ekarpen nagusia, beharbada, emaitza bakoitzari dagokion testuinguru kronologikoa eskaintzea izaten da, informazio soilak, isolaturik, interpretaziorako bide handirik irekitzen ez duelakoan.

2022ko eskaintza editorialaren datu nagusien laburpen txiki batekin ekingo diogu atal honi. Aurtengo titulu kopurua igo egin da: 2.529 titulu izan dira aurten, 2021ean baino 228 gehiago. Horietatik, %81,3 bertsio analogikoan argitaratu dira eta %18,7 digitalean. 1.888 titulu nobedade edo lehen edizio dira (%74,7), aurreko urtean baino 267 gehiago. Berrargitalpenen kopurua, aldiz, jaitsi egin da: 641 titulu (%25,3), 2021ean baino 39 gutxiago. Nobedadeen barruan, euskaraz sorturikoak 1.255 izan dira (%68,7); itzulpenak, hortaz, 633 (%31,3).

## 2.529 titulu



2021ean izandako 302 tituluko beherakada orekatzea dator 2022ko liburugintza, berriro ere 2.500 aletik gora kaleratuz. Azken hamar urteetako batezbestekoa 2.343 izan dela aintzat

hartuz gero, neurri horretatik dezente gora geratu da 2022ko ekoizpena.


Azpmarratzekoa da, dena den, 2000tik honako joera orokor xamarra dela urte bateko irabaziak hurrengo urteko galararekin orekatzearena, gorakada bati beherakadak erantzuten baitio gehienetan hurrengo urtean. Halaxe gertatu zen 2004, 2009, 2012, 2016, 2018 eta 2021ean. Alderantziz ere berdin planteza dezakegu, jakina, beherakadari gorakadak erantzun ohi diola, alegia. Eta halaxe iritsi gara 2022ra, aurreko urteko jaitsierari igoerarekin erantzunez.

Bestalde, mende honetan lau urtetan gainditu da 2.500eko muga: 2008, 2015, 2022 eta 2022an. Eta, bitxia bada ere, urteen hurrenkera berean joan dira kopuruak handitik txikira: 2.717, 2.657, 2.603 eta 2.529, hurrenez hurren. Hau da, badi-rudi 2.500 inguruko kopuru horrek muga erreal bat ezartzen diola liburugintzari, kopuru hori gainditu duen bakoitzean beherakadarekin ordaindu baitu hurrengo urtean. Ea hurrengo urtean zer gertatzen den.

<i>Urtea / Liburu mota</i>	<i>Analogikoa</i>	<i>Digitala</i>	<i>Guztira</i>
2010	2.024	258	2.282
2011	2.173	244	2.417
2012	2.070	178	2.248
2013	1.698	184	1.882
2014	1.748	228	2.276
2015	1.942	715	2.657
2016	1.793	478	2.271
2017	1.857	509	2.366
2018	1.918	289	2.207
2019	1.856	483	2.339
2020	1.897	706	2.603
2021	1.958	343	2.301
2022	2.057	472	2.529

Aurreko laukian, aldiz, ekoizpen osoa bitan banatuta dator, analogikoa eta digitala, biak elkarren arteko alderaketan. Ikus daitekeenez, urteko igoera orokorra bien artean banatu dute, nahiz eta, proportzioan, ekoizpen digitalarena analogikoarena baino esanguratsuagoa izan den: %37,6 eta %5,1, hurrenez hurren.

## Nobedadeak eta berrargitalpenak



<i>Urtea</i>	<i>Nobedadea</i>	<i>Berrargitalpena</i>
2000	65,7	34,3
2001	71,6	28,4
2002	70,4	29,6
2003	71,4	28,6
2004	73,7	26,3
2005	70,9	29,1
2006	67,6	32,4
2007	69,5	30,5
2008	69,3	30,7
2009	69,9	30,1
2010	70,7	29,3
2011	71,5	28,5
2012	68,0	32,0
2013	67,9	32,1
2014	73,4	26,6
2015	80,6	19,4
2016	74,9	25,1
2017	73,9	26,1
2018	70,9	29,1
2019	75,0	25,0
2020	73,3	26,7
2021	70,4	29,6
2022	74,7	25,3
<i>Batez beste</i>	<i>71,5</i>	<i>28,5</i>

Euskal liburugintza nobedadeetan oinarritzen da batez ere. Horien arabera hazten edo murrizten da. Horixe da gure joera, urtez urte, hamarkadaz hamarkada. 2022an ere lehen edizioak ekoizpen osoaren hiru laurden inguru hartu du:

Hezkuntza eta irakaskuntza liburuak ia beti gorde ohi duen lehen lekua berreskuratu du (895, %35,4), haur eta gazteentzako liburuaren aurretik (718, %28,4)

%74,7 (2021ean baino 4,3 puntu gehiago, hain zuzen ere).

Berrargitalpena beste laurdena betetzera baino ez da iristen, taulako azken aldiko urteek erakusten digutenez: 2022an ere %25,3ra baino ez da iritsi. Leku apala hartzen du edizioan, apalegia, gure ustez. Seinale ona litzateke haziko balitz, liburugintza merkatu berrietara hedatzen dela

esan nahiko bailuke. Beti pentsatu izan dugu berrargitalpenak indar handiagoa beharko lukeela; izan ere, berrargitalpenaren ahulezia euskal liburugintzaren izaera diglosikoaren sintometako bat dela uste dugu.

## **Ekoizpen tematikoa**

Argialetxeen jardunaren emaitza aztertu ondoren, ekoizpen tematikoan edo edizioaren muinean gaude. Izan ere, bibliografoaren ikuspegitik harago, ekoizpenaren zenbatekoa bera baino gehiago interesatu izan zaigu beti ikuspuntu soziologikoa: euskaraz zer argitaratzen da, eta argitaratzen den hori non eta nola txertatzen den euskal kulturari.

Urteroko ekoizpena, beraz, gaika sailkatu ohi dugu, nazioartean erabili ohi diren ereduaren arabera. Eta sailkaturiko eremu bakoitzean ikuspegi ebolutiboa aplikatzen dugu, bost urteko erreferentzia bederen eduki dezagun.

Horrenbestez, argitaratutako tituluak zortzi gai sailetan banatzen ditugu urtero:

1. Hezkuntza eta irakaskuntzako liburuak.
2. Haur eta gazteentzako liburuak.
3. Giza eta gizarte zientzietako liburuak.
4. Helduen literatura.
5. Zientzia eta teknika alorreko liburuak.

6. Aisia liburuak.
7. Orotarikoak.
8. Erlijio liburuak.


Zortzi arlo horietatik, lehenengo seiak bakarrik aztertu ohi ditugu, urterik urte ekoizpen osoaren %99 inguru biltzen baitute. Halaxe izan da 2022an ere (%99,3).

Aurtengo aldaketa aipagarrien artean, hezkuntza eta irakaskuntza liburuak ia beti gorde ohi duen lehen lekua berreskuratu du ekoizpen orokorrean (895, %35,4), haur eta gazteentzako liburuaren aurretik (718, %28,4). Ikusten denez, nabarmena da haur eta gazteei zuzendutako liburuaren produktzioa, bi liburu multzo horien artean ekoizpen osoaren bi heren inguru (%63,8) hartu baitute; azken buruan, bai irakaskuntzako liburuak eta bai haur eta gazteentzakoak publiko bera du jomuga.

Bi multzo horiek alde batera utzita, gainerakoen itzala asko arintzen da, gehiegi: hurrengoak helduen literatura (350, %13,8) eta giza eta gizarte zientzietako liburua (318, %12,6) dira. Atzerago datoz aisia liburua (148, %5,9) eta zientzia eta teknikakoa (81, %3,2).

Sei liburu sail horiek banan-banan arakatuko ditugu; baina, lehenik, ikuspegi globala emanaz hasiko gara. Helburu hori dute hurrengo laukiak eta grafikoak; bakoitzak bere modura, errealitate bera erakusten digute: urteko ekoizpen osoa bali absolutuetan eta erlatiboetan. Laukian beste erreferente bat sartu ohi dugu, 2000. urtea, mende honetako lehen urtearekiko nola gauden, zerk egin duen gora eta zerk behera adierazteko asmotan.

<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>	<i>2022/2000</i>
Hezkuntza/Irakaskuntza	895	35,4	+45,8
Haur eta gazteentzako liburuak	718	28,4	+89,9
Helduen literatura	350	13,8	+19,5
Giza eta gizarte zientziak	318	12,6	+7,4
Aisia	148	5,9	+214,9
Zientzia/Teknika	81	3,2	-18,2
Besterik	19	0,7	-47,2



Ekoizpen tematiko sailkatuta igaro aurretik, ohar bat: gai sail bakoitzean, informazioz betetako taula bat ageri da. Gaiari dagokion laburpen osoa biltzea du xede: azken bost urteotako eboluzioa kontzeptu guztietan, hala nola tituluetan, ekoizpen osoarekiko ehunekoan, urtetik urterako eboluzio alderatuan, itzulpenaren eta berrargitalpenaren urte bakoitzeko pisuan, urteko orrialde kopuru orokorrean eta liburu bakoitzaren batez besteko orrialde kopuruan.

### Hezkuntza eta irakaskuntza: 895 titulu

	2018	2019	2020	2021	2022
Hezkuntza/Irakaskuntza	669	850	1.108	591	895
Ekoizpenaren %	30,3	36,3	42,6	25,7	35,3
Urtetik urtera %Δ	-16,6	27,1	30,4	-46,7	51,4
Itzulpenen % (1. edizioan)	35,3	21,6	25,3	39,5	15,4
Berrargitalpenen %	39,5	30,9	27,5	48,6	31,6
Orrialde kopurua	61.385	79.208	77.841	66.350	91.850
Orrialde kopurua liburuko	91,8	93,2	70,3	112,3	102,6

2021ean sailkapen orokorrean galdutako lehen lekua berreskuratu du liburu mota honek, 404 titulu gehiago argitaratuta. Ongi irakurri duzue, 404 titulu... aurreko urtean baino %51,4 gehiago! Kontua da iazkoan beherakada izugarria izan zuela, 2020tik %46,7 jaitsi baitzen. Eta, gainera, ongi identifikatu ahal izan genuen zergatia: beherakada hori kanpoko

argialetxe komertzial nagusiei atxiki zekiekeen bete-bete; izan ere, lau argialetxe nagusiek –Anaya-Haritz, Edebé-Giltza, Edelvives-Ibaizabal eta Santillana-Zubiak– 2020an baino 514 liburu gutxiago argitaratu zituzten 2021ean. Urak neurri batean bere ohiko bidera itzuli direla esan genezake, beraz, nahiz eta 2022ko kopurua 2020koaren azpitik dabilen oraindik.

Bietan irabazi ditu tituluak, gainera: analogikoan 59, eta batez ere digitalean, 145. Bakoitzaren indarra honela banatzen da: 621 titulu analogiko (%69,4) eta 274 digital (%30,6). Digitalak, ikus daitekeenez, indar handia du hezkuntza eta irakaskuntzako liburuan.

Itzulpenaren pisua, bestalde, ikaragarri jaitsi da sail honean, %39,5etik %15,4raino. Egia esan, ez zaigu guztiz fidagarria iruditzen, konbentziturik baikaude egiazko itzulpena askoz ere altuagoa dela testuliburuaren esparruan; izan ere, argialetxe batzuetan ahalegin handia egiten da itzuli edo berregokitu egin den liburua nobedadea balitz bezala aurkezten.

Liburu mota honen berrargitalpen maila %31,6ra iritsi da; aipatutako iazko salbuespena gorabehera, azken urteetan herenaren inguruan egonkortu dela dirudi.

### Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak. Hezkuntzaren antolakuntza..	9,3
Eskolaurrea. Haur eskola.....	4,0
Lehen Hezkuntza.....	47,2
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	36,0
Besterik.....	3,5
	%100,0

Barne sailkapenean, argi ikusten da aurten ere LH eta DBHko testuliburuak direla, beti bezala, sail hornituenak, eta hurrenkera horretan gainera. Bien artean %80tik gora batu dute, 2019tik aurrera gertatu den bezala.

Hurrengo taulan, bi horien balioak sei urteko perspektiban bildu ditugu.

Urtea	LH	DBH
2017	27,9	39,4
2018	44,2	28,6
2019	71,8	14,5
2020	51,6	30,8
2021	49,4	31,3
2022	47,2	36,0

Ikuspegi diakroniko horretatik, azken bi urteetan LHko liburuak beheranzko joerari heldu diola dirudi, eta DBHkoa, berriz, goraka ari dela. Hezkuntza sistemaren egitura eta joera propioekin lotura izan dezake horrek guztiak: DBHn euskarazko ereduak gero eta hedatuago egotearen ondorio izan daiteke, esate baterako. Baina eskola materialen egutegi propioa eta politika editorialak gurutzatzen diren esparru batean gaudenez, ez da erraza irakurlegoaren profilarren edo hezkuntza politikaren alorreko azalpen garbiak topatzea. Arreta handiz ikusi beharko dugu, dena dela, aurrerantzean joera horiek egonkortzen edo indartzen diren.

### Haur eta gazteentzako argitalpenak: 718 titulu

	2018	2019	2020	2021	2022
Haur/Gazte	741	621	662	756	718
ekoizpenaren %	33,6	26,5	25,4	32,9	28,4
Urtetik urtera % $\Delta$	5,4	-16,2	6,6	14,2	-5,0
Itzulpenen % (1. edizioan)	69,8	65,9	61,8	63,6	58,6
Berrargitalpenen %	36,2	35,3	39,4	32,4	30,1
Orrialde kopurua	49.370	45.309	44.715	45.118	44.143
Orrialde kopurua liburuko	66,6	73,0	67,5	59,7	61,5

Haur eta gazteentzako liburua ohikoagoa zaion bigarren lekura itzuli da. Itzulera hori hezkuntza eta irakaskuntza liburuaren gorakadak eragin duela baieztatu daiteke, haur eta gazteenak ez baitu neurritz kanpoko beherakadarik jasan kopuru absolutuan: 2021ean baino 38 titulu gutxiago bakarrik izan ditu (ekoizpen osoarekiko ehunekoa 32,9tik 28,4ra jaitsi da).

Aurreko urteetan bezala, sail honetako ia liburu guztiak analogikoan argitaratu dira (685 titulu, %95,4), eta 33 bakarrik digitaletan (%4,6).

Liburu mota honetan, itzulpenaren pisua beti izan da oso handia. 2022an ere halaxe da, %58,6; hala ere, aurreko urteetan baino maila apalagoa izan du.

Berrargitalpenak ere garrantzi handia du (%30,1), baina horretan ere beherago ibili da aurreko urteetan baino. Liburu mota honen izaera eta helmuga kontuan izanda, desiragarria izango litzateke aurrerantzean berriro goranzko joerari heltzea.

### Helduen literatura: 350 titulu

	2018	2019	2020	2021	2022
<i>Helduen literatura</i>	317	316	304	335	350
ekoizpenaren %	14,4	13,5	11,7	14,6	13,8
Urtetik urtera % $\Delta$	10,8	-0,3	-3,8	10,2	4,5
Itzulpenen % (1. edizioan)	26,3	31,0	20,8	23,8	27,1
Berrargitalpenen %	24,3	22,5	30,3	31,0	26,3
Orrialde kopurua	51.968	39.815	48.105	54.663	55.433
Orrialde kopurua liburuko	163,9	126,0	158,2	163,2	158,4

Helduen literaturak, kopuru absolutuan, igoera esanguratsua izan du bigarren urtez jarraian: 2022an 15 titulu gehiago izan ditu iaz baino. Baina, hala ere, ekoizpen osoarekiko ehunekoan ia puntu bat galdu du. Ez da sumatzen, beraz, nabarmentzeko moduko aldaketarik. Hori bai, datu horiekin hirugarren tokia kendu dio giza eta gizarte zientzietako liburuari.

Multzo honetan, 299 titulu argitaratu dira analogikoan (%85,4), 2021ean baino 19 gehiago; digitalean, aldiz, 51 soilik kaleratu dira (%14,6). 2021eko proportzioak errepikatu dira, gutxi gorabehera.

Nobedadeen artean, itzultakoak diren literatur liburuak %27,1era igo dira (70 titulu, iaz baino 15 gehiago), baina kopurua herenera hurbildu izan den urteetatik behera oraindik ere.

Berrargitalpenaren neurria apaldu egin da berriro, iazko kopuruekin alderatuta: laurdena pasatxo, %26,3 (92 titulu). Ez da, gure ustez, albisterik onena, berrargitalpenak gehitzea

beti iruditu izan baitzaigu ekoizpen eta kontsumo osasuntuagoaren adierazle.

### Generoka

Eleberria. Ipuina.....	54,3
Olerkia.....	17,7
Antzerkia.....	2,6
Herri-literatura. Bertsoa.....	0,3
Mizelanea. Kronika. Saioa.....	21,1
Literatur teoria eta kritika.....	4,0
	%100,0

Aurten ere berriro egoera bera errepikatu eta azpimarratu behar da, narratibaren nagusitasuna: %54,3, gainerako generoak urruti utziz. Olerkiak, bere aldetik, bi puntuko igoera izan du 2021etik.

### Giza eta gizarte zientziak: 318 titulu

	2018	2019	2020	2021	2022
Giza/Gizarte	298	348	337	349	318
Ekoizpenaren %	13,5	14,9	12,9	15,2	12,6
Urtetik urtera %Δ	-10,0	16,8	-3,2	3,6	-8,9
Itzulpenen % (1. edizioan)	33,1	30,6	25,3	32,0	30,8
Berrargitalpenen %	7,7	6,0	6,2	7,7	8,2
Orrialde kopurua	52.749	61.033	52.219	63.676	53.060
Orrialde kopurua liburuko	177,0	175,4	155,0	182,5	166,9

Giza eta gizarte zientzietako liburua laugarren tokira erori da ohikoa zaion hirugarrenetik, helduen literaturaren atzetik geratu baita. Taulak garbi uzten du liburu mota honek aurten izan duen jaitsiera: 31 titulu gutxiago, eta 2,6 puntu behera ekoizpen orokorrean (azken hamarkadako bigarren proportzio baxuena). Azken hiru urteetako kopuruetatik behera egin du.

Analogikoaren zein digitalaren arteko proportzioak iazko bera errepikatu du bete-betean 2022an ere: zehatz-mehatz, liburu analogikoak %86,2 hartu du (274 titulu), eta digitalak %13,8 (44).

Itzulpenen datuak ere antzera geratu dira, 90 titulurekin (%30,8) gora egin dute; berrargitalpenek, pittin bat gora egin duten arren, betiko neurri eskasean egoten jarraitzen dute, zoritxarrez. Liburu honek sustrai ahulak dituen seinale, betiere.

Betidanik nabarmendu izan dugu liburu honen joera egonkorra. Egonkorra, zentzurik txarrean, kultura osasuntsu batek beharko lukeen maila eta kopuruetatik oso behera baitabil, multzo honek biltzen dituen gaiak zein eta zenbat diren aintzat hartzen badugu: filosofiatik hasi eta geografia edo historiarraino, soziologia, etnologia, politika, ekonomia edo hizkuntzalaritzatik barrena. Gure porrotaren sintoma edo isletako bat dela esan genezake: euskal liburuaren gure kontsumoa guztiz diglosikoa da, desorekatua, sakontasun eskasekoa, alor batzuetara mugatua.

Giza eta gizarte zientzietako liburuak kultura osasuntsu batek beharko lukeen maila eta kopuruetatik oso behera dabil, multzo honek biltzen dituen gaiak zein eta zenbat diren aintzat hartzen badugu

### Barne sailkapena

Filosofia. Psikologia.....	3,8
Soziologia. Estatistika. Politika. Ekonomia.....	23,8
Zuzenbidea. Administrazioa.....	15,1
Etnologia. Etnografia.....	4,4
Artea. Hirigintza.....	20,8
Filologia. Hizkuntzalaritza.....	14,5
Geografia. Historia.....	17,6
	%100,0

Liburu mota honek bere baitan biltzen duen gaitegi zabala erakusten du zerrenda horrek. Eta hori guztia elikatzeke, 318 titulu besterik ez. Horra gure kulturaren eta liburugintzaren argazkia.

## Gainerakoak

### Aisia liburuak: 148 titulu

	2018	2019	2020	2021	2022
<i>Aisia</i>	98	95	101	126	148
Ekoizpenaren %	4,4	4,1	3,9	5,5	5,9
Urtetik urtera % $\Delta$	3,2	-3,1	6,3	24,8	17,5
Itzulpenen % (1. edizioan)	45,7	46,1	58,4	58,3	58,5
Berrargitalpenen %	6,1	6,3	11,9	8,7	12,2
Orrialde kopurua	13.048	10.726	10.620	12.673	15.162
Orrialde kopurua liburuko	133,1	112,9	105,1	100,6	102,4

Musika.....	8,1
Argazkia.....	4,7
Jolasa. Jokoa. Kirola.....	11,5
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	9,5
Kiosko literatura.....	66,2
	%100,0

Aisiako liburuak gorakada dotorea izan du, iazko 126 titulutik 148ra. Ekoizpen orokorrean pisu txikia duen arren (%5,9), hainbat urtetan ez behera baina batez ere ez gora ibili ondoren, azken bietan goranzko joera nabaria bizi du. Gizarte modernoan duen garrantziagatik, ederra litzateke joera hori egonkortu edo indartuko balitz, pixkanaka kontsumo diglo-sikoari ihes egin diezaiozun. Etorkizunak esango du.

### Zientzia eta teknika: 81 titulu

	2018	2019	2020	2021	2022
<i>Zientzia/Teknika</i>	63	86	69	110	81
Ekoizpenaren %	2,9	3,7	2,7	4,8	3,2
Urtetik urtera % $\Delta$	-53,3	36,5	-19,8	59,4	-26,4
Itzulpenen % (1. edizioan)	15,0	18,1	11,8	13,2	10,5
Berrargitalpenen %	4,8	3,5	1,4	3,6	6,2
Orrialde kopurua	7.551	9.602	6.983	10.513	6.722
Orrialde kopurua liburuko	119,9	111,7	101,2	95,6	83,0


Zientzia zehatzak. Natur zientziak.....	29,6
Medikuntza.....	50,6
Ingeniaritza. Teknologia.....	6,2
Zientzia eta teknika aplikatuak. Industria.....	13,6
	%100,0

Zientzia eta teknika alorreko liburuak 2021ean aurreko urteetako galerak berreskuratzea lortu bazuen, aurreko urteetako kolpea jaso du: duela hamar urteko kopuruetara hondoratu da (2013an 79 titulu izan ziren, 2022an baino bi gutxiago). Mende osoari begiratuta, kopuru absolutua hiru urtetan bakarrik egon da aurtengoaren azpitik. Errepika dezagun behin baino gehiagotan esandakoa: euskal liburugintzaren eta euskalgintzaren beraren ahuleziaren adibide bat gehiago dugu begien aurrean. 🍷



**2022ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA**

Sailak	Zenb. abs.	%
<b>0. OROTARIKOAK</b>	<b>838</b>	<b>33,1</b>
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Museoak	22	0,9
— Haur eta gazteentzako argitalpenak	816	32,2
<b>1. FILOSOFIA</b>	<b>12</b>	<b>0,5</b>
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	12	0,5
<b>2. ERLIJOA. TEOLOGIA</b>	<b>6</b>	<b>0,2</b>
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak	6	0,2
<b>3. GIZARTE ZIENTZIAK</b>	<b>1.033</b>	<b>40,8</b>
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	138	5,4
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	895	35,4
<b>5. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA ZIENTZIA NATURALAK</b>	<b>20</b>	<b>0,8</b>
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	20	0,8
<b>6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA</b>	<b>57</b>	<b>2,3</b>
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	57	2,3
<b>7. ARTEA. JOLASAK. KIROLAK</b>	<b>116</b>	<b>4,6</b>
— Artea. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	85	3,4
— Jostaldia. Ikuskizunak. Jolas eta jokoak. Kirolak	31	1,2
<b>8. FILOLOGIA. LITERATURA</b>	<b>391</b>	<b>15,5</b>
— Hizkuntzalaritza. Filologia	41	1,6
— Literatura. Literatur generoak	350	13,9
<b>9. BIOGRAFIA. HISTORIA. GEOGRAFIA</b>	<b>56</b>	<b>2,2</b>
— Biografia	10	0,4
— Historia. Geografia	46	1,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.529</b>	<b>100,0</b>



 euskadi  
irratia  
gertu

## IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

### Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

### Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

### Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

### Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

## EROSI

### Aldizkaria

#### PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

#### DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

### Artikuluak

#### DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

### Liburuak

#### PAPERA

- Jakinkide bazara  **10 €**
- Jakinkide ez bazara  **12 €**

#### DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**





# BIZKAR SORO



**Jakin**<sup>•eus</sup>  
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

